

## **OLERTI 1985-86**

**SANTIAGO O N A I N D I A**

- POESI JATORRA
- ITZULPENAK
- BERTSOLARIAK
- IRITZIAK

# **POESI JATORRAK**

## EUSKAL POESIA AZTALLUAN

Euskal poesiaz idatzitako guztia, izan bedi geure kulturari dagokionezkoa. Sarri otsegiten diguna: arlo askotan euskaldunok nabarmen ba gara ere, orren gainezgain ez gabiltzala kultur-auzian. Zerbait dakigula ustetan, pellokeri galantak botaten ditugu, idatziz eta itzez. Au bai, asko dakigulakoan, iñoren guztia arbuiatu eta zabor-saskira! Joko matxarra, erriak danon arnasa bear dauan orduan, kemenak olan erretea.

Poesia ere bear dugu euskal arima edertzeko. Literatura guztiak, leen eta orain, olerkia landu izan dute erria kulturatzeko, jakituriz maillaz-mail goratzeko. Poeta onak dauzkan erriari zorionak ezpain-gozoz irri egingo dio, ez izan zalantzik. Guk ere, ba, landu dezagun olerkia. «Orduen Liturgis»-k ez digu alperrik otoizten eska dezaigula Jainkoari ertilarien alde, one-la esanik: «Zuk eman diezu, Jauna, ertilariei, Zuregandik datorren edertasuna agertzeko eskua» (860 or.).

Ez duzu lan exkaxa, ertilariak dagitena; eta auen artean, leenengo mailan lerrotuak, beti egon izan dira olerkariak. Aoz uts-erazten du gizonak bere arima. Giza-barrenak eskeiñi ederra ta landatik jaso, biak dituzu nolarebait sorburua goian dutenak. Kezkaz zein eztabaidaz, era ortan adierazitako dana, zentzun zeatz gabe maiz, olerkia da biotzak eta adimenak, Jainkoak guregan jarritako bi almenok sortu digutena. Eta, argi esanda, bi orpo auen gain bira dagi edozein poemaren atear.

Dantzaketa ez du izan bear poesiak, alakoren baten ezik; noizik-bein, bai ongi datozkigu dantzaldi batzuk ere, erritar bide ta graziz egiñak noski. Lauaxetaren «Arrats-beran» dauzkagunak mota ortakoak dira: arin, labur, jostari, ulert-errezak. Olan osorik egositako liburu gizen-mardulak, orraitino, ez ote litzaizkigu gogaikarri? Egiazko zentzuak, beraz, erdia eskatzen; au da, lan labur-ariñak, luze-sakonakin naste.

Poesi batzuk beren oparotasunez eragin nai digute. Oien artekoak genitun, adibidez, gerra aurretxoan euskal literaturan gaillendu ta gero, Sevilla-n bizi zalarik, erderara jo zigun Barrenso, errexildarra, oraintsu Getxo-n illa; ugari ta jator idazten zuen bertsoz ta itz lauz; or orain bi urte ber-argitaratua dugun «Gazigozoak» idazti atsegiña ta «Uztaro» eleberria. Oparoa zan Loramendi ere poesi batzuetan, 39 estrofako «Barruntza-leioan» eta 48-ko «Arrantzalien Arrats-otoitza»-n besteak beste. Lizardi, Orixe, Lauaxeta geienez, ordea, labur-zale ziran.

Itz-mozkorra gaur beintzat etzaigu laket, bai janari ta edari alegiñean ondu ta gertatuak; irudi-sail errimea jarraika, gaur dirdir-jario ta biar illun-oxin, poemak usteko du aurrerantz dijoala, baiña aren ots-doiñu ozena aspergarri zaigu askotan. Gisa ortako poemak ez ote ditugu —zenbaitek diñoe— eliz letani bezela?

Beste poeta batzuen lanak, aldiz, ez doaz illunera beren funtsik eza gordetzer. Lan auker beti zaizkigu eratz eta eder, lerdin eta atsegin. Eder zai-guna, eta egiazki eder dana, gizaldiak joanik ere, ezta ezaintzen, ez ikoltzen; aitz-mokor antzera, ezilkortua dirudi. Buruz ta biotzez sort-azi duguna egiazko izanaz lotu, or edozein olerkiren elburu; au iritxi oi dugu geure barruko kemen-utsaldi labur batez. «Naiko da esakun bat —idazten du mexikotar Oktabio Paz-ek— sua pizteko. Poema ez da besterik minutua su biziak artua baiño. Ezta itxurtzen aren argia; bere itxura aurkitu du». Ugari ala idor, beraz? Gaurko ago-xuriak berbaroa baiño idorrea gurago.

Darabilgun auzian gu zertan geran jakiteko, jar ditzagun euskal olerkiak, olerkariak eta poesi-lanak argitara ematen dituzten aldizkariak aztailuan. Izan ere, aldia bein, zentzuzki jokatzeko, poliki datorkigu atzean utzi dugun lan-arloari ikusi bat ematea, utsak arteztu ta ederra ugaltzeko asmuz. Era ortan jokatu oi du gure nekazariak, baita lan-garantz jakiña daraman edozein kaletarrek ere. Ainbat astekari ta aldizkari ditugu olerkiak ematen dituztenak. Ez diñot egunkariak, auker ez bait dute amets zororik argitara atera nai. Egia esan, gure egunkariak ere egin bear lukete alegiñik gai ortan, erria eder-zaletu ta gogoz jantzi dedin, gerra aurretik «Euzkadi»-k eta besteak egin oi zuten. Nik astero artzen dut La Coruña-ko «La Voz de Galicia», biotz onekoren batek bialdua, bere «Cuaderno de Cultura» espaiñeraz eta gaillegoz dakarrena, bertsoz ta prosaz ongi sakaturik. Madrid-eko batzuk ere berdin dagie. Zergaitik ez gureak? Ez al daukagu idazlerik? Ba da idazlerik. Baiña auen alamen, ez dituztela beren lanak argitara ematen. Egia orixe dugu.

Olerkariak eta idazleak, ala ere, bere lanak irar-moldetuta ikusi nai ditu; bidezkoa da bere xedeari jarraitzean punparik egin nai ez badu; ezta bereztat bakarrik idazten, erria lan ori irakurri ta ausnartuz, gero ta kultuago gertatu dedin baizik. Poetaren lanak, labur biziak badira batez ere, irakurriak eta ongi eritziak bezin maitatuak izan oi dira.

Dakusgun, ba, euskal poetak zer dagiten gaur. Idazten ote dute? Maitatuak ote dira? Ba al dute nun argitara eman beren sorpenak? Gaurkoz, azken urteotan plazaraturiko poesi-liburuak albora lagarik, azter ditzagun piz-

kat euskal olerkarietoki beren orrialdeetan eskeintzen dieten aldizkariak, bai egoaldekoak eta bai iparraldekoak. Amaika dira nik une ontan esku artetan dauzkadanak. Amaika auetatik gaienok poesi-leiak joak dituzu, olerkikezkaz bizi direnak. Labur baiña, bijoaz emen banaka.

*OLERTI.* Aurrelari, jakiña, berau ipiñi bearko, zuzen eta bidezko baita. Uneoro paketa utzi ez dioten arren, 1959-tik ari izan da eder-lanean, eta diardu gaur ere. Izan ditu, ezin ukatu, oztopoak goitik eta beetik, arazo garrantzitsu guztiak izaten dituzten oztopoak ain zuzen; baiña denak azpiratuz, aurrera doa. Aurreko aleetan esana ostera ere ez errepikatzearren, bego emen argi esanda, olerki-esparruan lanik sendo ta gogotsuena osatua, OLERTI dugula. Egia aitortzeko, leen lau zenbaki ziran urtero; orain ale bakarra dugu. Azken urteetako aleok, ala ere, bakarrak izanik ere, mardul-mardulak dira, egiazko euskaltzale danak ezetsi eziña. Lau sail dauzka: 1) *Poesi jatorra*; 2) *Itzulpenak*; 3) *Bertsolariak*, eta 4) *Iritziak*. Edozein idazlek, ikusten denez, aukera du nai duen gaitan bere eder-sena iruli ta gain-azpikatzeko.

*KARMEL.* Neuk 1949an antolatu ta urrengo urtean, karmeldar Gutunaren mende-burua zala zio, argitaratu nuena. Leen zenbakitik gaur arte, konta ezin-ala poesi eman ditu argitara. Ain zuzen, lenengo urteetan ere olerki asko artzen ditulako, Karmel-en geigarri legez, sortu nuen OLERTI. Biok dira, ba, berberaren kimuak. Biei opa diet bizitzaldi luze mardula.

*ZER.* Bizkaiko aldizkari begikoa, Bilboko «Euskerazaleak» sortua ta Martin Olazar langille erneak aurrera eramana. Ementxe dator illero-illero poesi-mordoa. Mai gainean dut azken banakoa, 1986-ko bagillekoa, eta bertan dauzkazu beste aleetan legez sei oler-lan beintzat, Paulin, Bidaguren eta Aboitz-ek euskal-senez maminduak.

*KANDELA.* Gasteiz-en asia ta jarraitua. Gaur ere bai? Ez dakit, ixildu zitzaigula Donostia-ko «Argia»-n irakurri bait nuen. Ez nuke orren zeruertzean gordetzerik. Dana dala, Gasteiz-en agertzen zan, eta begien aurrean orain daukadanak, au diño: «2. urtea 10. zka. 1984ko maiatza». Idazleonek lanak dakartzki: Xabier Etxaniz, Tere Irastorza, Manu Lope, Yulen Arriolabengoa, Giuseppe Arroyo, J. Iñaki Lasa.

Gaspe talde batek, bostek zeazki, eman zion asiera. Taberna baten bil-tzen ziran eurak, Aliziaren etxean, eta ementxe odatzen zituzten beren euskal lanak, «tabernak, tabernako mahaiak direlako —idatziko dute— literaturgile lotsatien anonimatuan zintzo gorde ditzaketak bakarrak». Zergaitik izan ori? «Literatur taldea sortu zenean —idazten oraindik— piztu zelako eta taldearen lanak, egunero, astero, mantentzen duelako pizturik. Kandelarioan elkar-ikus-hizketak mantentzen dute pizturik KANDELA. Aldizkaria gure nortasun agiria dugu, besterik ez, bagarela adierazteko».

Alkar-lana nai zuten eta olaxe egin zuten, bakoitzaren lanen akatsak astindu, kritikak eginez, poesiak idaroki ta eztabaidatuz, itzulpenak obetuz... Eta zergatik itzali ote? Asmo ederrez adoretzu asi arren, laster porrota... Zer dala-ta olan? Iraupenik ezak dakar porrota. Errezegi bizi gara gaur.

Orren ondorioa: asmo bikaiñak sortu arren, aldatz-gora egiten zaigu artutako erabakia azkeneraiño eraman-aztea. Geurekoiak gara oso, beste aldetik, geurea bakarrik nai dugu; gaur nai duguna, gaiñera, biar ez dugu nai. Urteetan gora goazenok ere, gaitz oietan edanak gara, baiña iraupen kementsuak azpiratu zizkigun ezindazunak. Bada oindio beste arrazoirik ere, porrot eragiten duenik.

*SUSA-k* Donostiako zoko batean du kabia andik, bai datorkit. Emen daukadana, berriz, igaro maiatzean Durangoko euskal Liburu azokan Itxaro Borda-k eskuratu zidan «The Susa News» deritzana dut. Euskal erriko edozein euskalgintza, kulturgintza ta iraultza urbilari dagozkien gauzetan buruz belarri sarturik dabillen talde batek osatua da. «Duela —diosku— sei-zazpi bat urte aldizkaria ateratzen hasi ginenetik, eta duela pare bat liburuak argitaratzeari ekin genionetik, uste baino itzuli gehiago eman dituzte gure xedeak, esan nahi bait urtetik urtera koxka eta kale kanto berriak deskubrituz joaten zarela».

Nire asmorako emen ere agertzen dira olerkiak; zenbaki ontan bi poema dauzkat, Patxi Aizpuruaren «Udazkeneko hegoaize zakarrak» eta Omar Nabarro-ren «Badakizu, Benerice». Biak poliki taxutuak.

*TTU-TTUA*. Literatur aldizkaria. Arnasa zabal aundikoa, nik uste, Bilbo-n ateratako au; 1985-ko udazkeneko 0,5-0,6 zenbakiak deritzana daukat eskuetan. 64 orrialde. «Hau duk hau poesia!» oi u zabal barruan. Aurkibidea onela: «*POESIA: 4-Idatzitakoa*. Imanol Goienaga; - *Gaua begiratzten*. Amaia Iturbide; *10-Atzo esan behar nizkizunak*. Iñako GoitioItza; *12-Tristura*. Garaiko Jaun; *13-Poemak*. Roman Utrex; *19-Poemak*. Heusses. *Narratiba: 22-Demagun*. Iñigo Barandiaran; *25-Hiru ipuin lizun*. Iñaki Bernaola; *28-Lispeth*. Rudyard Kiping. Itzul: I. Zubiria; *34-Musika-eskola*. Jon Updike. Itzul: I. Zubiria. *SAZOA: 41-Ionesco: Zentzugabekeria zentzuduna*. Joanes Urkijo. *POESIA: 45-Poemak*. Maite Urkia; *46-Poemak*. Kanko Ispizua; *50-Historia do Rock and Roll* A.R. Reixa. Itzul: Joanes Urkijo; *56-Poemak*. Anna Ajmátova. Itzul: Laura Mitegi; *60-Mateo M. Mantilla*. Omar Nabarro.

Guztira amazortzi poema jator, politik eta zerbait diotenak. *Narratiba* saillekoak, modernoak *oso*. *Saioa*, berdin. Irugarren moltzokopoemak, jatorrak; itzulpenak ez dute akatsik. Aldizkari au ere itzali dala, penaz irakurri dut.

*IDATZ ETA MINTZ*. Literatura atalen sorta. Urte batzuk diralatik Bilboko «Labayru Ikastegia»-k ateratzen du, Adolfo Arejita, Jesus A. Etxezarraga ta Jon Kortazar aolku emaille ta Maya Agiriano, Pedro Zarrabeitia ta Juan A. Zubikarai lankide dirala. Poesi jatorrak, zaarrak eta itzulpenak agiri zaizkigu berton; jator edo originalak, B. Zupiriaren «Hutsune bat sumatzen dut» 36 bat aapaldiko poema eta Txantxata-ren «Olerkia»; aintziñako bertsoak, Arijitak bildutako koplak eta errokatzeak, eta itzulpenak, Bingen Zupiriak euskeraz jarritako Pablo Neruda-ren «Ozkorrian ene zerruan...» Erpin-erpiñeko gaurkotasuna darion aldizkari apaiña.

*IHINTZA.* Irun-go La Salle-enekoak argitaratua. 1985-eko martxoan / 6. zenbakia daukat emen. Lerdena oso izkiz eta margoz. Artikuluak eder-se-nez pentsatu ta biotz-suz kiskaliak, esku mee-fiñez egiñiko dibujoz apain. Itz-lauzko lanak, ipuin eta barne-ikara, oso ziztagarriak, gure euskerari es-keiñik ez gutxi. Bertsoei gagozkiela, Bertsolari eskolakoak, Alberto Baza-ko-ren «Hotz», G. Zelaia-lokin Otaegi-ren «Gibelsalasa», Patxi Ezkiaga-ren «Neguko Ekaina», Rikardo Fuster-en «Azken tantak utzi du bere usain goxoa belarrean» eta Romualdo Katarain-en «Ihintz ttantta batzuk», gogoz irakurtzen dira. La Salletar gazteak aspaldi dabilta, irmo ta kementsu, Itzurtza-ko seme leial Bitaña-k eta donostiar Iñaki Olabeaga anaiak urratu-riko ildo olerkitsutik barrena.

Eta, amaitzeko, mugaz andiko beste irurok:

*HERRIA.* Asteroko au zintzo doa bere 1857-garren zenbakian. 1986-eko ekainaren 12-koa daukat aurrean. Pierre Lafittek eta onen inguruko euskaltzaleak sortu zuten Lapurdi, Baxenabarra ta Zuberoko euskaldunak zer irakurri euki zezaten. Eta astez aste ta urtez urte bultzatu ta azaldu izan dute. Iñoiz txepeldu gabe, aitor bearko, beti zintzo ta ederki; gaur egundo baiño dotoreago.

Olerkari ta olerki-zale aundi genduan P. Lafitte. Beraz, leenengo aletik asi zitzaizkigun «Herria»-ren aldeak olerkiz dotoretzen. Ondoren, zorabio gabe, makiña bat bertso eder agertu izan da; mordoak bai, batzuklatorrak, idatzi barriak, labatik arakoak, eta beste batzuk, aintziña bateko or-emen jasoak. Leial jokatua dugu oraintsu omendu duten Panpilli; azken zenba-kian ere, or duzu «Matxini ohore» deritzana. Bederatzi aapaldi ditu, zortzi-ko nagusitan. Ona, erakus-eredu legez, leenengo estrofa:

Agur, ohore ta bozkario egun zuretzat, Senpere;  
Besta eder bat egin beharrez zugana etorri gare;  
Bertsulariak, haundi famatu, lehenengo izan dire,  
Matxin zenari in nai diogu hemen aundizki ohore.

Gisa ontako bertso bipillak eman izan dizkigu beti «He-rriak»-k.

*OTOIZLARI.* Beloketik artzen dugun aldizkaria. Arasara eskua luzatu 117-garren numerua egokitu zait, 1985ko uztaila-iraila; 40 orrialde. Ango abate Iratzeder olerkari fin-fiñak zu-zendua dut «Otoizlari» ainbat gai jakingarri ta goxoz aberats. Ale guztietan dauzkagu lau-bost poesi eder, eta marrazki begi-asegarriak ugari. Zuzendaria ta irarkolaren arduraduna, biak dira eder-sen aundiko gizasemeak. Eta, hetik ere, nolako zu-gaitza alako fruitua.

Toki oba-eziña Beloke otoitz eta eder-lanerako. Ortan dute ziurki aita ta anai beneditarrak egiazko anaitasuna eta «saindu-tasun eta bozkario iturria». Beloke-ren uzta, beraz, unkiagarria izan bear ezinbestean, nik uste. Ale onetan idazten dute baitik

bat Iratzeder, Aita Martin Sein, J.O. eta J. Iturrioz jesuitak. Teatrua ta olerkia lantzen du Iratzeder-ek, mugaz andiko olerkigintzari eder bezin zintzo atxikia.

*MAIATZ*. Osorik or-or poesiari emana. Iru illabetekoa. Nik 1986-ko alea daukat eskuetan. Amaikagarren zenbakia. Baiona-n agertzen da, an inguruko euskal idazle ta poetak era-tua. 56 orrialde. Ale ontan idazten dutenak: Auxtin Zamora, Jeanne Etchezahar Monteil, Arantxa Urrutabizkaia, Jean Louis Cayssade, Tere Irastorza, Mayi Palot, Itxaro Borda, Kristian Andres, Aurelia Arkotxa, Gotzone Sestorain, Peio Xarriton, Zesar Pavese, Luzien Etchezaharreta, Ana Rossetti, Marisa Gutierrez eta Eñaut Etxamendi. 24 bat olerki guztira.

Oraindik goi-maillaraiño iritxi ez bada ere, gero ta gailenduagoz dijoa. Idazle auk oindio gazte diran ezkeror, itxaro dugunez, goi-goi jarriko zaizkigu laister euskal Parnasoan.

Beste aldizkari batzuk ere, «Aranzazu», «Pamiela», «Argis» eta abar, aintzat artzen dituzte olerkiak. Baiña aipatu auk dira nik gaur pizkat egurastu, galbaitu ta aztailluan pisutu nai izan ditudanak. Zeiñek daukan balio ta azta geiago ikusiz, bear bada. Epaikari ona da aldia: astekari ta aldizkari, luzez jardunik, uzta ederra eman dute dagoneko; beste batzuk asi-barri dituzu oraindik, geroak du beraz itza. Saia bedi bakoitza bere ekiñean, gure hizkuntza gaixoari arnasa eman gurarik.

*AITA ONAINDIA*

## ALDIAREN NEKEA

Emen egon nintzan urte asko dala,  
biotza gaztea zan  
eta etorkizun zabalak  
negute ta illunaldi estuan be  
argiz ta arnasaz  
barriztatzen nindun.

Orduko zugatzok  
orain be errubakoak zaree,  
baiña ia mutu eta itxaropen bage.  
Orduan oindiño zuen berdeak  
zerbait baiñoan neurriz,  
zuen adarrak, orri barik be,  
aldi alaiak agintzen.

Izen asko falta dira orain,  
eta arpegi asko ezezagun  
dira onezkero  
ezezagun dira biurtu,  
iturri bako errekak lez.  
Biotz ariñegi astundunak, alan be,  
ez dau iturria ukatzen.  
Baiña zuok, falta zareen izenok,  
zuok ez zaree aldatu,  
ni zuok gabe bakarrik nagon arren.

Izen onbera laztanok,  
esker on utsa merezi dozue,  
eta biotz nekatua, zuentzat  
antxiñako gaztetasunez barri,  
zintzo jatzone.

*Luis Arostegi*

## ASKATASUN UNEA

Kanta, euri, leun ganean,  
kanta zuk, aize,  
eta pagoai irribarre eragin,  
ardiak ira artean mantzo  
jan edo begitu dagiela.  
Kanta askatasun une au,  
une bat baiño ez da-eta.  
Kanta ez dan askatasun au,  
ederregia litzake-ta.  
Kanta susmau bakarrik  
egiten dogun askatasuna,  
beti gerorantz itxaron  
eta esan barik billatu  
egiten dogun askatasuna.

Kaltebako lagun onak,  
adiskidetsu zagoze inguruan.  
Ez daustazue berbarik egiten,  
zuzmur ta doiñua bakarrik  
ixiltasun narean.

Zabalik dagoan geroa  
ederra da, ta bera bakarrik ederra,  
orain lagun tolesgabe artean  
susmau bakarrik daikegu baiña.

Gizon atsekabetuarentzat  
une au gozoagoa da,  
begiak ia jaso gabe  
esker onez artzen dan une garbia.

*Luis Arostegi*

## URTARRILLA

Ia atertu dau.  
Illuntze otz onetan  
bakartade bide bustia.

Neguairen poz eskutua!

Azal latz illuna,  
barru neurritsuan baiña  
dana oindiño be zabalik,  
dana aske ta itxaropen.

Une baten, batu dira  
nire leengo neguak,  
eta gure aurrekoenak,  
berba ta irudi barik  
ixil utsean.  
Asikera barria (une baten).

Urteak egingo dau gero  
bere betiko bira,  
eta guk negu biotzean  
barriro asmauko dogu  
urte-birak lortzen ez dauan  
itxaropen izenbakoa.

*Luis Arostegi*

## MIN DUT ERRIA!

*«Erritik errira, Giza-lege garbira...»*

Min dut Erriaren miña,  
mingarri zait aren samiña.  
Min dut aragi bizian,  
min dut biotz-erdian,  
min garratza,  
min zorrotza.  
Erriak damait samin,  
Erriak bera dut min.

Erria...  
Erriak,  
Erriari,  
Erriarentzat...  
Erriaz,  
Erriarekin,  
Errira,  
Erritik...

## ETA ERRIA IXILIK.

Erria aotan,  
paperetan,  
ormetan,  
mitiñetan,  
deadarretan,  
irrintzietan,  
kaleetan...

## ETA ERRIA IXILIK.

«Erria erri delako...  
«Erriak nai dualako...  
«Erriak eskatuta...  
«Errira sartuta...  
«Erriarekin batean...  
«Erriaren izenean...  
«Erritik gatoz...  
«Errira goaz...  
Eta...Erriaz...  
Erriarentzat...»

## ETA ERRIA IXILIK.

Ixilik Erria...  
 Miñez Erria...  
 Nor da Erria?  
 Zein da Erria?  
 Non da Erria?  
 Nolako Erria?

«Gu gera Erria,  
 zu ez zera Erria...  
 «Erria gu gera,  
 zu ta i atzera!!!»

«Erria gurekin dago,  
 gu besterik ez bai-dago.  
 Gurea da Erria, gurea!  
 Ez da zurea,  
 ez duk irea!  
 Gu gaituk Erri,  
 Erria, gu bakarrik !»

## ETA ERRI IXILIK.

Ez, ordea, ez!!!  
 Oiek ez dira, ez! ! !  
 Ez dira aiek,  
 ez zerate zuek,  
 ez zerate Erria, ez!  
 Erria ez da zuena,  
 ez da oiena,  
 ez da aiena,  
 ez da iñorena! ! !  
 Erria bera da Erri,  
 eta ez da besterik!

ERRIA ez da itz utsa,

aoetan,  
 mitiñetan,  
 ormetan,  
 paperetan,  
 kaleetan,  
 baztarretan  
 dabillen otsa!

Aoz-ao erabiltzeko,  
bana-banaka edoskitzeko,  
eskuz-esku estutzeko...  
daraman zumua ateratze...  
ondoraiño zurrupatzeko...  
Ortarako...? Bego ardo-zatoa,  
baiña ez Erria, ehi gajoa! ! !

Eskutik lurrera bota,  
eskuz pareten kontra,  
jolas-tresnaz jota...  
Ortarako...? Or euskal-pelota,  
baiña Erriaz ez orrela joka! ! !

Amaika ta amaikaren buruetan,  
ostikoka beren oiñetan,  
zelaietan,  
jolasetan,  
partiduetan,  
baloia erabiltzen dute biraka,  
goraka ta beeraka,  
ostikoka...

Erria darabilte gaur orrela,  
eta ez bestela:  
Kaleetan laisterka,  
artalde beeka,  
danak ai eneka!  
Erria intziriz,  
Erria irrintziz...  
Batzuek egur eta tiroka,  
agerian, kalean zutik...  
Besteek akuilluz xaxaka,  
gordean eta izkututik...  
Eta erdian, Erria erri,  
ixilik, ikara ta larri!  
Min dut Erria, min...min...  
baiña ezingo dute ezin  
ikusi sekulan zapaldua!  
Jasoko du Erriak burua!  
Burua...  
Burua...

*Gaztañaga tar Jesus*

## LARRARA BIDEAN

Amazazpi bider eldu naiz onera,  
Larrak ohi duen Olerti-jaiera.  
Udazken ostoak orbel bihurtzean  
arima minberak abaro eskean.

Muiñoak inguru, bertakoan zelai,  
ba du bazter onek gozoa den emai;  
ezo antzeko du azaleko giro,  
larrazkenak urrez jantzia leunkiro.

Larrazken arnasaz artisten biltzarrak:  
ogei olerkarik kantika suarrak.  
Zaharren ondoren gazteak ernamin,  
betoz bertso sakon eta kanta arin.

Zeren billa dabiltz, zeren billa datoz,  
ainbat olerkari amets-neurtitz mordoz?  
Zer du zuzpergarri euskaldun bertsuak?  
Agian, Olerti Musaren muxuak.

Egunero dator argisenti berri,  
askok, ohean lo, ez iñoiz igerri;  
ez illunabarrak noiz duen ederrik,  
ez eta zeruan ote den izarrik.

Gizarte errukarri, pozez ain baraurik!  
Asmoak lurrean josita, zerurik  
denik ere askok jakin ez daki ta,  
sor, entzumena ta begiak itxita.

Amazazpi bider eldu naiz onera,  
aldi latzez ere genduen aukera:  
euskaldun billerak, oi, zein diren eder!  
Gizonaren itzen doiñuak alaber.

Poesi-premiñaz ari da mundua,  
oro zuzentzeko ez aski burua.  
Ez du politika soillak osatuko  
gizarte samiña. Gizona lekuko.

Gizarte errukarri, gorrotoak joa,  
deabruak dizu jarririk jokoa.  
Jokoa jarri ta nork irabaziko?  
Arrisku larria, il ala biziko.

Ondasunengana gizonak gaur griña,  
nunai dakus mauka ta arrapakiña.  
Abereak ere doiñuz emarazten;  
gu, irain mintzoka, elkar gerraratzen.

Ainbeste inbentu, ainbeste makiña!  
Gorreriak dakar ulertu-eziña.  
Gizarte errukarri, gorrotoak joa,  
deabruak dizu jarririk jokoa.

Lantua jotze au, zertako, ordea?  
Atera dezagun barne-indar gordea,  
aizatu dezagun giza-maitasuna,  
goi-olerti garra agertzen diguna.

Aizpean bolbolka, orra, iturburua,  
atsarre ur eskas, gero mukurua;  
urian, ormetan, bertsoek oihua:  
bezate poetek erabil, mundua.

1977

*E. Erkiaga*

**BARRU-ERESIA**

Ixillaren barrendik  
 datorkidazan otsak  
 urrun-gardenetarantz naroe  
 pentsamentuen bultzadaz.

Ase eziñezko egarria dabilt,  
 gau ta egun, gogoan;  
 ez daurkit, baiña, asegarririk  
 ez nire itaunen erantzunik.

Itaunka nabil gau zabaleko izarrerri,  
 bide-ertzetako landareri,  
 ezagutzen ez dodan neure buruari,  
 ez dot, baiña, aurkitzen erantzun garbirik.

Ots arrotzeri dautsadela nabil,  
 eta eresi ixil eta beti barria dantzut,  
 ezkutuko indarren eragiñez.

Zer daukat, baiña, neure barruan,  
 eresi gozatsu au nabaitzeko?  
 Goiz ta arrats dabilkit oska,  
 batzuetan ur-ur eta beste batzuetan urrun,  
 baiña beti zoli ta bigun.  
 Eta eresi orren egadaz gorputzaren astuna aldendurik  
 edermenaren zelai urdiñetara yat zentsuna,  
 eta gogoaren nabaipeneri oratu nai ta ezin,  
 olerki apurreri batzukaz geratzen yataz eskuak,  
 neure esku urratuak,  
 bizitzaren euskarri yatazan esku latzak.  
 Baiña ezelan be ezin idatzi,  
 gogoaren zelai amaibageetan nabaitzen dodazanak  
 ezin adierazi.

Aro bakoitzean dantzudazan  
ixillaren didarrak idatzi gura neukez, ba,  
arroeri burua makurtzeko,  
okertuak aldatzeko,  
gogo-motelak bizkortzeko,  
gaiztoak bide oneratzeko  
ta, gizarte lorrin au obaratzeko.

Eresi ezaungeak oska yabiltaz, ba,  
gizonen txatxartasuna azaltzen  
eta, Egillearen aunditasuna adirazten.

*Aurre-Apraiz*

## ABERRI ASKE BATEN

Aberri aske baten seme izan gura neuke  
ta gizaseme askeen artean bizi;  
itxi, betirako, arrisku ta ardurak,  
gizarte baketsuan arnasa artu  
ta bakearen ederraz bularra nasaitu.

Etsaiaren eden baltzaz ez dot nai  
zauririk barriztu.  
Zapartari yabilt gogoa,  
zuzentasunik ezaren aurka,  
eta,  
oztopo ta eragozpen  
aurrera egin bearra daukat  
(naiz-ta azurrak ausi)  
maite ditudan geure  
izkuntza ta yakintza-arloan,  
ez gaitezkan betiko ondatu.

Euskal-izatearen bultzadan  
berein buruauste ta ardura  
ditu gure Erriak...  
Ez naiteke atzeratu, ba,  
egin-bearren zidorretan.

Arnasa barriaren bultzadaz,  
urrats galgarrietan,  
aspertzeke dagiket deadar,  
erritarren lo-zorroaren etsai:  
gizonen barru-indarrak  
biur nai ditut egirantz.

Ez yakin eta ardura bageen  
alperkeria nai dot eten,  
gizarte nekatuari begira jarri daitezen.

Arkaitzaren sendotasunez,  
aurrera dagiket, ba, zurtasunez,  
bearrizanez diran gogoak  
jasoteko esku sendoakaz.

Zertako da, ba, gizonaren  
kemen eta adorea,  
urkoagaz batera, erriaren alde,  
indar ezpadagi?

Bakez eta nasai  
gura neuke bizi,  
Aberri aske baten;  
baiña ez, gero,  
kateak astunegi diralata  
bide-ertzean geratu  
adore barik  
ardura barik, nekatuta alperkeriz:  
Ez olakorik!

*Aurre-Apraĩz*

## PUXANA

Asi nadin diñot eta, eztakit zelan asi  
gogoz emandako itzaren zorra ordaintzeko;  
baiña, asi egingo naiz bai, euskalkide bati,  
neure agurrik beroena biotzez eskaintzeko.

Esakunak diñon lez: «Asiak egiña dirudi»  
baiña, nik, egin nai neuke, egin, edertasunez,  
zuk dagizun lez ain bizi, maixu agurgarri,  
idazkera argikoi baten eredutasunez.

Orretan diardut neure alegiñak egiñik,  
edur zurizko paperean biotza ezarriz  
eta, bertan, izpi argiren bat irarri nairik  
benetako seindurazko oldezgai adigarritz.

Itz bizi, egokiz, alik labur, alik argiren,  
benetako azalpen giartsu eta trinkoenez  
On Pedro Puxana, Oleta'ko seme zintzoaren  
izena nai neuke geratu betikotasunez.

Aren euskal senaren sendotasun giartsu,  
aren etengabeko ekintzaren goitasuna,  
aren abade izatearen errikoitasuna  
nai neuke bai, alik egokiren neurtitzeratu.

Jantzi apaiñez soiñekotu, laztanki goratu  
aren izena, benetako ardurasun zindoz  
nai neuke, egokitasun maitez gizarteratu  
aren izena, benetako aintzamen eta gogoz.

Aren umetako Oleta, aren gaztetako  
Gasteiz ta Apaiztegi alderantza urreratuz;  
aren Eskoriatza, aren Angiezar ta Morga'ko  
arimazain-aldiko igaroa gogoratuz.

Orduko baserri nekazaritza eraturaz,  
orduko laia ta golde, orduko ikuspegiz  
goazen garitza orizkatu, artotza orlegiz  
orduko gau-egunen argi eta illunduraz.

Goazen orduko gaztain-arlo, arte, arizpez  
gaurko piñuetarañeko munduaren aldaketaz,  
ta galdu izandako ameskizun guztiekaz  
txerta aundi bat egiñik lengo gatz ta ozpiñez.

Ta, igarobide ortan daurkigu abade bat  
gogo-biotzez euskereari betikoz emona;  
benetako abade ta benetako gizona  
gure elerti eta gure erri maitearentzat.

Orain Arteaga'n darrai aren abade biotza,  
aren onbidezko artzaintzaren zuzentasuna,  
aren erritartesuneko langintza ta egoitza  
musalditxo batzukaz onduriko gaitasuna.

Arabar jatorrizko gizaseme goralgarri,  
euskel alorreko ikastun ospetsu, langille;  
benetako euskaldun, benetan gomutagarri,  
euskera laztankor ta iraungarriaren lankide.

Gramatikalari degu «Bizkai'ko izkelgiaren  
aztertze sakon, jakituriz oñarritua  
eta daukagun lenengoko Bizkai'ko Foruaren  
itzultzaile bikain, edergarri ongarritua.

Beraz, zure egintz neketsu orren argidura  
dizdikor, laztan ori eda, iturritu bedi  
ta, ur bizi osasungarri orren ikutura  
EUSKEREA burutu bedi bai betiraungarri!

*Muniategi-tar Sabin*

## IRAGARKIAK

Iragarkiak, txartelak, zenbat paskinteri,  
zenbat azpegi ta bular, zenbat lagunabar,  
oiuka euria dalako edo aterri  
margotu ta ber-margotuz ormaetan baldar.

Angoak, emengoak, zein taldekoak  
eguzki erre edota edur otzarenak  
zeiñen buruz edo arauz igitzen direnak  
zein eskolamendu edo ukullutakoak?

Zaratan kokatu dira ta ortik ametsa.  
Azkatasuna billatuz menpekotu dira  
oiupean galdurik euren burujabetza.

Atzipeturiko gizaki sinistedunak  
aldarrika itsu garazkeriaren arira  
kaleak zear oiuka gorroto astunak.

*Muniategi-tar Sabin*

**ERKIAGA-TAR EUSEBI OLERKARI ETA IDAZLE ARGIARI**

Zure sorterrria dan Lekeitio ederraren ikustera  
 nator, Erkiaga-tar Eusebi, euskal arrobiko «Endaitz».  
 Agur lagun! Biotzez noakizu zure erri-bideetara,  
 Lea itxasoratzen dan antzera gogoz, zu agurtzera,  
 Euskerearen langille zintzo zaran zutoin, arkaitz;  
 Zugana noa erri barruz, kai-aldez, itsas ertzera.  
 Zure urrats billa, oraindik an lengorik baldin ba-litz,  
 Idatzietan ain dizdikor dazalzun urre antzera.

Aurkitu, zu zaurkidaz orduko idatz biotz gaztean,  
 Kresalezko gatzitasun osasungarriz lurrindua  
 Zeure olerkitz mintzo pinpiriñaren goidurapean  
 Maitasun-txintada otsez lerdengi, udabarritua.  
 ¡Zenbat itxaropen ta bizi-amets lorara naiean  
 Zure neurtitz ta itz-lauzko soñeko jantzi zoragarritz,  
 Itsas-margodun ats bizi alaikor batez gantzutua,  
 Abertzaletasunaren eraginpe aurreragarritz!

Zure idazle gogai argi gozoaz... ¡Araxe noa!  
 Zuriñe ta, ainbat arrantzu-bizitzaren itzalez...  
 Tala, Enparantza, Eskolapea-ta pozez begipetuz,  
 An noa .... Arranegi'ko irudigai eder, poxpolez,  
 Zure bizi-aldiko ainbat ekandu zar gogoratuz;  
 Araxe noa aberasturik neure euskal gogoa  
 Zure Lekeitio maitearen kale-arte ta kai ganez,  
 Itzetik ortzera zure bizkaiera ezta gozartuz.

Olako ele-melerik ! «Andra aureskua gogoraziz,  
 Euren orduko gona baltzezko jantzi ta gona gorritz,  
 Orduko buruzapi ta Manila'n egiñiko mantoiz;  
 Zenbat Lekeitio maite! Orduko andra-gizon dantzariz;  
 Orduko pipadun arrantzalle zaarkitu agurgarritz,  
 «Aspertzeke, urrunera begira, itsaso ertzean  
 Pipa zarrari teinka ta, kaioak egan goienean,  
 Olatuz gain...«urrunean begiak, soiña legorrean»...

Legatz, atun, bixugu, txardin... itsasoko zenbat arrain!  
 Ta, ortik gorako aitz-ganetako lapa, magurio...  
 Ortzipe oztin-argi edota lañope goibelen azpin  
 Bizi dan zure sorterri maite-kutun zure Lekeitio  
 Kresalak ekarritako umore on ta latzdurapez,  
 Zure arrantzale erri maite orri gatza dario  
 Ta, nik zeure lengoko artan, orduko bizi-ikustez  
 Olerbidez zakustaz lilluratu ta maite-min.

Bizi izate aren arabera egun zarrak birbiziz,  
 Itxasozko gozamenean kenduz begien lausoa;  
 Orduko alkandora urdin, olatuzko ikuspegiz  
 Laztandu daruazu zure gazte-aldi aintziñakoa,  
 Ainbat ekandu ta ainbat biozkada gogoangarriz  
 Zuzpertuz zure orduko erri-bizitza igaroa;  
 Zu izan ziñan orduko gaztetasunaren egarriz  
 Sakonduz itsasoa bezin sakon zan orduko gogo.

Bizi-izate ta olerki alorren mundua, irauli  
 Ta, erabat azpi, baztertua datzan aren lengoa...  
 Eder, argi ta garbi geratu da zure izangoa,  
 Betikozko euskera errotsu ta biziaren iturri  
 Bolboltiaren izladura dizdiratsuz egindakoa;  
 Bizkaieraren zindotasun oñarripe iraungarritz  
 Illundura bako eratze ederrez jasotakoa  
 Unerik unerako ekintzapen baten argiduriz.

Oldozkun giartsuz abestu dautsazu itsasoari  
 Ta, arrantzu erri baten ekandu, bizi-izateari,  
 Ta, baita be, baserrian, aititan bordan, mutikotan  
 Bei zaintzen ta, zortzian beingo labasuzko bizitzan:  
 «Amagaz, anai-arrebak utzirik kaieko errian»...  
 ¡Oi, a zan zure «bizarge aroko bizi atsegiña;  
 Orduan zuk ez zekizun ere «zer leitekean miña»!  
 «Mutikoa izan arren akuluaz gizonen antzean».

Esanak esan, euskerarentzat zure maitetasuna  
 Ezpai-bakoa izan da, gogo aundiz soindutakoa;  
 Atzoko ta gaurko zure biotzaren betiko kutuna,  
 (Guda aurretiko, ixil ondoko ta gaurkorañokoa)  
 Zure olerkia biziko da betikozko betiren,  
 Deseginak, apurtuak, ondatuak ikusi arren  
 Itxaropen asko bide luzeko lar, arantzapean  
 Alan be euskera maitagarriak aurrera darraigu.

*MUNIA TEGI-tar SABIN*

## BELAUNGUNA

ILLUNAREN  
inguru-uztai itxituran,  
barneko utsaren  
zutabe irudipen goingoak,  
ezkotasun izpi baten etekia bailitzan  
ttantto txiker  
nabaria.

Uneoro izpika,  
egitura pizten;  
pizten, da borobiltasuna artzen  
arnas beta bakoitzean.  
Zabaltzen...  
Loditzen...  
Mugira bitxiaz kizi-pikorkien  
aria...

Bai ote dun,  
ez ote dun;  
punpuillu aizez betearen azalean,  
sentiera  
aurpegia.

Loditasun inguruguna parpaillean bizi-ñabar,  
bapaiñu lurriñaz lurreratze kabuz,  
egoera ximplea  
luzabide doa,  
argizari txorten  
azken ttantto ildora.  
Bare ezik motel etenaz,  
jalgi da itokin  
gidaria.

Jalgai...  
 Luondo gordiñaren mantupe beltzera.  
 Ama-lur otzaren  
 errai garden  
 da antsiz  
 ebakira...

# BULARTARTE OPAROAK

lur-etena emariz,  
 arresi otz itxituran  
 argi-ñabar egarriz...

Ur-negar xinglea errotuaz,  
 iturri min-miña  
 zirkil biren  
 biurrena.

Azten-azten,  
 bitxiz jazten;  
 aopeko borborioz,  
 ezti usai gilibera,  
 zoribete egoetan  
 itxas-mami  
 urdiñera.

Onats abian irmo  
 bizi-ari itxasgora,  
 txuri-urdin maindirea  
 koxka-moxkak  
 aparrera.

Luzean larri,  
 lodian sakon,  
 zearrean baikor;  
 begipeko.  
 zabalera.

Ba'du eztirik,  
 ba'du gazirik;  
 bai-eta, zurrunbillo naastuek  
 indarrik.  
 Asarrez lur-magalak  
 zirdinduko ditu,  
 arri-mokorrak urratuko,  
 ta orroe txistuaz  
 zinzurra gordinduko duen arren,  
 beti ere begi-bete,  
 beti ere;  
 gilibera... !

ZAPELAITZAREN

ega-zapla zaratatsu ondorio,  
Lamia'ren soiñeko mendel luzea  
begipetik sartalderantza,  
lin-oial txuria  
erdoi-moltso arre-illun naastuan.  
Onen dilindura orraziak,  
argi-bete zabaldua  
lauso-lausotzen daramala,  
ta oskarbi urre-markatsa  
arrats-gunak gain-azpi  
itzuliaz.

Lausotzen;  
zillar-bizi aparretan  
itxas-magal txuri-urdin txaltaria,  
argi-begi zearrean  
ganduaren zapiak  
estaliaz.

Zeru-lur nasaien  
ezpain-tarte irikia ere,  
uin-landar itxuraz,  
baikor elkargana bilduaz.  
Eta mintz biren ezkoa  
gorri-more beltz,  
apur-apurka marrazten daramaio  
argiguna tarte medarra  
itxiaz.

Zillar-parpaildura dirdaitsua,  
bare-bare illari otzean  
arras  
itzaliaz...

...Belaunguna neurtua,  
jakiñeko jo-muga itxuan;  
geroaren egarazka ariñari  
leiatilla  
irikiaz... !

*Martin Ugarte*

## NEGU OTZA

Agor itxaro-sorgia,  
arratsaldeak arretzen  
asten diren bakoitzean  
eta ain urri ikustean  
neure soloko garitzen  
biar-etziko ogia.

Eki erreak daroa  
kixkalduz nire alorra,  
nire biarko ogiak  
samin-erroten arriak  
urunduko parra-parra.  
Uts edo dot azaroa.

Nire mandioen utsa!  
Arrak janda frutu oro.  
Egun barrien zuzirik,  
ez itxaro zuri barik  
zelan daiket ba igaro  
jarrai dodan negu otza?

*A. Bidaguren*

## NEKAZARI

..... gizandi ta iduri ..... LIZARDI

NEKAZARI, Soloan zut,  
eguzki golpez landua;  
izotz zurien musturrak  
goldatu deutsu narrua.  
Tantai bat dirudizu,  
sospalik sospal sortua.

NEKAZARI, soloan zut,  
izerdiz narotzen lurra.  
Zure odolak daroa  
ernemin danen agurra.  
Zure eskuen miraria  
ogi bigunen edurra.

NEKAZARI: soloan zut,  
zu itzal aundi bat zara,  
ume goseen estalpe,  
erro tinkoz, arte zarra,  
bekokitik darzula  
bizi zurien aparra.

NEKAZARI, soloan zut,  
bi besoez zabal zabal,  
itxaropenen gurutze,  
ametsi opari apal  
baita zure agoliña,  
lurperantz atalik-atal.

NEKAZARI, soloan zut,  
taupaka zu eta ama lur  
—aragi bi alhuka—  
biok bat mamin eta azur.  
NEKAZARI, soloan zut.  
Agurterdi. AGUR. AGUR.

*A. Bidaguren*

**ILLEK**

Gaur eriotza bai  
 badala ixilla.  
 Ez negar, ez kanpai  
 badakarre illa.  
 Iñork ezin jarrai,  
 arin berebilla.  
 Eliz atean zai,  
 marmar, jende pillla.  
 Elizak ez dau nai  
 lengo iskanbilla,  
 ainbeste kapusai,  
 paternoster milla.  
 Miserereak jai,  
 otoitza umilla,  
 ez itun, ez alai,  
 Goikoaren billa.

Illa ba daroe  
 orain ariñago,  
 iru-lau koroe  
 ezin politago,  
 albo eta goe,  
 daiten bigunago  
 illobiko oe.  
 Alperrik egingo  
 aizeak orroe,  
 an ezta izango  
 ipar, ez egoe.  
 Dana ixil dago  
 —kurutz— bi zutoe.  
 Lurra astinago,  
 aidean trumoe  
 gero ta illago.

*A. Bidaguren*

## KOPIN AUSIA

Aserre ugelen zapladakin  
zibilkidaz astindu gurarik.  
Zergatik, Jauna, dozu aldegin  
gure bion maite-egonetik?

Beti izan dot zure alboan  
amodio lurrunen gozoa.  
Zergatik, ba gaur, nire lepoan  
ain gogorra zigor-erasoa?

Atzo, bai Jauna, Zuk baninduzun  
Zeure begien kilikilia.  
Zergatik, baña, zergatik, egun  
dizdira guztien itzalia?

Len, egunek luzea altzoka;  
gaur, zer Jauna? sastada lakarrak,  
aize latzak ditut azur-joka.  
Gauak dakardaz izu-aztarrak.

Il bion arteko maitemiña?  
Sakonetik darizu aserre.  
Ba dakit zer dan bizien miña,  
amets larrosak dituna erre.

Orain dakit zer dan poza.  
Zu galtzea dakarren itunak  
darakust nire sentsunik eza.  
Aro galduek maixu onenak.

Gogorregi ez Zure zigorrak?  
Erdibi deustazu bekokia.  
Iñoiz maiteko ez nauzun bildurrak  
erdibiago naizen guztia.

Betiko urte betedun Ori,  
ume biurri bat ete zara  
nire azur lokakin jostari?  
Orrela bada, jarrai algara.

Baña, Jauna, kopin apurtu au  
ez, arren, ezerezera baster.  
Zugaz ezkerro, jolas gura dau,  
naiz zilborretik serrauntsak ager.

*A. Bidaguren*

---

OARRA. Olerkitxo au ZER'era bialdu neban, baña, ez dakit zer dala ta, iru azkeneko estrofak  
baño etziren agertu.

**ONAINDIA'tar ALBERTO**

Argia gura neuke,  
gizona ikusteko,  
zu zaran bezela;  
ez dot nai bardintzerik  
iñungo gizonekin  
zarana zarela.

Argietarantz adi,  
lurrean sustraiturik  
zugatz ederrena;  
euskal aritz zara, zu,  
giartsu eta lerden,  
tantai oberena.

Euskaldun baratzean  
millaka lili dagoz  
arrosari adi;  
Markiñako zelaian  
lorerik bikaiñenak  
gizona dirudi.

Malaxko arkaitzpean  
arria eta ura  
dizdizetan dagoz;  
gizonen egarria  
egiaren uragaz  
ase nairik zagoz.

Egille Almentsua  
errukitsua izan zan  
beren itz argiagaz;  
miñean jarri eutsun  
zurtasunaren doia  
erreztasunagaz.

Zenbat biotz negarti  
ainbeste gizonetan  
zendukezan adi;  
zuk izan bear zendun  
zuzentasun abotsa,  
euskaldun leiñargi.

Kristo ikusi nai dot  
zukan ta pobrietan  
negarrak txukatzen;  
esker-miñetan dozuz  
zure itz entzuleak  
Olaso goratzen.

Paris'ko urretzindor...  
Milloi gizonen izar...  
Zapalduen poza...  
Egin zendun on dana  
koroï bat bezela da...  
egiaren otsa.

Ona eta egia  
gizonaren itzetan  
bat biurtzen dira;  
au da pozaren garra...  
bizia urraturik,  
gizonei begira.

*Faulin*

## MUNGIA (1)

Maitasunezko kateia daukat  
nire gorputz ta gogoan.  
Mungia, zurekin bat egin naz  
nire izate osoan.

Eguzki printzetan etorri nintzan.  
Lurra ta zelaiak eder.  
Udaren erdian biotza urre,  
Mungiak ba eukan esker.

Mendien ala zelaien mamiña  
zein ete zan ederrago,  
galdezka neukan jakin-min dana  
txoriak baiño zurrago.

Baratz eta soloak aberats.  
Zer euken lurraren mamiñak...!  
Gurdika arto...metaka gari.  
Aztu dira laneen miñak.

Gure azoka aitatu nai dot,  
astoz eta oiñez datoz,  
lur maitasun igaliak dira  
gosea ilteko ados.

Baratza osasuntsua eder  
giza begiak ostuten,  
sagar gorriak odoldu dira  
bizi barria sortuten.

Lurra, tresnak, azia, giroa,  
negu ta udabarrian,  
erne-miñetan orbiztu ziran  
garitz, artoak, sasoian.

Gari soloak urrez egozan  
aize bigunez zibuka,  
itari eskuak, gogoz, dabiltz  
ta pospoliña kantuka.

Udea gorantz, aleak gozo,  
ortu-lana dabil zorrotz,  
piper gorriak orri artean  
maitasunetan dau biotz.

Nekazarien solo zabalak  
amaren sabela legez,  
frutua emonda poztu dira  
lan aundien atsedenez.

Lurraren lana egin gabe zer...!  
Lurra askoz ederrago,  
golda, atxurrez, gogoz, urratuta  
Mungi zoragarriago.

Lur-langintzaren edertasuna  
atxur ta frutuan dago,  
zelai orlei ta solo garbiak  
ta arnasa gardenago.

Mungia, zure zabaltasuna,  
maite dot lur barruraiño,  
Mungiaren neke, izerdiak  
eldu dira loraraiño.

*Faulin*

## MUNGIA (2)

Kanta mendi ederrak goietan  
zuen bikaintasun bidez,  
zolitu mendian eztarriak  
ortzetik datorren aidez.

Zugatzen edertasunak kanta  
orrietako arimaz,  
lurrari emon zuen agurra  
min luze orreen dardaraz.

Mungi maiteko mendi gazteak  
udabarrian loretan,  
lur barrutik zugatzera doa  
erne-miña lerrenetan.

Kanta enborra, kanta bizia,  
txoria dago aidean,  
bizia ta abestia datoz  
enbor sendoen artean.

Judegu eta Gondramendia,  
bizkar garai aberatsak,  
antzina aritz ta gastañadi  
euzko lurraren emoitzak.

Gaur, lertzundi illunez beterik,  
non ete da euzko lurra...  
gure mendirik maitegarrienok  
tristuraz dauke gaillurra.

Mendi goiko iturri gardenak  
eguzki gabe itunik,  
oreina galdu da lertzundian  
otso baltzaz izuturik.

Ollagorrak, neguan, estaltzen  
zentzun bako piñadian,  
eiztariak dabiltzaz ondoren,  
eriotza da mendian.

Lengo bide alaiak il dira,  
larra ta sasia nausi,  
sasi arteko pizti borroka  
mendi malkarraren gaindi.

Piztitzarrak eguzkia maite  
lurraren usain artean,  
zomorro gaisoak il-zorian,  
negar, etsai erpapean.

Gaztañadiak... bizi emuilleak...  
zer dala-ta iges egin...  
mendi mamiñak ez al ziran on  
zuen sustrai barriekin...?

Gaztain ta ariztiak maite ditut -  
mendien edertasunak -,  
zuen bizi ta babesa nai dau  
euzkotarren osasunak.

*Faulin*

## **EUSKERA AMARI, BIOTZ-BIOTZEZ**

Ezagutu zintudan txikitatik  
ia, ia, ama-izun bezela...  
Tamalez, erago nintzan orrela  
xotildua izan arte, gazterik.

Kausitu zindudan une artatik,  
zure ondoan poz-pozik naizela  
ondo dakizu; jarrai gaitezela  
olan, il arte, gartsuki nai dut nik.

Ezti baitzera, ama, arrigarri,  
zarra ta gazte, xamur ta garratza,  
makal da sendo, iaio, zoragarri,  
gogorra ta bigun, legun da latza,  
alai, ugari, pitxi, agurgarri,  
eder ta txukun, apain, aberatsa!

*J.E.*

## GAURKOA BAI JAI AUNDIA

Gaurkoa bai jai aundia!  
Jainkoaren izenean.  
onesten du Aita Ixidrok  
au gure etxe berria.

Estibaliz-ko Andra Mari,  
Gure Mikel Goiaingeru,  
baita Anton Deuna ere,  
bakoitza zaigu Zaindari.

Estibaliz-ko Birgiña  
(bi arabarrak izanda,  
danok iya gazteiztarak)  
nai-dugu gure Erregiña.

Mikel Deuna Euskalerrian,  
maite ta premiñazkoa;  
orixe gertatzen da be  
Angiozar-tarren artian.

Gure enparantz-tokia  
beti, Anton Deunarena;  
urtero zozkatuzan zan  
ilbeltzaren txerri aundia.

Gaiñera Jainkoak daki  
zenbat maite ditugula  
Xabier, Prudentzi, Balendin,  
Garikoitz eta Iñaki.

Zenbat asaba zerutik  
ona begira bai daude!  
Alako laguntzapean  
egon geinke bildur barik.

Nik eztakit zergaitikan,  
baiña toki ederrenak  
bereganatzen dituzte  
zerutarrak ludi ontan.

Euren zerua lurbiran  
Goiko Jauna goresteko,  
baita geure onerako,  
tinkotzen dute sarritan.

Aien aztarnak jarraitzen,  
(bear ditugula diote),  
asi gaitezen lenengo  
leku politak biztanten.

Emengo toki bikaiñak  
zeru-zatitxuak dira;  
ondo ustiatsu ezkerro,  
guztiok zeru-zaleak.

Ikus dezagun ederra  
ludi igarokor ontan  
Jainko-osotasunaren  
argazki motel bezela.

«Eder osoaren billa  
jun gaitezen gaur da beti»  
bizirik gauden artean  
GURE xede izan dadilla.

Pakea ta batasuna  
gorde ditzagun sendian  
egipenetan agertzen  
elkarrezko maitasuna.

Lau-orrietatik gera  
danok euskaldun jatorrak;  
ez eze bakarrik gorde,  
zabal daigun be euskera,  
geure altxorrik onena

kristautasunez batera:  
arbasoen ondorentza  
ta, berez, Jainkoarena.

Olan bizi-ezkerio  
asten gara dastatuten  
zeru-bizitza lurrean,  
betikoaren abio. (1)

Badute orlan jokutzen  
etze ontako lagunak;  
oingo ta ondorengoak,  
BETIKO ONESKUN DEZATEN!!!

*J. E. (15-1-72)*

### **NERE GOGO-AITA**

Jaun aundia da benetan,  
Onak diran gauz danetan:  
Argi, zindo, sotil, gartsu,  
Kementsu, apal, txeratsu,  
Ikastun, jator, onbera,  
Nunai maitasun berbera.

Gasteiz'en doguz apaizak  
On-onak, erri-zaleak,  
Itzaltsuak, ta orobat  
Kalonje bikaiñ-bikaiñ bat:  
Onen ikaskaien bidez,  
Eliztar esandako lez,  
Txintxo-txintxoki jokutzen  
Egunero dot saiatzen;  
Artzai onaren EGIA,  
Unoro, goiko bizia;  
Nekean, indar, argia;  
Danentzat, zuzpergarria...  
Iger nor dodan gogo-aita,  
Alboan jarrita baita!

*J. E.*

**MATEO B. MORAZA'RI**

Aintza zuri, gizon jator, aundia,  
langitean zuzen, trebe, gartsua,  
arabar aldun bikaiñ, jakintsua,  
zaintzeko Madrid'en Euskalerrria!

Zeure «ITZALDI» betiraungarria  
ain zeatz, egiti ta argitsua,  
izango da unoro ospetsua,  
euskotarren edestiko pitxia...

Mintzatu al zenduan alperrikan?  
Ez eiki! Eguzkiak ortzonduan  
illuna txautzen dun era berean,  
EGIAK ERE, moren buruan,  
gutxien itxadoten dugunean,  
dirdir egiten du bere orduan!

*J. E.*

## ABADE JATORRA

ABADE JATORRA...zein miragarri!  
Bera baita Jainkoaren gizona,  
Kristo bezela geure Artzaiñ Ona,  
ta gogoendako ziur euskarri.

Aren eredia jaku pozkarri  
adorez bizitzeko Berri-Ona,  
ta aren siñismen sakon-sakona  
kristotar danondako, indargarri.

Olakoxe da egizko apaiza:  
Jainko ta bere Amaz griñatua;  
txiro bizitzen, emoten dau aisa;  
garbi, adeitsu, ernai, jakintsua,  
oiñ-arazo dau artaldeko zaitza,  
jagotzen berariz ardi galdua.

Jator izatea ez da erreza;  
baiña beti izan da alako apezta.  
Zoriontsu dira kristauak, ziñez,  
onako bat badauke Gidari lez...

*Jose Exea*

## **BILBOTAR LAGUN JATOR BATEN OPAZ**

On Benito Ramos Abarrategi  
Yoseba Deunaren egun aundian  
il yakun meza entzuten zanian...  
Zeiñen goibel, izugarrizko egi!

Sendi ta lagunentzat gogorregi...  
Zein ederto genbiltzan udaldian  
oporrak-pasa mamitsu erausian!  
Urtean bein..., ori bait zillegi...

Jaunaren altzuan egiz zarela  
siñismen-begiz dakusku argiro.

Sendi ta lagunok beyan bezela  
maite ginduzuzan bizi-biziro,  
maitatu gaizuz be goyan orrela,  
an gertatu arte zugaz betiro.

1984'go Epaillaren 21'gn.

*Yosu Exea.* GASTEIZ

## ASTIROA

astiroa izan naiz beti.  
besteak baino atzerago ni beti  
gauza guztietan.

atzerago  
eta  
atzean  
beti. beti azkenengo.

horrek erakutsi dit  
nere buruz pentsatu  
eta  
gogoratzen  
nere buruz iritziak hartzen  
eta  
bide hori erabakitzea  
ez da beti barkatzen.

diru bideetara  
lagunik gehienak. beste bide batera ni.  
beste bide batetarik  
nere pauso  
astiroak.

askatasunez jokatu dut  
iñoren iritziei larregi begiratu gabe.

eta hor dago bizitza. bizitza eskekoa. bizitza biluzia.  
helburu apal baterako bizitza pobre eta luzea. gaur gutxik  
aukeratzen duen bizitza bidea. Diruak baino gehiago  
bete nauen bizitza. Askatasun handi bat eman  
didan kate barruko bizitza.

*Markue*

1981

## OROI ETA OMENALDI

*AGOTE 'TAR EMILIO* zanari, maitasun-oroiz  
*aren lenengo eriotz-urteurrenean*

Iraillak emeretzi.  
Eguzki eder ori, dana txinpart, dana argi,  
igandez ipain-apain zaigu jantzi.  
Egunaren sorreratik,  
mendirara noa ego-aizez,  
gaillurrez-gaillur, gora ta bera,  
lagunarekin alkartu-irritsez.  
— Adiskide, nun zera?  
Agurka ari zaizkit garoak  
ta garo-biltzailleak.  
Txilin-txilinka kanpai-loretxoak  
ta irri-keiñuka  
txaraka tarteko ur-xirripa marmarati  
ta goroldio ezeak.  
Ixil-mixilka danak zera diote:  
— Zer gerta, zer ote?  
— Galdu zaigula,  
begiz aienatu, Emilio Agote!  
Ikusi ez degula, urte-kurpilla gaur da bete.  
Aberria, biotzean gaiñezka, ekiñez ta kantuz,  
ain barrendik bizi ziguna,  
espetxeak ezagutuz,  
ain gizon oso ta jeltzale kutuna,  
gure arteko danok  
ain begiko genduna,  
ai Jainko maite, Emilio nun ote?

Eguerdian Gaztelu'ra. Menditxo auxe ere,  
biotzez maite bait-zuan gajoak.

Matxo'tik deika, garraxika  
ari natzaio kresal arro-zabalari:

— Itxasooooooooo! ! !

Ango zarata, oiartzun eta orro.

— Olatuok, ixooooooooo!!!

Itxas-aparrak:

— Emilio emen ere ez dago!

Aren batela, «Urgull» liraiña  
kaian ikusi degu, ur baretan lo.

Arratsalde Txoko Zarrera.

Ez dauka onek, tamalez,  
garai bateko tajuera!

An-emen nabil, galdezka, urduri ta bipil,  
tabernaz-taberna, kaletan barrena:

— Nun da gure Emilio?

— Aren lengo lan-toki, edaska,  
kai-kalean zeuk ikusi.

Ua kanta-kabi ta lagunarte goxo!

Ainbeste ixil-asmo aberkoiren lekua,  
gaur, Alde Zarreko

lengo giro goxoarekin batera

zearo aldatua, narraxtua, ortxe da.

Emilio'ren aztarnarik ere, ez ordea.

Gaua. Laiño tarteko izarrez

zaigu zipriztindu zerua.

Danak irripartsu, keiñulari, gozatsu.

— Ta oiek, zerbait ba'lekite?

Aizueeeeeeeee?! ! !

Emilio zuekin al dezueeeeeeeee! ! !

Odeitxo bat urra zaigu

ta orra leio-gisa, argitsu zabaldu.

Ta bertan, zenbat aurpegi ezagun,  
poz-jario azaldu:

Beltza, Xabier Tolare, Andonegi,  
Abando'ko Sabin, Agirre lendakari,  
izen-abizenak ematen segi...

Ona galdera berriturik:

— Agian, Emilio tarteko al dezute?

— Bai! Guk deiturik etorri zala  
ba'da urtebete.

Ta bai azkar iritxi lurretik  
zuetako iñori agur egiteko  
izan gabe astirik.

Jai-eratzaille bat bear gendun,  
ta Amara'ko Batxoki'tik, berbera etorririk  
zintzo erantzun zigun.  
Euskal jai ta erromerik  
zeru bikain ontan ditu eratzen.  
Orain or barruan ari zaigu  
mai-inguru bat gertatzen.  
Gai bakarra: «Euzkadi nola indartu»  
ta Emilio degu mai-buru.

Zeru urdiñean, pakez kantuan, poz ta atsegiña!  
Euskal Aberrian, bat gutxiagoz, utsune samiña.  
Txuka ditzagun begi malkoztuak  
Goruntz jasoaz biotz fedeztuak.

*Egaña'tar Gotzon*

## KILKER-KANTA

*Mendi-lore, Andre Mariari*

Kilker soinu motela,  
ama, eder zaizu?  
Alabada Kilker au  
kantuz datorkizu.

Eguzkia goi dago  
ta landa loretsu.  
Ama, nola isildu  
ez bait dago itsu?

Zure lore zelaian  
egin dut zuloa.  
Estua bada ere  
niretzat naikoa.  
Euki beza karnabak  
kaiol urrezkoa.  
Nitzat askatasuna  
da maiteagoa.

Nire zulo aurrean  
loretxo bat daukat.  
Menditarra da baina  
ederrena nitzat.

Eguzkiak mendia  
dauka seaskatzat,  
eta zoragarri da  
begi-ninientzat.

Zozoak kanta beza  
Eguzki Altsua,  
lorearentzat nire  
danbolin soinua.

Zozoak bai ederki  
jotzen du txistua,  
baina ulert-ezina  
zait aren kantua.

«Aspergarri aiz, Kilker,  
beti bat kantari»  
esan zidan bein zozo  
arroputzak niri,  
«ikas ezak nigandik,  
ni bai txistulari:  
Nik jo ta lore denak  
ezpata-dantzari».

Iturritxo, elorri,  
landetako erle,  
ta zu etxe aurreko  
kamamila lore,  
gogaikarri ote naiz  
zuentzako ere?

Buruei eraginez  
ezetz diozue.

Ene, kamamil lore,  
eder ta txikina,  
erleak zure eztitan  
a! zer atsegina.  
Aizez zabaltzen duzu  
zure usain fina.  
Zuri nire ego-kantak  
loretxo liraina.

Sugeak ikusi du  
zozo arroputza,  
ta bertan josi dio  
pozoidun orratza.

Zozoak begietan  
orain sorgin-dantza.  
Sugearen eztenaz  
laster eriotza.

Ni ere Eguzki jaunak  
txoratu nau dena,  
ta abesten ematen dut  
aspertzeke eguna.  
Jaun Eguzkiak dauka  
errurik geiena,  
baita zuk be, Kamamil:  
loretxo maitena.

Nire Kilker-kantua  
Ama, atsegin zaizu?  
Zeru irriparrean  
baietz diostazu.

Egia aitortzen badut  
parka egidazu:  
zuk be nire antzera  
mendi-usain duzu.

*Goikoetxea'tar Iñaki*

## NERE BERBO CONFORMATUA

Nere bizitzako berbo fardelenak  
egizkoenak, santuenak,  
«parkatu esana»  
bota nahi nituzke  
paper zuri hontan.  
Mindu egin al zera  
papel humildea...  
nere hikubil andia  
ez da pisti gogorra  
mailua bai okerra  
ta higeaia zorrotza.

Errustik nator  
odol gorritan  
bost milloi gizon hil da.  
Lapurak gizonak  
andikiak,  
amorrua  
emateitenak.

Nere mailuak ausiko ditu  
formal ez direnak.  
Otoika dabiltzan  
ur epelak...  
Higetaiakin  
serratuko diet kopetan.  
Ez dut egingo  
negarrik,  
ez naizelako ibili  
paltsorik.  
Eleizetan erreguka  
lantegietan lapurketaka,  
putekerietan aurrarakada,  
katarrak arrantzaka,  
hau duk munduaren gatza.

Hona  
nere mailu  
ta  
higeaia  
jarriko ditut  
herri gainian  
histerrak ebagiteko  
behar danean.

Geiago ez dira joanen  
erastunean mun egitera  
pontifikalen ondora  
gezurrez  
lotsagabez  
jendea engañatzera.  
Mailu berria  
sutei gorrian  
gorituren dut  
tripeak  
herretzeko  
suzko  
prasa gorrian.

Su andia izanen da  
Babiloniako herrian  
hinoiz,  
ezagutu ez dan bezala  
burdin arte gori bizian.  
Akerrak  
batuko ditut lehenen  
huri andi  
mendi gain  
itxas ertz  
palazio zakar  
sala beltz

zine hilun  
batzar gezur toki  
puterio etxe  
lapur zulo  
lantei ustel  
halper zahar  
zapaltze leku  
zorgin leza  
guztietatik.

Asanbladea  
eginen dut  
munduaren aurrean  
herri orotatik  
burdin ezkilak  
hastinduta  
txispa gorri artean.

Hona,  
justizia eskaturen dut  
herriaren alde  
kateiz lotu  
sokaz hertsitu  
ta munak luzatu  
egia erran dezaten  
Babilonia nausian.

Hurreak  
zidarrak  
ondasunak  
nauskeriak  
txarkeriak  
asanbladarik famatuenak  
juzgatuko ditu  
chanzasko karkajadetan.

Burgesen mandua  
milaak urteren buruan  
herri larria zapaltzen  
hibili zena  
salaturen du  
makila bigurriz  
burdina goriz  
gomazko pelotaz  
eden hautsez,  
munduak jakinen dezan  
horainarteko  
burgeskeria.

Arrenka hasiren dira...  
Justizia erranen diet  
Negarra eginen dute halarauz  
justizia ohiukaturen dio  
herriak,  
parkatu hots eginen dute...  
justizia erantzunen dio  
jendeak,  
estutu eginen dira  
hor, aguanta, zakarrak...  
jaurtiren die ahora  
lehengo gizon zapalduak.

Errukia nahi dute  
hiltzaile lotsagabeak,  
la odola agertu da  
lur erraieratik  
hilaren ohiuz,  
garrazika, hesaka,  
mailua ta igetaia  
zorroztuak dire  
diktatore zakarren  
aurka.

Hastarrak inor ez du hil,  
hastemea, bakarrik, zapaldu,  
hori egin du pekatu  
ta jaubea hasto berriz  
burgestu.

Gizon zapaltzaileak  
gizonak hil ditu,  
ondasunak hostu,  
aberria lapurtu,  
ama garbiak bortxatu,  
argiari peloa tomatu...  
zuzentasunari hirri...  
egia zapaldu pezuñakin,  
maitasuna zapuztu,  
anaitasuna ronpihotu,  
euskara desegin,  
euskal bizia zuzitu.

Pekatu egin du,  
herriak erre,  
gizonak hilez,  
hemakumeak bortxatuz,

ta zatarkeri horrek  
eginez geroz,  
errukia nahi du  
hiltzailleak,  
parkazioa nahi du  
zapaltzaille krudelak.

Errukirik ez dago, ez dago parkaziorik.

Mailua ta igetaia  
sokea ta katea  
diktatore berriak,  
hortxe, jarri ditu  
munduko ankerrei  
ta  
gizon zapaltzailleei  
agertzeko  
zuzentasun bidea.

Asanbladea  
hasi zen  
zuzentasuna eskatzen  
egia nahi zuten  
gizon guztien legia,  
hau ez da parregarria.

Andikeria  
beren arrokerietan dabil  
dindilizka  
hillunean  
burua sartuta  
masmearen antzeran  
soka puntan  
bizia aidean duelarik.

Sokea egiten diardu  
luze ta luze  
noraiño ezean,  
diru hugerren katea;  
sama estutu,  
ta burua hito  
eginen dion  
adinakoa.

Nauskeria,  
arrokeriaren poza,  
ate bixegrak  
hugerrez gogortu dizkio  
beren ondamendian  
zarratuta geratu da.  
Bera bakarrik  
bizi nahi du  
herdoizko etxean,  
gizadiari arrapatutako  
hondasunetan.

Jesus Nazaretarrak  
gogor hots egin zun  
mundua dardaratu nahirik,  
«Ez pilatu hugerrak  
janen dun dirurik».

Nekea izanen duzu beti,  
dirukeriaren ondoren.  
Negurtu bizia,  
negurtu janaria,  
baña alperrik,  
gizonen itsukeria  
burgeskeriz jantzirik.

Herriko  
zatirik nagusiena  
jaiki zaio  
gaiztakeri horren aurka,  
dehadarrez.  
Baina,  
ez Kristori,  
ta ez gizoneri  
ez diete  
jaramonik egiten.

Hasarrea biztuten,  
odola hirakitan  
gizadia  
apurtu beharrean  
pisti artea dirudi  
gorrotozko gizadiak.

Otsoak eta artzak,  
sugeak eta ziraunak,  
leoiak eta untxiak,  
akerrak eta bildotsak,  
txintxillak eta muskerrak,  
trumoi eta oñeztarrien  
bitartean  
helkarren artean  
hilten hasi dira  
burdina dardara  
azpian.

Nausikeriaren hitsukeria  
akerraren adarra iduri  
gogorra  
eta  
okerra.

Ta norberekeria  
haurra dijoa,  
anaiak ondatzen,  
Etxeko hondasunak  
anaieri dizkien zorrak  
lapurretan atzerrira  
daramazkitela.

Halaxen «Señor» handia  
arrapatu zuten  
muga ertzean,  
gero,

hurrengoan,  
«kaballero» Dn, nausia,  
milloiak hartuta  
Suizara nahi zuan  
eramatia.

Gosez anaiak  
ta hau duk  
kontrastea,  
Suizako bankupean  
sorturen dan sumendiak  
ez al dute  
botako  
honuntz  
lapurkeriz  
eramanda dauden  
hurre, zidar,  
hondasunak... !

Herrian ez da izanen  
ez bizirik  
ez bakerik  
otsoak eta leoiak  
akerrak eta artzak  
herbi ta untxiek  
janariak hostuten dituen  
bitartean.

*Jose M.<sup>a</sup> Zelaia*

## GIZAKIA, ETORKIZUNERAKO LORE IREKIA

### UDABERRIA

Itsasoko orruak baretzen doaz  
argi berriak, besarkada epelez,  
Izadi goibeldua muxukatzen duen neurrian.  
Otzaren luzeak ikaraz dardaraka zekarzkian  
adar soilduak  
ale berrien jabe izango zireneko itxaropena  
ebatsi zienez gero.

Eguzki nagusiaren ahalmen gartsuak  
zarpildu ditu, ordea, behin berriro,  
elurte bildurgarriak erne zituen zalantzak.

Mendi-egaleko babes goxoan itsatsirik  
begixuri jeiki zen baserri urtetsuak,  
alaitasun-algaraz  
ireki dizkio, zirrizkun aberats daramazkian  
leho artesituak,  
argi-printzetan albixtari datorkion  
eguzki osoari.  
Urteen luzeaz zaharturik zetzan seaska laburra  
loredun esnatu da, gaur goizean,  
itxaropen elbarrituak naigabeturik zeraman  
andre harek  
haur erne berria biziaren jabe biurtu duen orduan.  
Etxeko txoko bakoitza  
pesta-oihuz lehertu zaigu  
jostailu bizidunak etxeko erregetza  
eskura duenaren pozetan.  
Ongietorrizko txaloz ezin asperturik dabil,  
bere burua «AMA» biurtu duen emakume zorionekoa.

Ixiltasunaren egopean gorde ezin zituen  
 dardara geldigaitzak  
 pozaren ume biurtu zaizkio, ama berriari,  
 begi oparoetako malko ugarietan.  
 Poza eta zalantza  
 alkarri korapillatúrik dagoz  
 amaren amets-kabi sakonean.

Arrigarria da, amak,  
 ixil otoitzezko marmarretan  
 etorkizunari dagion orrua;  
 Izpiz izpi,  
 gerta aiñean jakin beharko direnak  
 ezkutuki zaizkio gizaki presatiari;  
 hala ere, guztia jakin nahiak  
 eragin zorrotza du gure buruetako ari ezkutuentzat.

Seaskak baleki amaren berri! ! !  
 Haurrari itsatsi ahal balitzaizkioke  
 amaren amets mugagabe hoiek! ! !

Aingeruaren beraren zelaia ere estuegiak dira  
 jaio berriarentzat «sari» daitezen  
 ama asekaitzaren iritzietan.  
 Goi-gallurretako errege izatea dagokio  
 ama guztien ume bakoitzari.....  
 Urrutiak ez du esirik....  
 Amaren begietarako haurrak dakarren  
 edertasunak  
 eguzki beraren edertasuna  
 illunpearen senide biurtzen du!  
 Zer ote dauka gorderik etorkizunaren giltzak,  
 gaur goizean aize guztiak pozetara dardaratu dituen  
 gizaki erneberri honentzat?!

## UDA

Ama aundiak eskeñi zion itzaletik  
 lur azpiko zaiñ eskutuetaraño xurgatu zuen  
 azkurri osasungarria  
 landare errotuaren aho irekiak.  
 Eguzkiaren beroaz nagusitu da  
 udaren esku trebea.  
 Landaretxo makalen bildurrak  
 lore ugariz aberastu dira  
 beroaren aginte goxoaren eragiñez.

Erauntsi zakarrak zarpil dezake, bai, oraindik,  
begiratu biguñez argia besarkatzen ikasten ari den  
landare goiztarra.

Sukaldeak ba du naikoa kezka

haur bixiak

behar ainbateko sendotasunez

oiñak lurrari

itsatsiko ez ote dizkion zalantzatan.

Xamurragoa zen seaskaren besarkada,  
guztia besterenetik oparotasun neurrigabea  
landare berri harek guztia ahora zuenean...

Nor bere buruaren jabe izateaz

nor berak erabakiak artzera arrixkatu beharra  
ez da nolanahiko auzia.

Amaren ametsak «egia» biurtu behar badute,  
adar kimatuaren samiñez,

lur berriari itsasten eta han bertan errotzen

joan beharko dute

jaioberri izatea atzean utzi zuen

gizaki haren ahalmen ernalkorak.

Poz eta itxaropen berri baten albixtea

eskeintzen dio

egunak egunari.

Bere izan soillean gelditzen den landarea

eriotzaren maiztar daiteke;

Lurraren ezeak eta eguzkiaren epelak

babes bizigarri dariote, ordea,

bakoitzak bere egitekoa beteaz

guztien arteko edertasunez gaiñezka dedin Izadi ongillea.

Egun batez,

amets minberatuen albotik,

gerriondo berriarentzat mentu-gai dator

ordura arte,

amarik ezean,

arnasa gal zezakeana.

Amaren azken agurra, malko eta zotiñ,

—asaba zaharrez bedeinkapenaren antzera—

eragin zorrotza gertatu da semearentzat,

semeak, berak,

bere indarren ahalmenez,

aledun biur ditzan

kimu berritara lehertzen daramazkian

gazte-amets-erasoak.

Bijoa aurrera, gau illunean bada ere,

jomuga arrotzetarako bidea oinpean borobildurik

daraman ibilkari ausarta.

## UDAZKENA

Bero kixkalgarrien orruak  
epelezko magalera makurtzen doaz.  
Igalien ugariaz nekatutako adar ongilleak  
aski dute, orain,  
eguzki xamurraren besarkada biguñia.

Eguzkia, nekatu antzo,  
urrutiko mendi-ertzean etzan guraz dager;  
beatz luzezko argi-izpi gorriz  
damaie bere azken agurra  
ortzi urdiña zaintzen gelditu diren  
odei-multzo zuriei.  
Esker onez gorde nahi luke, besarkada estuan,  
argiaren erregek txertatu dion  
emaitza sutsua.

Atsegin zaio katu beltxari  
—udazkeneko arratsaren egalean—  
adarrari itsatsita jarraitzeko indarrak galduaz,  
betirako bide ertza laztandu duten  
ostro orbelduak ehoturiko ohe biguñia.  
Orbelari darion usai igartuak  
badirudi itxaropen guztien atariak  
utsaren magalera murgilduko geranaren  
epaia erabaki duela.

Itxurak ez du, ordea,  
auzirik erabakitzen.  
Biziaren mamia gorderik gelditu da  
zugaitz sendoaren sabelean.  
Zaharzteaz, orbel ugari  
—garai batetan  
maitagarri zitzaizkion  
ostro biguin ugari—  
baztertu behar ukan ditu zugaitz iduri den gizakiak.  
Aldakorra eta aurreratzailea da gizakia.  
Geldiaren egonak, burnirik gogorrena ere  
erdoi biurtzen duela ezin aaztu daiteke.  
Gizaki erdoitua baño birao aundiagorik nun ote?  
Uda beroko bide kixkalgariak igarotzeaz gero  
zokora gelditu diren orbel igarren albotik,  
bizitza oparo baten aberastasuna  
aberaskirik gaiñezkatuena bezela  
jaulkitzen da.

Ongia egiñaz nekatu ez den gizaki-soiñak  
 ez du zokorako ere balio; gogaitgarri da guztiz.  
 Bidegaldui eskua luzatuaz  
 izerdi ernalkorrez  
 bizitzako uda igaro duenaren soiñak  
 ba du eskubide,  
 —orbel izpiak utziaz—  
 —gaztetako ostro orlegi,  
 garai hartarako beharrezko ostroak—  
 orbel izpiak utziaz, bai,  
 ba du eskubide  
 bizitzaren mamia ondorengoei eskeintzeko.  
 Eriotz illunaren ordeztu,  
 bizitzako mami hori azi estuetan borobildurik  
 gordetzen du gizaki osatuak,  
 ondorengo Gizaldiek ernegai ziuurra  
 harengandik xurga dezaten.

Haur txikia seaskara ernezekoan  
 amaren buru asekaitez hartan sortu ziren  
 amets ulerkaitzak,  
 ama il ondoren loratu dire  
 fruitu iraunkorretara.  
 Zoritzarrekoak,  
 gizatasun jatorrari uko egiña,  
 sortu zituzten ama haien ametsak  
 erdoi-girora itsatsi zituzten  
 orbelezko gizakiak... !!!

*Martin Iturbe Balda*

## ITZ TXORTA

### HIZKUNTZA

Izadi, gizona ta izkuntza.  
Iru dira batean.  
Lokatz ta lore maitasun dira  
ezbardintasun berean.

Intza zelaietan zidarra da.  
Eguzkia belarretan urre.  
Gabaz intz eta eguzkia asarre  
egunez izadiaren gurre.

Gizona izketan ari da dardar.  
Zerua gabez intz biurturik,  
ez dau nai eguzkia besterik  
egubez maitasun uts eginik.

Izadia, gizona ta izkuntza.  
Apala, jakituria ta itza.

### ITZA

Itza ez da arri bola sendoa.  
Ez da burdiñaren burdin.  
Ugerrik ez dau agoan  
irriparre ustelekin.

Illargia itz motela da  
zorgin gabeen dantzari,  
kulunkan illargi otza  
illunez eguzki adi.

Eguzkia itz beroa da.  
Itz ta izarra maite dira.  
Itzaren dirdaitasuna  
garbi doa eguzkira.

Ur garbia itz leiarra da.  
Urak gorputza argitzen.  
Itzak gazezur barruan  
kirioak margoztuten.

### MINTZAIRA

Euskal mintzaira garbia  
euskaldun gizonen leia,  
buru biotz orrek dira  
Euzkadiko arrobia.

Euskal mintzaira leiarra,  
liriozko itzak dituzu,  
ega zurizko euskera  
izkuntz bakarra zara zu.

Euskaldun biotzak odol  
maitasun gorri gorria,  
euskal buruak edurra  
larros bezela zuria.

Maitasunak on dario  
euskaldunen biotzari,  
mintzairak zuzena izketan  
damotso aberriari.

**IZKETA**

Lurrari arnas dario.  
Arkaitzari ur garbia  
gauero urdin garbian  
zurbil doa illargia.

Baso lurruna datorkit  
goizez mendi barrenetik  
ota ezea loratzen  
t'erleak euren gañetik.

Eguzkia dago goian  
mun bana lore guztiei  
eguzkia bero dator  
bizia damotse lorei.

Larrosak maitea dake  
odol gorri bihurturik,  
eguzkia ta larrosa  
urrezko suaz bizturik.

**ITZ USAIA**

Olerkia dago goian.  
Egaz dabil urdin urdin.  
Aizea daukat barnean  
olerki eginik armin.

Gizona, pizti, zomorroak,  
udako jantzita doaz,  
gizona praka laburrez  
bularreko zorionaz.

Piztiak dizdiz izletan  
zurrunka eta narraz,  
euren aberri eguna  
ospatutzeko asmoaz.

Piztia eguzkira adi  
maitasunezko itzetan,  
izarra iruntsiko leuke  
argitasunez izletan.

**ITZ AULA**

Nere itz aula burdin biur adi.  
Ez aiz gizon ta oraindik.  
Euskalerrria lotsa dok igaz,  
ain makala izategatik.

Nere itz billotsa, apaindu adi,  
Andera ain ederra...  
Aberria ain dok zorakorra  
ta nere itza ain baldarra.

Nere itzaren ezjakintasuna...  
Izar guztiak ba-nitu...  
giza barne il au argitzen  
nai zindukedaz argitu.

Jakituria artzen dodanean,  
o Euskalerrri nerea...  
itz guztia eskeiniko deusut  
odol gorriaz betea.

**NAI**

Itzak zabaldu nai zun  
udabarri bezela,  
larrosa zuria.  
Lurra ernai egoan,  
baña lupuak ebiltzan  
jan ta jan orria.

Itza lotuta egon  
ezpataz ta edenez  
gorroto azpian;  
zuzenaren ederra  
zuzengabekeriak  
eukan il zorian.

Akerrak edena zun  
burdiñazko eskuan  
ta agin baltzetan,  
Itza ezin zabaldu  
udabarri bezela  
biotz negarretan.

## ZUGATZA

Zugatzak orbiztuten.  
Enborraren guriña  
edur zurituten.  
Umeak amesetan  
txorien egazetan  
biotz gorituten.

Tori, itzai egiozu.  
Eguzkiaren antzez  
urretxindorra da.  
Udabarri laztana  
abestiz datorkigu  
leiak eraginda.

Zugatzak orbiztuten  
udabarriak eraginda  
umearen pozez.  
Bizia dator parrez,  
urretxindorra kantuz  
umearen gosez.

## ZUGATZA

Gernikaren zugatza  
udabarri biur da  
eusko gizonentzat.  
Aberria. Zugatza  
itzetan poztu dira.  
Ar zure loratzat.

Erriak bizi nai du.  
Zezenak joan ziran.  
Ez da nai odolik.  
Betozen seme barriak  
zugatzaren orriak  
orbanik gaberik.

Gernikaren zugatza  
eusko biziz jantzi da  
seme biotzetan.  
Aberria eta gu  
odolez poztu gara  
euskal zelaletan.

## MENDI ERPIÑEAN

Euzkadi, entzun zazu.  
Euskotarren galdea  
oiuka jabiltzu.  
Leoi garrez bezela  
erria zartatu da  
zauritan odoltsu.

Egiaren bizia  
Aberri biurtu da  
mendi erpiñean.  
Askatasun izarra  
biotzetan sua da  
itxaropenean.

Euzkadi, entzun zazu:  
sumenditik urten dau  
zure gizadiak.  
Leoi garrez bizi da.  
Erria zartatu da  
odolez gorritsu.

## MAILU OTSA

Izketan ari dira  
Eguzki ta zugatza  
sua ta lur otza.  
Belarri gabeak bi.  
Ortzian su gorria  
lurrez mailu otsa.

Argia dator goitik.  
Ortzia da zabalik  
goiko leza andian.  
Zerua utsitu da  
izarrak bilin-bolan  
lurrera jausirik.

Gernikako zugatza  
euskaldunen arnasa  
izarretan dabil.  
Ortzian su gorria  
lurrean mailu otsa  
Gernika ez da il.

## GORROTO

Munduaren guzurrak  
aragia zartatuta  
odol garrazitan.  
Miña dario aitzak,  
odol jario lurrak  
gorroto bizitan:

Iru gizon etsaizko,  
zer txar egin duzute  
Euzkadiren aurka...?  
Iru gizon etsaizko  
zergatik il dozue  
lotsatuz Gernika...?

Zurea al da bizia  
gizona zapaltzeko  
bizitza legian?  
Miña dario aitzak,  
odol jario lurrak  
gorroto bizian.

*Mendieta*

## BERBO DESPLEGATUA

Hankaz gora zegoen bizia  
hombre prestoak jarritakoa,  
berak nahi zuten erara  
burgeskeriz manejatua.

Jakituria  
ta  
lotsagabekeria  
norberekeriz  
ta  
putekeriz  
helkar ornidu ziren  
señoritoaren  
sombbrero bajuan.

Beren grandezan  
norberekerietan,  
leoi asarretu antzera  
Aizkorri baño gorago  
zeudela uste zuten  
inpernuko su gorrian  
oiñak erroturik.

Señoritokeria  
egoismo laster  
biurtu zen  
kirtenkeriz  
munduko jende artean  
andi ta txiki  
aberats ta pobre  
lotsagebekeriz  
klasifikaturik.

Langillea etzan  
banandu nahi zuana.  
Aberaskeriak diruzalekeriz  
banandu zituan  
gizon kopalto ta pobriak,  
palazio ta txabol zarrak,  
asetuak eta gosekilak,  
dominanteak eta baztertuak,  
herri dominadoreak  
eta  
herri azpiratuak.

Hainbeste zapaltze  
hainbeste min  
nolatan izan zezakean  
erantzun gaberik?  
Herri minberatuak  
karraxi egiten zuan  
zapalketa ta herri hilketa  
haurrean.

Geroz,  
aldi berriak  
trumoizkoak eta odolezkoak  
agertu behar zuten.  
Hainbeste urtetako  
zapaltze kriminalak  
odioa kreatu zun  
gorrotoa nahi zuenen artean.

Zapaltzaillen indarra,  
etsaien gorrotoa,  
Euskalerriaren indarra  
etziran negurtu  
behar zan era egokian,  
ta kalera irten zun  
burruka galgarriak.

Abertzale izenez,  
eusko borrokalariaik,  
minduta, hori bai  
hasi dira,  
gogo onez,  
herri zaletasunez,  
uste santu horretan,  
etsaiaren burleak  
eusko gogo apurtuta  
norbere bizia defendatzen.

Etsaigoa sortu dute  
kreazione berriaz.  
Alde batetik  
milloiak elefante  
tronpeta nausi,  
ta lotsarik gabe  
Euskadiren izena  
austu nairik.

Bestetik,  
euskal defendatzailleak  
««Vasconia»»  
atera dute kalera.  
Pentsabide berriak,  
Jainkorik ez de behar,  
gu gire Euskadi berria.  
Kurutzarik  
ez  
Erlejiñorik  
ez da behar  
ikastoletan.

Lenengo iraiñak  
euskal anaientzat  
hainbeste lan  
egin zutenen  
aurka.

Norbere burua goratzen  
arrokeria,  
anaiak zapaltzen  
aspertu ezinik  
hori duk hori  
Prankotarren antzeko  
ejerzitu berria.

Jo ta jo  
hixildu gabe  
gau eta egun  
alderdi guztietan.

Bien bitartean  
abadetxerik abadetxe  
gauak  
estu ta larri  
pasatzen,  
Eleiza billa  
laguntzeko  
ta Jainkorik  
ez dogu behar  
bihotzean.

Euskal izenez  
martiri atsez  
abade gazteak  
engañatzen  
Euskadi gaxoaren  
izenean.

Esan ta esan,  
jarrai,  
herotuta bezela  
bihotzaren eden guztia  
euskal zintzoen  
kontra,  
guda egin ebenen  
aurka,  
hainbeste neke artu  
hainbeste larri,  
gose aldi  
pasatu zutenen  
kontra.

Norbera ona,  
dogmatikoa,  
Pranko bezala  
Aprikako  
Santuari baltzetik  
irtenda,  
anaiak hiltzen.  
Zergatik...?  
Ez daki...  
jaunkeriagatik  
andikien  
diruak-gatik.

Geroz  
bota kanpora  
euskal gizon  
jakintsuenak.  
Lekuona  
kanpora.  
Gu gera  
Euskadi berria...  
Gazte izatea da nausi.  
Jakituriak  
ez du balio,  
horain, hilluna da  
nagusi.  
Indarrak  
garaituko du,  
geroak ikusi.  
Hitler eta Duce  
agertu dira noski.

Kalera joan behar da,  
mili sailla gera...  
dirua behar da,  
proletarioak bait gera,  
bankoak hasaltatu,  
pistolea, indarra, bildurra,  
gizonen eskubidea  
era berdiñez,  
gogorkeriz,  
ahal ba-da  
etsaiari erantzunda,  
hau da beraren legea.

Gizonak hostu,  
hixilean eduki,  
horaidiño iñor ez hil  
Herria ez dago  
gerturik  
hilketa kriminalak  
onartzeko.

Izkuntza berritu behar da  
Universitatara  
joan da.  
Lenengo ikasi  
herdeldunak gera-ta.  
Gero,  
urtebetera ezkeroz,  
doktore tituloa  
emanen dit  
beste lagunak  
Unibersitatean.

Lengo asaben euskarak  
gogorik ez digu betetzen.  
Hoingo gazteriak dakar  
euskara euskara  
herdel itzez aberastua,  
konprenitzeko facil, facil,  
kastellanoak ere berdin,  
laster haiek eta gu  
vasco euskeldun  
nai kastellanoak  
berdin berdin  
prolektariak.

Honek ez dauka  
inportantzirik  
ez bait dago herririk  
universala ez denik,  
facillago konprenitu  
todoak mezklaturik.

Euskara, euskara,  
irten adi plazara  
kastellano klasera  
geroz, todoak konprenitzen  
verbo desplegatua  
universalizatua.

Hemen,  
dago ohiko meritua  
gazteri berriak onartua,  
baita beste askok ere  
korazon da guztiz  
indartua.

HARRI bola andi bat lokatu zen  
eurien euriz  
mendiaren egalean,  
ta goitik berantza hasirik  
lur, sats, arantza,

orbel, harri beltz, egur zar  
ur zikin, pisti hustel,  
aurkitu zuan guztia,  
narraska ekarri ondoren,  
euskal izkuntza eginda  
maleta zakar baten  
geratu zen  
jende barriarentzat  
basoaren babesean.

*Mariano Ruiz Mendibil*

## GURUTZEAREN BABESA.

*(Doñua: «ikusten duzu goizean...» bezela.)*

Gurutzearen babesa,  
kristau guzion ametsa,  
aterpe oberik eza.  
Euskal-Erriko mendi gañetan  
au beste banderik ez da.  
Goi artatik zaindu beza  
gure bizitza nekeza,  
ta sarritan aldrebesa.

Zor diot gurutzeari,  
zor bai eskerrik ugari;  
artaz ziñatua naiz ni.  
Bataiatzean, gurutz-ikurra  
apaizak zidan ezarri.  
Arrezkero ezaugarri  
bera det beti nabari,  
biotz-begien pozgarri.

Agur gurutze santua!  
Nigatik or iltzatua  
Jainko-Seme gizondua!  
Bere odolez or garbitu du  
gu guzion pekatua.  
Alare askok aztua...  
Gu bizi-truk il zan Ua,  
t'emaiozun maiz muxua.

Kanposantuko ixilla,  
ixil bete, biribilla,  
ez itz-ots, ez ixkanbilla.  
Il-obi bakoitzean gurutz bat,  
fede eder baten kurpilla.  
«Piztuko da gorputz illa,  
Ni itzultzean aren billa.  
Seguru egon dedilla».

Eriotzaren samiña!  
ezin esan ainbat miña.  
Alare iges eziña.  
Gurutzetik or Jesus eskeintzen  
bere laguntza zin-ziña.  
Zer zorion ta atsegiña,  
Arekin bat-bat egiña,  
hil ta piztuko bagiña!

Argi-billa.

*Marzelino Rezola*

**ITZULPENAK**

## **THOMAS MERTON**

*(Ikusi Olerti 1982, 81-82)*

### **COBRE'KO ANDRA MARIARI ABESTIA**

Neskatilla zuriak zugatzak lez jasoten ditue buruak,  
neskatilla baltzak  
koartzak lez kolean ispillatuta doaz.

Neskatilla zuriak urak baizen zoli kantatzen dabe,  
neskatilla baltzak buztina langoak bare dagie berba.

Neskatilla zuriak odeiak lez zabaltzen ditue besoak,  
neskatilla baltzak egoak lez isten ditue begiak:  
aingeruak makurtzen dira kanpaiak lez,  
aingeruak begiratzen dabe gora panpiñak lez,

zeruko izarrak  
erestun baten dagoz-ta  
eta mosaikoaren, lurraren, zati guztiak  
jagi ta badoaz egaz txoriak lez.

### **Therty Poems (1944)**

*(Euskeratzaille: Luis Arostegi)*

## NAIGABEA

Azaro otza subertebako arrantzale bat lez kaiñabera artean dagoanean  
eta aateak aizea lez bat-batean  
ibai itsutik iges doazanean,  
geldiro gatoz gu, geure kaiñaberea eta eskupetea arrapatu dauskuezala,  
arboletako kaiola naigabetu artean ibilliz.

Ekatz-asteak joan dira danak eiztari mozkorrak lez,  
mundu griseko ateak abenduarentzat zabal-zabalik itzita.  
Baiña orain ez da abar-berbotsik kartzela apurtuotan.  
Ezkurak lurrean dagoz,  
ez gure damu ezaguteziña baiño itziago:  
eta emen gagoz gu aretxak baizen sorgor,  
zumarrak baizen mutu.

Eta kartzel-zaiñak baizen seriotsuak antzez izan arren,  
ez dogu itauntzen joandako egunen morroilloak beartu eta gure udea nok  
ostu dauan.  
(Ez dogu geiago entzun gura ez esaera bakanik ez giltz eskuturik!)

Ez dautsegu urtaroi jaramonik egiten  
eta muiñoak lez gagoz, gor.  
Eta ez dogu iñoz urte igeskorren oinotsa entzuten,  
orri bat lez goaz makurka adar beeratuartetik.

**Therty Poems (1944)**

*(Euskeratzaille: Luis Arostegi)*

## ARROTZA

Zugatz ixillai  
iñok entzuten ez dautsenean  
eguzkia osiñean  
iñok nabaitzen ez dauanean

lenengo euri tanta  
iñok asmatzen ez dauanean  
edo azken izarra ikusten ez dauanean

edo bakea asi  
eta asarreak amaitzen diran  
mundu erraldoi baten  
goiza agurtzen ez dauanean:

txori bat dago ixilik  
Jainkoaren lana begiratzen:  
orri bat biraka,  
lora bi jausten,  
amar obo osin gaiñean.

Odei bat muiño egalaren gaiñ,  
kerizpe bi ibarrean  
eta argiak zuzen jotzen dau.  
Orain egunsentiak ondasunik aundiena  
arrapatzeko agintzen dau,  
ain sari miragarria  
emoteko!

Urrago ta argiago  
beste edozein irakasle berbatsu baiño,  
Zu, iñoz ikusi ez zaitudan  
barruko Arrotz ori,

itxasandi barrunbatsua baiño  
sakonago ta garbiago,  
artu nire ixilla  
eta euki naizu Zeure Eskuan!

Orain ekintza alperrikoa da  
eta miña kendua  
legeak esku-zabalak biurtzen dira  
mugak bota izan dira  
bekaitzak jabetzarik ez dauka-ta  
eta ez da griñarik.

Begitu, Argi zabaltsua ixilik dago  
gure Argirik argiena Bat da!

The Strange Islands (1957)

*(Euskeratzaille: Luis Arostegi)*

# **ABESTIA: BILLA BA'ZABILTZ...**

Zeruko argi baten billa ba'zabiltz  
Neu, Bakartade, nozu irakaslea!

Neu noatzu aurretik utsaren barrura,  
zure goizalde barrientzat eguzki bakanak sortzen dodaz,  
zure gelarik sakoneneko  
leioak edegiz.

Nik, bakartasunak, berarizko kiñua egitean  
jarraitu nire ixillari, jarraitu erakusten dodanera  
Ez izan bildur, abere txiki, espiritu txiki  
(zu, berba ta abere),  
ni, Bakartade, aingeru naz  
eta otoi egin dot zure alde.

Begitu gau uts, aberatsean  
illetargi erromesa!  
Izendaturiko ordua naz,  
sorbatz batek lez  
aldia ebagiten dauan «oraiña».

Iñusturi ustékabea naz  
«baietza» eta «ezetza» baiño arago,  
Jaungoiko Berbearen aurrelaria.

Jarraitu nire bideai eta neuk eroango zaitut  
eguzki ule-urregorrietara,  
logos ta soiñu, errubako pozak,  
itaunetatik garbi  
eta erantzunak baiño arago:

Ni, Bakartade, zeure zeu nozu-ta:  
ni, Ezereza, zure Dana naz,  
ni, Ixilla, zure Amen naz!

**Emblems of a Season of Fury (1963)**

*(Euskeratzaille: Luis Arostegi)*

### **GELDIRO GELDIRO...**

Geldiro geldiro  
dator Kristo ortua zear  
zugatz sagratuaitz egiten  
Euren adarrak kalte barik  
jasaten dabe bere argia

Geldiro geldiro  
dator Kristo errautsak zear  
ikasle galduaren billa  
Lotsakorra berau  
lar ikasia  
berbak siñisteko  
eta ostendu egiten da

Geldiro geldiro  
jasoten da Kristo arto soloetan  
Uzta aroa da bakarrik  
Ikasleak bere loan biurtu  
eta murmurikatzen dau:  
«Damu dot»

Ikasleak itzartu egin nai dau  
istoria ezagutu dauanean  
Baiña geldiro geldiro  
istoriaren Jaunak  
negar dagi sutara

### **Cables to the Ace**

**Familiar Liturgies of Misunderstanding (1968)**

*(Euskeratzaille: Luis Arostegi)*

## EGOALDERA ITZULI NAI NINTZAKE

(Pablo Neruda)

Gaixorik Veracruz'en, gogoratzen dut  
egoaldeko egun bat, nire lurra, zidarrezko egun bat  
arrain arin bat lez zeruaren uretan.  
Lancoche, Lonquimay, Carahué, goitik  
Bakankiro, ixillez ta sustraiez inguratuak;  
exeriak beren narru ta zurezko bekaulkietan.  
Egoaldea ondoraturiko zaldi bat da  
lantzurda ta zugaitz gelditsuz bureztundua,  
mutur orlegia jasotzen duanean erortzen dira tantoak,  
aren buztanaren itzalak bustitzen du ugartedi aundia  
eta, aren estean azkortzen da ikatz gurtua.  
Iñoiz ez geiago, esaidazu itzala, iñoiz ez geiago esaidazu eskua  
iñoiz ez geiago. Esaidazu oiña, atea, zankoa, burrukea,  
gainberatuko duzu basoa, bidea, galburua,  
laiñoa, otza, urdiña izanik, izanbidetzen  
zituana zure oinkada bakoitza etengabekiro erreak?  
Ortzi, utzi egidazu egun batez ioaten izarrik izarrera  
zapalduz argia ta sutautsa, desegiñik nire odola  
euriaren kabiraño eldu arte!

Nai dut joan  
zuraren atzetik tolten usaitsutik  
ibaibera, zerrategietatik urten nai dut,  
oin bustiakin ardangelatan sartu,  
urritzaren tximizta argiaz giatu?,  
ondoan etzantu,  
ill eta berbizi koskatuz gari alea.  
Itxasoa, ekarri egidazu  
egoaldeko egun bat, zure ugiñei loturiko egun bat,  
urdin aize bat nire ikurrin otzari!

*Muniategi-tar Sabin*

## OROITZAPEN

*(Rafael Morales)*

Oraindik dizdiz dago nire narruan  
zure eskuen dizdirapena  
ta, argiro noa sugarretan,  
betikoar garra, goietara.

Eztakit zein odeik nabaritzen nauan;  
eztakit zelako zeruak, ze txorik  
daruan nire biotza,  
zerutar txingarra, egazean.  
Ez zagoz nigaz eta bakarrik nago  
eta zugaz. Bai azkenik bako  
oroitzapenetan naiz erretzen.  
Goitiar eta ero, nire eskuak  
billa dabiltz billa aide illunean  
zure eskutuko gorputz Urrutia.  
Baiña zu ez zagoz. Ni iltzera noa,  
betikoarugarra, goietarantza.,

*Muniategi-tar Sabin*

## MAITE ZAITUT, NI NAIZ

*(Pedro Salinas)*

Ugarte, jauregi donerik  
bizitzeko ez dot nai.  
¡Bai alaitasun aundia  
izenordetan bizitzea!

Soiñekoak kendu,  
ikurrak, argazkiak,  
ez zaitut nai orrela  
beste baten aldatua,  
beti zerbaiten alaba.  
Garbi nai zaitut azke,  
alda eziña: Zu.  
Ba-dakit munduko  
jendearte guztietatik  
deitzen dautsudanean  
bakarrik zu izango zarala zu.  
Ta zuk itauntzean  
zein dan itauntzen dautzuna  
beretzat nai zaituana,  
izenak, iragarkiak,  
edestia, lurperatuko dodaz,  
iaio baiño lenagotik  
leporatu eusten dana  
ioango naiz apurtuz.  
Ta munduaren arriaren  
ezaugetasun billuts  
betikorrera itzuliz  
esango dautzut:  
Maite zaitut, ni naiz.

*Muniategi-tar Sabin*

## ORRI ZIMELEZKO SOIÑEKOAN

*(Juan Larrea)*

Amestu nagizu amestu laster lurreko izarra  
nire betazalak ereinda ar nazazu nire itzalezko eusgarrietatik  
atxurdin gorizko egoz lerrokatu nazazu izar izarra nire autserre artean  
Aal izan aal izan azkenean nire xeraduran irudia  
eguzkidun gizuren batena oñak uraren azalean  
begiak neguaren biotzean  
Agur munduari nire agurrezko amets artean  
gizonak  
agur gizonak eta euren eskuetako erritxoek  
Alde guztietatik ezpatak dagoz nautela ebakitzen  
zatietan  
oh  
ezpatazko ur-jauziak  
Ezpatazko ur-jauziak da abiatze agindua  
ni naiz dana abiatzen kobazuloz gain  
buru-azurrak lez kirrizkarrazka  
Iñor ez zegoen lenago izalean  
Orain ni naiz baiña ni ez naiz neure jabe  
nire begietan lo egiten duten  
txoriek jabetzen zaizkien  
baiño geiago.

*Muniategi-tar Sabin*

## SUSMO ARGARRI

*(Jorge Guillen)*

Amabiak ordukarian!  
Beste birunda bat da mundua.  
Orain zait agertarazten  
Aren erdia, aren asiera?  
Dana da emen lautada  
Garitzakaz urreztatua  
Galburuz galburu dauna osotzen  
Udate baten gorputza  
Izateko naimenduraz  
Eragin bakar bat zutundua  
Erakargarri dan zerupear  
Urdin orretatik.  
Dot miresten  
Begiratuzko leiduraz  
Baterakoak eta ikurrak  
Trakets nik, azter eta igertzen  
Ez dedan zerbaitena.  
Eta bitartean nire jakin ezak  
Beren ibaizko okergunea darrai  
Ikusten nago —lilluratuta—  
Izadia dingilizka  
Eskegita... Zerengandik?  
Norengandik? Or ustegai  
Onargarri bat dot kuzkuzatzen.  
Ai, besterik ez ene Iainkoa!

*Muniategi-tar Sabin*

## **VENEZUELATAR ERARA EGINDAKO AMALAUKOAK**

Andres Athilano dugu gaurkoz Oleriti aldizkariaren orri-aldetara dakarki-gun venezuelatar olerkari ospetsua. «Duida'ren Arribitxiak» eta beste olerki liburu askoren egillea dugu. Gaztelera izkuntzan oso ezaguna. Olerkari bakun ta ats aundikoa. Ulerterreza ez, baizik sarri bein eta berriz irakurri eta gogartu bearekoa. Erabat atsegin eder eta sakona artaratu ezker beren izkuntza-goraberak eta beren geografi itz-esangurak ikasiz. Erri kutsuz edertzen, mamitzen ditu beren olerkiak, izadi ereduzko berein bitxikeriz. Euskal soñekoz aurkezten alegindu naiz aren olerkera. Ona ba, emen, euskeraturik aren «Venezuelatar erara egindako amalaukoak» olerki-liburutik artutako bat amalauko gaurkoz.

### **IZATEAREN ABERRIA**

Gaua itzultzen da ta, ez du aantzitzen.  
¡gaua nire bizitza gainean!...  
¡nire bizi-leku txikia  
bere ameskizun baten bakartadeaz!

¡Nire azkenengo seme irripartsua!  
ta, or Putzela lo artua,  
¡gaua itzultzen da ta ez du aantzitzen!...  
¡gaua nire bizitza gainean!

¡Kuku egin bedizt nai bere kutxean  
amorrrik ez daman soin illez!  
¡ta erortzen badere atzokoa,

usteldurik atera bedi gogoa  
deserritu bati aberri bat  
amets egiñaren samiñez!

*Muniategi-tar Sabin*

## LUR SANTUETARA ERROMES

*(Karol Wojtyła)*

### 1. Olibete mendia

Lur apur bat, osto artetik ikusia,  
sasi artetik legez, aldiak zear.  
Ur-zear be, bai, aitz-arrakalak egiteko  
kaliza baten barrena bete daroana.  
Lur apur au, begira zagoz oindiño?  
Edo-ta neuk bakarrik sortzen ete?

### 2. Judea'ko basamortua

Lur au eder dala esatea, ezta errez.  
Odeietan dau galtzen arkaitzaren amilalde baltzak.  
Aizea ta euria gurutzatzen berebillak.  
Alperrik zabiltz berde pizkaten billa.  
Urrun joan ziran gizonak. Ezin emen bizi.  
Eta Zu eldu zintzazan ona, ain zuzen be,  
eta ez lur oneri eder zala esateko.  
Ez dau zer-ikusirik lekuak. Jentea da  
billatu bear dozuna.  
Aurkitzeko barriz bera dagon lekura joan bear,  
aurkitzen dan lekuan billatu bear.  
Zuk jakin dozu ori aukeratzen.  
Lur oro eltzen da lur bakar ontara  
eta au ikutuz bizitz-lur biurtzen...  
Eta oro egin oi da beti-beti  
Dana dan Agaitik.  
Ementxe bakarrik egin zan  
Dan Aren eta lurraren arteko aurkitzea.  
Sorkuntza deritxogu  
aspaldi dala jazo zan orori,  
eta baita jabetza be.

Noberena lez zerbait aurkitzea da,  
 eta berau biziaz betetea.  
 Alkar aurkitzeak ez dau adierazo nai  
 zerbait eskuaz ikutzen danik  
 (Zu ezin zaitu iñok ikutu),  
 ezta soilki bat bizi danik be  
 (zer gure bizia zureaz kidegurik?);  
 aurkitzean ar-emona dago bakar-bakarrik  
 (bai ar-emon sendoa!),  
 izan eta ez-izanaren artean egotea baiño,  
 jaiotzaren eta usteltzearen artean nunbait.

Olan zuk, lur, lur askoren arteko,  
 ar-emona zeunkan usgunean, eta bizi ugari...  
 Olan lotua zengozan zu, eta loturik zagoz.

Oi aurkitze-lur, lur bakarra!  
 Oro egiña izan dan lurra,  
 Dan Ari bizia emon zeuntsona.  
 Baiña ezin dautsazu esan: «Ederra zara!»

Banatzearen aste bat dago aurkitzean.  
 Ez gara alan be bananduko lur ontatik  
 Dan Agandik banandu ez gaitezaz;  
 lur au amaituta be, Ak izaten jarraituko.

Jaioz gero ez dago iñolaz be banantzerik.  
 Aurkitzeaz amaitzen dan banantzea,  
 ezin daiteke amaitu jaiotzeaz.  
 Jaiotzeak ez dau azkenik, ez banantzerik.

Oi lur, agertu-barri zarean lur,  
 Dan Aren lur,  
 gure Aitarean lur!  
 Gu jaio gintzaneko akitua,  
 zугan ez dakusagu bustirik ez ederrik.

Gaztetan be etziñan izan pizgarri ta eder;  
 baiña, ori bai, bazter atsegiñak zeunkazan.

### 3. Kidetasunak

Bazter oneitaratzen naz (ez dira lengoak, ba-dakit).  
 Emen ditut merkatariak ikoak saltzen.  
 Or mutikoak argazkiak eta silluak  
 zelofan-ingiz inguraturik eskinka.

Dei dagitzue dendetatik zintzur-abotsez.  
Itzen bati oratzen italieraz, ingelesez,  
eta polakeraz era berean.

Bazter oneitaratzen naz. Gora aundikoa  
dozu tokia, leku sagaratua baita.  
Tokiz aldatu ziren arriak,  
koska, goibe ta makur-uneak bete zituen,  
arek andik ona joan ziran oro.  
Antxiñakorik ez da geratzen pikor bat bera.  
Kidetasuna, alan be, ez dago onetan;  
daukanetik kidatzen jatzu lekua.

Zuk zeure begitu ederrez bete zenduzan  
tokien billa nabilkizu ni.  
Ez nator eurak eskuratzeraz,  
nire utsa eurak bete dagien nator.  
Amaika bider eraldatu bear Zuk  
zerbait neurea izan zedin  
asieran zeurea bakar-bakarrik izan zana!

Arek ezagun izan eban leen-tokia  
etzan azaleko lekua, bere amaren  
sabela izan zan! Oi, oldoz al ba'leu arek,  
Nazaret'eko arriak, ni gaiñetik igaroz,  
noakien arri areik, berak be oiñakaz  
ikutzen ebazanak dirala,  
mundu ontan Zu zengozan toki bakarra zala!  
Zugaz aurkitze bat izango litzateke  
zure Amaren oiñak ikutu ebezan  
erlaste zapalen barrena.

Lurreko lekuok, Lur Santuko lekuok  
emen barruan, neure baitan,  
ez dakit zuok zelan ezkutatu.  
Ez dakit zelan zapaldu zuok, ezin dot:  
belaun-makur jarri nai dot zuon aurrean.  
Ziurrago jat olan aurrez egitea.  
Belaunak lurrean ixil dot jarraitzen.  
Neure zerbait geratuko jatzu, oi lur!,  
neure ixilla geratuko jatzu. Eta bitartean,  
barru zaroadaz zeu lez izan nadin  
testigantza leku.  
Ba'noa, lekuko lez ba'noa,  
testigutza egitera noa  
millaka urteetan zer jazo dan iragartera.

Tokien kidetza ez dozu gero  
 arrien kidesasuna bakarrik,  
 etxe orpo, suete oiñarri, oxin-orma  
 (oi Siken'go oxin,  
 Jakob'en egunak ezkeru,  
 samaritarren egunak ezkeru, gaur arte!).  
 Ez, ezta bazter eta lurraldeen kidesasuna  
 begien aurrean edegi oi jakuna.

Bazter naz ni be ta ikuskizun ontan  
 alkar aurkitze bat daukagu.  
 Ez noa arriengana, izpazterrean lurra legez,  
 gizonaren begi-aurre zabaltzen diran  
 lurralde ta bazterretara baiño.  
 Itxasoa lur-barne sartu oi danez,  
 ikuskizuna olaxe begiz sartzen gizonari.

Ez nabil arriengana,  
 etxearen orpo,  
 kalearen kaltzada,  
 suete-azpi, santua dan  
 alderdirantz nabil, toki sagaraturantz.

Tabor mendia, goi-erpiñetik,  
 ikuskizun bakan. Galilea  
 gorantz doa apurka kutrillo bakotxean,  
 gizonaren izerdiz landua,  
*kibutz* bakotxean; au obeto agertzen  
 gaba jaustean, tximistargia ikuspegia  
 argiz beteago ixioturik jartean.  
 Or ondolik puzka aize-bolada otza;  
 bakarrik nau emen izten, eguna itzaltzean.

Genesaret itxas-egalak. Emen naz aurkitzen  
 Kafarnaum, Betsaida, Magdala'n. Arri batzuk  
 jasoten dodaz leku bakotxean, eta egunen baten  
 Notek ibaiko arrantzalaren baten  
 esku nekatuan ipiñiko ditut.  
 Sartu ta urten, arnastu; aren eta onen tokiak  
 bakotxagan dagoz lurrean bertan baiño geiago.

#### 4. Zugatz bat

Leku ontara eldu zan Abraham bere ibilliz.  
 Abraham, aurkitzen gurenaren gizona (*tres vidit  
 et unum adoravit*).

Toki oneitara edegi zan aren barru aurkitzea.  
Lur osoa Lur biurtu zan onetara,  
au da, egoitza. Abraham, aita, onen leiñutik  
erneko da Adan barria.

Eremuan zear etorri bear da toki oneitara.  
Abraham janari billa ebillen basamortuan,  
bere barru eremuan ikusi eban zugatz bat  
(*tres vidit et unum adoravit*).  
eta Aregana zuzendu zitun bere urratsak.  
Zugatz orritsua!  
Zure gerizpeak babes beiz gizasemeak oro,  
abereak eta landareak!  
Erri osoak  
jarraitu bear dauz Abraham'en urratsak.  
Gaur egazkiñak —«Arabic airlines»— dagie  
bide arloa ordu bian. Uxa ete dogu  
urruti joan-nekea ta lur elkorretik urrin,  
larre-sail lantzar etzetik iges egitea.  
Urruti lagako dogu Sinai igarotean,  
baiña bulartsu joan ziren oneik,  
eta zuzen, mendia aurkitzera.

Lur, lur, erantzun betiko jakituri!  
Aurkitzearen lekuak, eremu izatea lagarik,  
atseden-leku —oasis— izan bear dau.  
Loratu bearra dau gizaserneak  
zure etortzearen zantzuaz oartzean.  
Zatoz eta ekar eizu zeugaz  
udabarria, gizonarentzat!

Alda zaitekidez, bear bada,  
joanean geratu ziran errietaz,  
eta etorkizunean loratuko diranetaz?  
Alda ete daikegu toki loretuen truk  
gurutzea tinkotu zan mendi kaska-motza?  
Basamortu zear etorren leku oneitara erria.

Aurkitze toki guztien artean,  
auxe da azkena ta bakarra.  
Munduak ezingo dau iñoiz beragandik alde egin.  
Munduaren sendotzaren tokia dozu.  
Gizona ezin da urietan soilki loraz jantzi,  
etxeak, zugatz edaburuak baiño garaiagoak  
aspaldidanik jaso ziren urietan aurki.  
Berriro dator sukalde bako jentea  
Lur au arri biurtzen, Gurutzeari esker.

Aren aztarnarik ez da gelditzen.  
 Gurutzea eraiki eben aitza be ezta ikusten.  
 Azken zentzunera gauza guztik  
 erne ziran lekutik ur-urre,  
 bein-beiñeko etxeak jaso dabez.  
 Eraskin etxagintza, ta aldi adierazle.  
 Zati ta itxura oro osotasunean argitzen.  
 Osotasunaren lekua auxe dozu,  
 aurkitze guztien egoitza  
 eta gizaseme guztiena. Leku ontatik kanpo,  
 sukalderek ez dauken gizasemeak dituzu.

Gizona erne, azi, loratu da egiten urietan;  
 uriak barriz gizona uxatzen, eta egun baten  
 sukalde barik da geratzen, eta nai-nun  
 aterpea billatu daroa, eraskin etxagintzan  
 naiz oraintsu asmatu-rik-koan egokitua.  
 Uri bat jalgi oi da, alan gertatuz,  
 baiña orrela be, barren illunean,  
 idoro oi da zentzun barriren bat,  
 azalera datorren sorburuko ura iduri.  
 Gurutzea biurtu jaku guri  
 Jakob-en oxin sakon.

## 5. Barne-tokia

Zugan daukot nik tokia. Zurea nigan dagonez.  
 Gizaseme guztiena dozu toki bera.  
 Ni, beraz, ez naz baztertua somatzen.  
 Askotuz noa, alan be, bakarrik eta bakar.  
 Gurutzea da. Ementxe jasoten zan.  
 Askotze au —eta ez gitxitzea— ezkutu bat dozu,  
 Gurutzea da, ur-lasterraz goiti. Beroni esker,  
 zenbakiak bazter-azo oi dira Gizonaren aurrean.

Zelan eldu ziñan Gurutzero? Zelan al izan zenduan?

Mailladi batetik jatsi gintzazan, arro,  
 ormean zear zuluturiko bidetik.  
 Orduan aldatz-beera jatsi ziranak, gelditu ziran.  
 Arlosa bat dago orain ezaugarri.  
 Gantzukiñak ipiñi ebezan zure gorputzear,  
 eta obi barruan laga eben.

Tokia jadetsi zendun lurlean zeure Gorputzarentzat.  
Eta kanpoko lekua barrukoz aldatu zenduan  
au esan zenduanean: «Ar danok ortatik».

Ni erromes etorri nintzan lur ontako  
bazter guztietara dizardiz dagizu barru-tokiz.

Gizaldiak dirala autatu zendun toki au.  
Berton emon zaroadaez,  
berton onartu naroazu.

*Itzultzaile: Aita Onaindia*

## ZEIN-LEINKA

(E. Entuchenko)

Artzaiñak iñoen: «Galilei au  
galgarri da, ta eztau zentzunik»;  
baiña, aldiak adierazten dauanez,  
zentzungea jakitunen izan beti.

Aren adin-kide zientzilari bat  
etzan a baiño zuur-zorrotz-ezagoa.  
Ba-ekian bai lurra biraka dabillena,  
tamalez alan beak sendia janaritu bear.

Eta bere emazteaz zein-lenagoka astean,  
bere fede gaiztoa burutu ondorean,  
uste eban zein-leinka, lasterka ebillela  
egiazki laster ori ondatzen ziardula.

Lurbiraren izatez konturatu nairik  
galzori oroz Galilei soilki jarri zan aurrez,  
eta gizon aundia izan zan... Arek bai egin  
ebala lasterra! Ari bai ulertzen jako!

Dagigun, ba, oiu «gora zein-leinka»  
Shakespeare eta Pasteur'ek,  
Newton eta Tolstoy'k egin  
ebenaren antzekoa baldin bada.

Zergaitik ete ebezan basaz estali?  
Talentua talentu dozu gaitzez erasi arren.  
Gaitzesten ebenak aspaldi dira aantz-zulo,  
baiña nok ez ditu gogoratzen gaitzetsiak?

Gorantz igon nai ebenak egazean,  
koleraz il ziran osagilleak:  
zein-leinka egin eben guztiak!  
Eta nik begi-aurre arein lorratzak dodaz.

Fedea dot arein fede sagaratuan.  
Fede onetan datza, bai, nire kemen guztia.  
Nik neuk be zein-leinka egiten diardut,  
berau egin nai ez dodalako, ain zuzen.

*Igotz*

## ORFEU-REN SEMEAK

(*F. Mistral-ena*)

*Marsellako Les Enfants d'orphée ubes-batzarentzat egiña, 1867,*

### I

Kimuak gara Grezi illezkorreko, - oi Orfeu, giza jainkoti, zure semeak!  
- Bai, zure semeak gara, oi Probentza guren!, - eta Marsella, gure uriburu  
- izurdeak itxasoan jolaska dakusana.

Abes daigun geure asaben aintza - kondaira barru - euren oiñatza itxi  
ebena - eta beti, gutunak lekuko, - aske izan zirana - itxasoa ta ipar-aizea  
lez.

### II

Eguna jagi ta sartzen dan bazterreraíño, - zabaldiz zabaldiz daroazuz  
gure gizonak; - baiña munduko errialderik jorienak, - euren oparotasun  
aunditan, - ez dabe egundo aantz-azten tanbolin-soiñua.

Abes daigun geure asaben aintza - kondaira barru - euren oiñatza itxi  
ebena - eta beti, gutunak lekuko, - aske izan zirana - itxasoa ta ipar-aizea  
lez.

### III

Marsella, sutsu ta alai, - negu ta uda eguzkitan lan dagizuna, - erabil  
aoan arkesi lorea - eta betoskolan itxi bakar-bakarrik - Jainko-Amaren diz-  
diz aurrean.

Abes daigun geure asaben aintza - kondaira barru - euren oiñatza itxi  
ebena - eta beti, gutunak lekuko, - aske izan zirana - itxasoa ta ipar-aizea  
lez.

*Igotz*

## LORIK-EZA

*(Gerardo Diego)*

Zu ta zure lo gorri. Baldin ez dakizu.  
Zu lo. Ez. Ez dakizu. Ni lorik gabea,  
eta zu, erruge, lo zagoz zerupean.  
Ontziak itxas-zear, eta lo-mende zu.

Ortzi-giltzak nabe izten, ai!, espetxe sartu,  
ostu, leotzeratu nabe. Lei otzean,  
milla orritan aize-leiar. Ez egazea,  
nire egaztiak ezin zu egoz ikutu.

Lo zagozala jakin ziur, eskierki,  
ez-ajolaren ildo, lerro aratz, gelda,  
nire beso artetik ain ur zagozala.

Ugartekoa morroi benetan bai dala!  
Ni, ernai, zoro, itxas-ertzeko troketan,  
ontziak kresal-zear, zu lo leun gozotan.

*Igotz*

## URBION GAIÑA

*(Gerardo Diego)*

Gaiña da, buruenik, atzenengo goi-gain.  
Ta nire begi biak dagiez bueltak,  
bira-biraka zoroz otseskian kankak,  
Espaiña erdia ta onen argi-lakain.

Ariña da lurra txit. Naigabe oboa  
utsal itzuli dautzu goi-biribilletak  
ta uin emagearen iku-mosuketak,  
mendaitz eta ibar gozo eskein dautso loa.

Or datza lur-parrasta; ez dau aztarrenik,  
—barne-min ezkutuak daragoio negar—  
Jainko atzak gain-ikutuz dagitsona ezik.

Baiña zerbait, Urbion, zugar lo ez daga,  
—zure elur garbiaren sein-oialak dardar—  
ta bage jaio ta negar or dozu Duero.

*Igotz*

OARRA.- «Urbion», Soria ta Logroño probintzien arteko mendi garaia, 2.246 metro goibe dituna. «Ur» - «Bi» - «On», zer esan nai ete dau itz onek? Euskal itza dala dirudi. Mendi onen urak, inguruan potzu ta zingira entzutetsuak egiñik, batzuk Ebro-ra doaz, Naxera-tik zear doan Naxerilla ugarituaz, besteak Gaztekerria zearkatuz dabillen Duero egiten. Antxiña baten, itxura danez, lurralde arein jabe euskaldunak ziran, Ezkarai aldetik eta an bertan Zarroki deritxon gaiñak eta Soria uritik bertan daukagun Garrai erritxoak eta abar, ori adierazo nai dauskue beintzat. Muna (erderaz colina) esan gura dau «onak» (on-aindia, ots, muna aundia), beraz «ur bi» alkartzen diran muna edo tokia.

## ESOPO'REN IPUIÑAK

### 159.— Belabaltza ta Iuki-emea

Belabaltz goseti bat ikondo gaiñean gelditu zan, baiña ikoak oindiño berderik egozala ikusiz, umotu arte zain geratu zan. Luki-emeak, belea luzatuz joiala gaiñean, zergatik zan ori itaundu eutson. Jakitun egin zanean, esan eutson beleari:

— Oso txarto egiten dozu itxaropenean uste izanik: amets zoroz janaritzen jatzu itxaropena, eta ez bazkaz.

### 160.— Belatxinga ta belak

Belatxinga bat, beste belatxingak baiño aundiagoa alanbearrez, bere endakoak arbuiaturik, belaeen artera joan eta euren arteko bizimoldea eskatu eutsen. Belak, baiña, areen izakera ta abotsak ez ezagaturik, pikoka zauritu ta andik bota eben. Eta belatxinga, belak erauzia, bere belatxingetara biurtu zan. Oneik orduan, iraiñaz minduta oindiñokarren, ez eben euren artean artu nai izan. Olan ez batzuk ez bestetzk, ez eben eurekaz artu.

Gizasemeen artean be orrenbeste jazoten da. Euren aberria itxi ta beste bat obetzat aukeratu, txarto ikusiak dira emen arrotz lez, eta, gaiñera, euren erritarrentzat be gorrotogarri dira, arbuiatu ta gitxi-etsi ditulako onek.

### 161.— Belatxinga ta egaztiak

Zeus'ek, txoriai errege bat ipiñi nairik, egun bat izendatu eutsen bere aurrean batu zeitezan, euretariko guztien artean bat ederrena autatu bear eban danen errege izan zedin. Egaztiak ibai-ertzera joan ziran gorputzak garbitzeko. Belatxingeak orduan, bere itxusitasuna ikusirik, beste egaztietatik jausten ziran lumak batzen ziarduan, bere soiñean eurak egokiturik. Olan gertatu zan egaztietatik ederrena.

Eldu zan egu izentatua, eta egazti guztiak agertu ziran Zeus'en aurrean, an zan belatxingea be, bere luma-egaki ñabarrakaz. Eta Zeus ain ederra agiri zanari bere erregetza emotekotan egoelarik, egaztiak, aserre sumiñean, bakotxak berari egokion luma kendu eutsan, eta olan luma barik leen bai-zen belatxinga geratu zan.

Au jazoten da urrez jositako gizonakaz: iñoren ondasunaz jazten diranean, zerbait dirudie; baiña zor dabena ordaintzean, lenago ziran lez dauka-zuz.

## 162.—Belatxinga ta usakumak

Belatxinga batek, ondo janarituriko usakumak egozan usotegia ikusiz, bere lumak zuritu ta araxe joan zan arein janariz bera be gozatzera. Belatxinga ixilik egon zan artean, usakumak, euretako bat zalakoan, eurentzat artu eben; baiña momentu baten aaztu egin zan eta garraxi bat bota. Usakumak orduan, aren abotsa ez bait eben ezagun, jaurti eben andik guztien artean. Eta belatxingea, usakumen jateko gozo barik geratzen zala-ta, beretarren artera biurtu zan. Belatxingak alan be, ekarren koloreagaitik ez bait eben ezagutzen, bota eben euren artetik; olan, janari bitatik gozartu nai ebalako, ez bataz ez besteaz geratu zan.

Ipuin onek erakusten dauku: geure-geureak diran ondasunaz naikotu bearra daukagula, zikoizkeria ezeren obari bakoa izan ez-ezik, sarri daukaguna bera be galdu azoten dauskulako.

## 163.—Belatxinga igeslaria

Gizon batek belatxinga bat eizatu eban, eta zango batean liñoizko ari bat loturik, bere semeari emon eutsan. Belatxingeak, baiña, gizasemeen artean bizi eziñik, onako askatasun tarteaz baliatuaz, iges egiñik bere abiara biurtu zan. Baiña aria adarretan naspildu jakon; ezin, beraz, egazik egin, eta, hilurren bere burua ikusiz, esan eban:

— Doakabe! Gizasemeen artean katigu ez egotearren, bizitza galtzen dot.

Alegi au ez jatorke txarto arrisku txikietatik iges egin naiean, alanbearez beste aundiago batzuetan jausten diranai.

## 164.—Belea ta luki-emea

Bele bat, aragi-zatia ostu ondoren, zugatz baten kokatu zan. Lukiak ikusi eban eta, ari aragia ostu nairik, aren gorputz aundi ederra goratzen asi zan, egaztien errege izateko bera baiño obeto apaindurik ez egoala esanaz; eta ori be lortu leikeala ziur asko abotsik izan ba'leu. Beleak, abotsa be baé-bala azeriari erakutsi gurarik, jarein eban aragia garraxi aundiak botateko. Luki-emeak aragia artu ta esan eutsan:

— Bela lagun, adimena ba'zeunko barriz, ez zintzatekez ezeren paltan izango egaztien errege izateko.

Ikasbide ederra ergelentzat.

### 165.—Hermes eta belea

Arrapagaillu baten Apol'i itz emon eutsan intzentsua erreko eutsala; baiña, arriskutik urtetea, aaztu eban bere agintzaria. Ostera be beste lakio baten jausirik, Apol itxi ta Hermes'egana zuzendu zan, oni opari bat eskiñi-ko eutsola agindurik. Baiña jainkoak esan eutson:

— Zuregan, zori-bako!, zelan uste ona ipiñi, zeure leen-ugazabari ziria sartu ba'dautsazu?

Ongille bategaz esker txarreko izan gareanean, zoritxarrak jo ba'gaitu, ez dogu geiago iñondiko laguntzarik izango.

### 166.—Belea ta sugea

Janari-urri ebillan bela batek sugea ikusi eban eguzkitan lo, eta aren gaiñera eldurik, airez aire jaso eban erpa artean. Sugeak, ostera, itzuli ta agin-ka egin eutson; eta beleak ilteko zorian, esan eban:

— Ene doakabe! Aokada bat idoro, ta beraugatik il bear!

Ez datorkio gaizki alegi au altxor-lapiko bat aurkitzeak erio-arriskuan jarten dauanari.

### 167.—Belea gaixorik

Gaixorik egoan bele batek bere amari esan eutson:

— Ama, eskatu jainkoai, ta ez egizu geiago negarrik egin.

Amak erantzun eutson:

— Euretatik zein, seme, zutaz errukitu? Ba-da bat-edo-bat zuk aragia ostu ez dautsazunik?

Areik bizitzan arerio asko egin dabezanak, ez dabe bear-izanean lagun-tasun aundirik izango.

### 168.—Larratxori gangarduna

Larratxori gangardun bat lakioan jausi zan, eta antsiz bota eban:

— Zorigaiztoko larratxori! Ez dautsazu iñori ostu ez urre, ez zidar, ez ezetarik gauza bitxirik; galgarau pitin bat da eriotzara narioana.

Egoki jatorke ipuin au, obari ezerezagaitik, arrisku aunditan sartu oi diranai.

**169.— Belatxinga ta belea**

Garramuraz jarri zan belatxinga belearen aurka onek gizasemeei zantzua emon oi dautsezalako, etorkizuna iragarritz eta, auxegaitik, onek testigutzat artu oi dabe; belatxingak be doai ta eskubide bardiñak beragandu opa zituan. Bidazti batzuk, bada, andik igaroten ikusiz, zugatz baten gelditu zan, garraxi izugarriak jaurtiaz. Aren abotsa entzunik, bidaztiak bildurrez biurtu ebezan buruak; baiña euroatik batek, itza arturik, au esan eban:

— Adiskideak, goazen aurrera; belatxinga besterik ez da ori; orren garraxiak ez dabe ezer iragarten.

Eta bardintsu gerta oi da gizonen artean be: eurak baiño sendoago diranakaz leiatsu dabiltzanak, ez dabe areikaz bardintzerik lortzen, baiña bai arein isekaz betetea.

**170.— Belatxinga ta txakurra**

Atenea'ri opari egiten ziarduan belatxingak txakur bati dei egin eutson opari osteko oturuntzara. Txakurrak jardetsi:

— Zer dala-ta urtzen dozuz zeure ondasunak alperreko opariak eskintzen? Jakin bear zeunke, ba, jainkosak ezesten zaitula, zure iragarkizun guztiak utsean eukiteraiño ezetsi be.

Belatxingak errepika:

— Orixegaitik ain zuzen be egin oi dautsada opariak, ba-dakidalako nirekiko aren gogo txarra: onezkoak egin nai ditut aregaz.

Era berean, gizonik askok be bardin jokatu daroe euren izterbegiakaz, bildurra dautselako.

**171.— Marraskilloak**

Lugin-seme batek marraskilloak txigortzen ziarduan. Arein zirt-zartak entzunaz, esan eban:

— Pizti kaskarrak, sutan dagoz zuen efxeak, eta kantari oraindik!

Alegi onek irakasten dau, orduz kanpo egin oi dan guztia, errezpegarri dala.

**172.— Kisne antzartzat artua**

Gizon aberats batek batera janaritzen zituan antzarra ta kisnea; eta ez asmo bardiñaz, bata kanturako nai eban, ba, ta bestea mairako. Antzarrari bere txanda eldu jakonean, gaba zan eta illunez ezin zeitekezan bereizi egazti biak, zein zan bata ta zein bestea. Antzarraren orde z kisnea arturik, onek erio aurreko kanta soiñua asi eban. Ugazabak ezagutu eban aren abotsa, eta orrek atera eban bizirik.

Zer dausku erakusten alegi onek? Musikeak sarri atzatzeka eragin oi dautsola eriotzeari.

### 173.— Kisnea ta bere ugazaba

Kisneak, diñoenez, iltera doazanean abesten dabe. Gizon batek salgei ikusi eban kismea, eta esaten entzunez kantuz abere oso eztitsua zala jakiñik, bera erosi eban. Gizonak bein aparria emoten ebalarik, kisne billa joan eta kanta egiala jan-edan bitartean eskatu eutson. Kisneak ez eban itzik oguzi. Baiña, egun batean, iltera joiala uste izanik, illeta bat abestu eban aurretiaz. Jaubeak bota eutson, ori entzutean:

— Ilterakoan bakarrik kantatu bear ba'dozu, ergel bat izan nintzan zuri, il orde, abesteko otoi egitean.

Sarri askotan orrelaxe jazoten da: gogo onez egin ez nai doguna, indarrez egitean.

### 174.— Txakur biak

Gizon batek txakur bi eukazan. Bata eizarako azi eban eta bestea bere etxea zaindu egion. Lenengoak eizara urten eta zerbait artzen ebanean, ugazabak orren zati bat etxea zaintzen egoan txakurrari botaten eutson. Eizatxakurrak, au ikusirik, agiraka egin eutson gogor be gogor bere lagunari: bera zan urten eta askotxo jasan bear ebana; bere lagunak, barriz, ezertxo be egiteke, bere irabazitik jaten eban. Txakur-etxe-jagoleak erantzun:

— Ni ez nozu origaitik gaiztetsi bear, geure ugazaba baiño; onek ba niri, lan egiten erakutsi orde, inoren lanez bizi izaten erakutsi daust.

Ume alperrak be ez dabe akarrik merezi, euren gurasoak bait dira alperkerian azten dabezanak.

### 175.— Txakur gosetiak

Txakur batzuk, erreka barruan garbitzeko ipiñi narruak ikusi ebezan. Baiña areinganaiño eldu eziñik, ori lortzeko ura edatea erabagi eben. Alan be, edan eta edan, narruak eskuratu orduko eztanda egin eben danak.

Itxaropenak eraginda, etzaitez sartu lan arriskutuetan.

*Igotz*

**BERTSOLARIAK**

## BERTSOLARIEN TXAPELKETA (1986)

Bertsolariak! Bertsolariak! Badau doai ederrik bertsolariak ditun erriak! Ez dot izaten aukera aundirik bertso-saioetan agertzeko, baiña aurren, senar-emazte begiko biri esker, izan neban aukera Anoeta-n egin zan azken saioan egoteko, eta goiz eta arratsalde benetan aukera bikain-bikaiña gure bertsolari gazteai entzuna txalotzeko. Gitxitan izan oi ditugu jai ain bete ta atsegiñak.

Lenengo ordutik bete-betea txirringa-zelai itxia, gizategi apain biurtua. Gaztez bete zan batez be. Ezta arrigarri: ikastola ta eskoletan gaur egin oi dan bertso erakusketak, ikusten da, ba dakaz bere frutuak. Andik eta kortex eta bultziz, eta oiñez, aratu ziranak ez da errez zenbat ziran esatea. Eta etziran ara eldu, egotearren bakarrik; nik aurrean neukazan mutiltxo bik, Errera-koak eurak, bertsolarien itz, kantu ta zirkin guztiak jasoten ebezan.

Bertso-jaiia zala-ta, entzule ta ikusleak pozik gelditu zirala esatea, ez da lar esatea, egia utsa bait da. Bai an egozan entzuleak, bai klean eta tabernetan aurkitzen ziranak eguerdian bazkaltzen eta gero, gertakizun ari buruzko goralpenak besterik ez genduan entzuten. Gaur marmartiak gara, edozer-gaitik miiña zoli-zoli erabilten dakigunak, eta an etzan olakorik, txapelaren aldaketari buruzko zerbait ezik. Baiña oso-osorik zaila dogu guztion gogora gauzak atontzea.

Txapelketa ortaz, aurretik eta gero, asko idatzi izan da. Merezi eban jaiak. Obariak txalotu, akatsak ezaindu. Akatsak izan ziran bai epai-maikoen aldetik eta bai bertsolarien euren jokabide aldetik be; baiña jardun, eder, zentzudun eta jakingarriaren aurrean, ondo murgildurik geratu jakuzan akatsak.

Urduri ta pozez gaiñezka ara eldu ziranen artean, bat Markiña-n irakasle dan praille karmeldar Luis Baraiazarra dozu, bertsolaritzaz bizi-bizi arduratzen dan gaztea. Oraintsu idatzi dau lan eder bat «Karmel»-en jai ari ekiñaz. Aurtengo (1986-2) jorraila-ekaiña 177 zenbakian dator, 6-garren orrial-

dean, lan luze jakingarria. Gizonki azaldu ta epaitzen ditu ango gorabera guztiak.

Nik, beraz, ari emongo dautsot itza. Gai bitan batez be: 1) Txapelketari buruzko *eritxian*, eta 2) Bertsorik *onenak* aukeratzean.

Bere uste ta eritxia onela adierazten dausku. «Azken aldiko txapelketan —diño—, bizkaitarrak nabarmendu dira, zalantzarik gabe, bertso bikain hunkigarri horietan: 1980eko txapelketan Amuritzaren «Bihotzean min dut», «Gizona ez da ogiz bakarrik bizi» eta «Aitari» egindako bertsoak guztion gogotan daude oraindik. 1982ean Idiazabal, txapelketako azken aurrekoan Lopategik «Ez naiz ni gerraren zale, baizik bakearen zale» gaiez kantatutako bertso zoragarriak, Durangon azken aurrekoan Jon Enbeitak eta bederatzi puntukoan, «Kantak dioen bezala, zer eskatzen du herriak gaiaz botatako hiru bertso gogoangarriak. Urte horretako finalean Amuritzak «Neguaren atarian agertzen den txantxangorriari» eta «Emakumeari» eta azkenez desentzutean Lopategik eta biek naufragari botatako bertso bikainak. Honelako zenbait bertso entzutean, txunditurik, benetan hunkiturik geratu naizela esateko ez dut lotsarik.

«Aurtengi txapelketan zer? —darrai—. Aurtengo txapelketan ere bertso on ugari entzun izan dugu, baina nire eritziz, ez da aurreko bi txapelketak bezain disdiratsua eta jantzia gertatu, finala behintzat. Goizeko saioa arratsaldekoa baino hobea, hala ere. Arratsaldean, azken orduan behera egin zuen txapelketak, gartzelako gaiak ez zuelako gehiagorako ematen. Inork galtzekorik izatekotan gai hartan, goi-mailakoek, sakon, sentimenduz eta lirikotasun-kutsuz kantatzeko joera dutenak. Laster igarri zuten gai hartan, berek ohi zuten bezala bertso gogoangarriak kantatzeko, han zeuden hiru bizkaitarrek ez zutela aukera handirik izango eta halaxe gertatu. Azken puntuak bertsoari bere tonua eta zera ematen dizkionez, gartzelako iharduerak txapelketari goidura eta erremate bikaina emango ziola uste genuenean, horra non egiten duen, hain zuzen ere, beherakada! Eta guztia gai petral haren erruz. Eguna zoriontsu igaro ondoren, auto batek azkenean aurpegira botatzen dizun zipristin-parrastada iruditu zitzaidan. Baina lehenxago ere zerbait arrarorik ikusiak ginen. Galdera marka beltz eta handi batez seinalaturik dut Peñagarikanok Lopategirekin izandako jokaera, benetan itsusia izan bait zen. Zer dela eta doinu aldaketa? Laguna urduri jartzeko ez bada, zertarako? Bertsolariak, ofiziotan kantatu baino lehen, doinuaz ados jarri ohi dira eta kasu honetan ere, jakin ahal izan dudanez, hala egin zuten. Baina Peñagarikanok ez zion Lopategik hasitako doinuari jarraitu. Honek, hamarreko nagusian doinu ezagun-ezagunez eman zion hasiera eta Peñagarikanok beste doinu batez erantzun...horrela egin zuten, hasi eta amaitu, saio osoa, bakoitzak bereari eutsiz. Beste aldetik, Lopategik erabiltako doinua menderatzen ez duen bertsolaririk ez dut uste izango denik, edozein bertsozalek ere guztiz ezaguna bait du. Hau azpi-jokoa izan zenik inork ezin du frogatu, eta frogatu ezin delako, ez dago baieztatzerik, baina susmagarri bai bazen. Epai-mahaiko batez edo bestez ere, agian, balegoke zer-esanik, baina hau ere frogaezina denez gero, hobe isiltzea!

«Gertakariak txapela buruz eta herrialdez aldatzera bideratu ziran. Sebastianen burura joan zen azkenez. «Neure eritzian gauza bi ditut garbi: Batetik, ez dela erraza izango orain arteko txapeldun eta txapeldun ordezkoa dauden lekutik mugitzea, herri tinkoak baitira, eta bestetik, garaileak «dena delarik ere» ongi taxaturiko bertsoak kantatu beharko dituela zortzikote horretan nagusitzeko. Ez dago zalantzarik. Txapelaren jabe egingo dena, bertsolari bikaina da». Jose R. Etxebarriak martxoaren 23ko «EGIN»en idatzitako hitzak dira. Aurrez eritzirik ematekotan, besteok ere horrelako zerbait esango genuen, ziur asko, baina ikusiak ikusiz, zalantzak ere sortzen dira.

«Merezi edo merezi gabe  
txapel eta guzti kantari»

zioen Sebastianek. Merezi baietz esan behar, inoiz goi-mailako bertsorik egin ez arren, bertso onak egin bait zituen ia beti, eta batez ere akats nabarmenik egin gabe. Hala ere txapeldun berriak —bere etorri-erraztasun eta guzti— goidurarik ez du lortzen eta arriskatu ere ez da egin, oraingian behintzat. Tirrika-tarraka bazkaria prestatzen ari zen ama zaharraren gaia, Enbeitak, Lopategik nahiz Amurizak harrapatu balute! Baina jokaldi ikusgarriak egin ondoren, tantua galtzen duen pilotariaren antzera, goizeko bakarreko gaian bi bertso zoragarri kantatu eta gero, Amurizak txapa jo zuen hirugarrenean, Lopategik arratsaldean gartzelako gai petral hartan egin zuen bezala. «Txapelaren jabe egingo dena bertsolari bikaina da» zioen Jose R. Etxebarriak. Ona dena zertan esanik ere ez, zenbait iharduera motatan oso ona ere bai, baina oraingoan —nire eritziz— bertsolaririk bikainenak txapelik gabe geratu dira eta txapeldunak, bere birtuteak ukaezinak izan arren, haien une batetako edo besteko makaluneaz baliatu behar izan du txapela jazteko».

Ondoren ango eta emengo bertsolari batzui, Txirrita ta aren bertso-idazkerari zerbait ikutu ta gero, berak eta bere eritxiz jasotako onenen zerrenda labur bat emoten dausku. Au dausku autortzen asieran: «Neure eritziazen galbaetik pasatu ditut zenbait bertso eta aukeraketa honen erantzule bakarra neu naiz».

A. Egañak, Artxandatik Bilbora begira zaude gaiari:

Begira nago jarria beraz  
zeru erditik mundura;  
Bilbo aldeak sartu du nere  
barrunbe hontan ardura,  
kez estalia ikusitzen det  
hiri haundiaren modura  
—hori da zatar itxura—  
zalantzan nago oraindik ere  
petrolioa den hura,  
hurbildu eta konturatu naiz  
dala Nerbioiko ura.

Beraz gizonak jarriak daude  
kutsaduraren esklabo;  
Bilbo aldeko biztanle denak  
martxa honetan akabo,  
kutsadurak hor ba omen dauzka  
nik ez dakit zenbat grado;  
garbia gendun lenago,  
orain zikina nagusitu da  
piskana eta gehiago.  
Erremedioa ipini dezan  
Udaletxea non dago?

Alper-alperrik hasi ziraden  
arren, arren eta arren;  
ibai zikinak goikaldetikan  
zerrikeria zekarren;  
gure hirian bizi beharko  
al denik eta ondoen;  
badaukagu nahiko kemen  
nonbait egin gura balute  
lana sobra dago hemen;  
beraz al dala bete dezagun  
giztiok ito baino lehen.

J. Sarasuak, «urte batzuk badituzu eta bakarrik bizi zara eta gaur kontu-  
ratzen zara oinetakoak lotzeko ere ez zarela gauza» gaiari botatako 2 bert-  
soa:

Gazte aroan eduki nuen  
besteak hainbat arazo,  
baina hoiei bakar-bakarrik  
nahi izan nien eraso;  
gaur zapatillak lotu ezinik  
aurrean daukat frakaso:  
maitasunikan ez nun emanda  
maitasunik ez det jaso.

Euzkitzek, gai berari botatako 3-garrena:

Zahartzaro bilakatu zait  
azken orduko ezbehar;  
hori askoren gaitza da eta  
zertarako egin negar?  
Lehen gaztea nuen gorputza  
orain jarri zait hiltzean,  
nik laprastaka jarraituko dut  
heriotz bidean zehar:  
lan egin duen gizonak ez du  
hiltzeko lotsarik behar.

X. Amurizak, «Askoren eritziz aurrerapen handiak egin ditu gizarteak. Zer diozu zuk» gaiez kantatuko lehen bi bertsoak:

Historiaren haritz zar horri  
 behar diot orain tira  
 aurrerapeneri begira  
 askori horrek begietara  
 ekartzen dio dirdira (bis)  
 pentsatzen nago lengo ibaiak  
 len bezain garbi balira  
 zer ur greskoren segida  
 LEN BEZALAXE GAUR ERE; JAUNAK:  
 len bezalaxe hiltzen dira  
 eta tankera berdin-berdina  
 daramate hilobira (bis).

Lengo mendetan piztutzen zuten  
 mendi goietan zuzia  
 —tximista ere jausia—  
 igual morroia biltzen zen bertan  
 eta berdin nagusia (bis)  
 aurrerapenik ez dut ukatzen  
 baina gauza itsusia  
 sortzen bait dago hasia,  
 zoriona ere non ote dagon  
 hori da gaurko auzia;  
 zorion hori galdu ezkerro  
 galduta dago guzia (bis).

Bigarren bertso hau, bikain-bikaina da eta gaiari bete-betean dagokiona.

Gorrotxategik, «Zeri diozu beldurra?» gaiari botatako azken bertsoa:

Beste aldean lagun batzuek  
 egongo dira entzuten;  
 ai, nik bildurra diodan hori  
 lenagotik pasa zuten  
 berriro ere bilduko gera  
 bestaldean egun baten  
 ta zuek hemen jarrai zazute  
 abertzaleak izaten.

Ofiziotako bertso bakar bat jasoko dut hemen. Hala ere aipagarrienetarikoa hauek iruditu zitzaizkidan: Enbeitak eta Muruak, Bilbon, batek hil-

kanpaiari eta besteak jaiotzak, ezkontzak etab. iragartzen zituen kanpai alaiari kantatutakoak; Enbeitak berak, soroak bedeinkatzera zetorren apai-zak Sarasua etxekandreari kantatutakoak; Amurizak eta Lopategik, bata astoa eta bestea ardotan Nafarroara zihoan astoduna ofizioan kantatutakoak; Murua fraile eta Lizaso etxeko jauna ofiziokoak. Lizasoren lehenengo bertsoa jarriko dugu:

Zakurra gertu neukan  
etxeko atian  
eta praile zarrari  
hasi atakian;  
hura hantxen zegoen  
len pake-pakian  
zu zertara zentozen  
nunbait bazekian,  
oilo lapurretara  
eske aitzakian.

Bertso bizi-bizia eta erasokorra; jarritako ofizioari ezin hobeto zegokiona. Akatsik ateratzekotan, gorago aipatutakoa aipatu behar. Lehengo hiru oinak ongi berdintzen dira elkarrekin, baita azkenengo biak ere; baina lehenengo hirurak ez dira azkenengo biekin berdintzekoak; atian, atakian, pakian (beraz, atean, atakean, pakean) bazekian, aitzakian (azkenengo hauek, bertsolari zaharrek *bazekiyan*, *aitzukiyan* egingo zituzten, haiekin inoiz nahastu gabe). Xalbadorren eritzia gogrragia izan daiteke, agian, poto egitea baino huts larriagotzat emanez; baina nolanahi ere, edozein epailak txapelketa batetan kontutan izan beharrekoa.

Lizasok, etxetik ihes eginik, Oarisen eskale aurkitzen duen anaiari egin-dako hiru bertsoak:

Ara anaia zeuk egin zendun  
ustez gustoko aukera  
eta etxetik irten zenduen  
zuk mundua ikustera;  
Parisen zaude ematen dizut  
eskale baten tankera,  
berriz etxera juaten orain  
lotsatu egiten al zera?

Ez dut kalterik hobean bila  
mundurik mundu joatiak,  
harrikeriak ekartzen ditu  
oztopo eta kaltiak;  
gizona ez du inoiz bajatzen  
galtzen ere jakitiak:  
zabalik daude aman besoak  
eta etxeko atiak.

Paris aldean daramazkizu  
egun gogor ta lizunak,  
orain aparte garai bateko  
adiskide ta lagunak;  
zoaz etxera jan eta edan  
jantzi erropa txukunak,  
hori ta gero barkatuko du  
bizia eman zizunak.

Nire eritziz, euskaran akats txiki batzuk izan arren, Lizasok bota zituen bertsorik ederrenak hauek izan ziren.

Egañaren bandoa:

Tarrapatan bandoa joaz  
beharko degu hitzegin,  
gure Udalak orain artean  
ez du askorik hutsegin;  
natura zaintzen jokatu behar  
dugu denok zintzo ta fin,  
horretan gogoz alegin (bis)  
gure herria piska piskana  
berdeago izan dedin,  
lorategiak zainduko dira  
eta berri gehio egin (bis).

Esana ongi bete zazute  
ta horrenbestean tira!  
gure agindu egoki hoiek  
papelera ez tira;  
ea usoak bueltatzen diran  
lehengo hiri eztira,  
ez da gehiegi guztira (bis),  
sano daudenak zaindu ta eri  
daudenetaz izan mira,  
animaliak zain itzazue  
gure lagunak bait dira (bis).

Ez dakit ziur gure hizkuntza  
ote dagon horren lerden,  
gure kaletan erdera degu  
jaun eta jabe nabarmen;  
gure ustetan geure hizkuntzak  
nagusi behar du hemen,  
ez ote da nahiko krimen (bis),  
damu guztiak alferrik dira  
garaia pasa ondoren:  
ikastetxetan «D» eredu  
sar ezazue lenbaitlen (bis).

Hirugarren bertso honi azpimarragarria deritzat, batez ere azken puntuan, euskaltzaleon kezkarik bete-bete erantzuten diolako.

Ehun urte bete dituen aitona bati Peñagarikanok bederatzi puntukoan botatako lehengoa:

Oindik ez da agortu  
zure iturria,  
itxaropena ere  
ez da urria;  
garai baten sasoia  
ikaragarria  
orain buru makurka

aiton elbarria,  
len zendun irria  
orain izurria,  
kezka ta larria  
ta istilu gorria,  
zartzea hain da gauza  
penagarria (bis).

Eta azkenerako utzi ditut, nire eritziz, txapelketa honetako bertsorik onenak. Sentimenduz eta fintasunez beterikoak, benetan gogoangarriak: J.

Enbeitak, etxetik ihes egin eta Parisen eskale aurkitzen duen anaiari zortzi puntukoan botatakoak:

Igesi zendun, anai maitea,  
zuretzat izan da hau kaltea;  
juan zinandik zure sendia  
dago malkotan betea,  
zu horrela ikustea  
benetan dugu tristea,  
nahi nizuke esatea  
hobea dela anai artean  
beti esku ematea.  
Zatoz nerekin berriz etxera,  
zabalik dago atea.

Izango zendun zuk hainbatekin  
sinisten dizut buru ta begi,  
baina orduko aitu ezina  
betirako galdu bedi;  
ez dakit zendun zilegi  
horrela ezin da segi  
ta atsekabe gehiegi;  
gaztea zara ta bizia  
etzazu hola eskegi:  
hemen naukazu, biok batera  
emango dugu aurpegi.

Destinoaren ezten zorrotza  
hain hurbila ta horren arrotza,  
sarri nagusi izan nahi eta  
bilatzen dugu morrontza,  
igestearen mingotza  
gehienetan dugu hotza;  
baina arren ez zaitez lotsa,  
zure etxean maite zaitugu  
egiten dizut aitortza:  
etorri zaite lertu orduko  
zure amaren bihotza.

J. Lopategik, zabartegira erropa zaharrak bota eta haiek hartzen ikusi zuen behartsuari bederatzi puntukoan botatako bertso bikainak:

Erropa zar hoiekin  
etxean nengoen,  
beti jantzi ohi naiz  
al denik ondoen;  
akaso bota ditut  
behar zen baino len,  
baina ondorioa  
horra hor nabarmen;  
triste nago zeren  
aitona zar horren  
jokoa gaur zer den  
ikusi ondoren,  
miseria gehiegi  
daukagu hemen (bis),

Besteok sarri juergan  
egun eta gaba,  
eta zuretzat berriz  
hainbeste traba;  
nere etxe ondoan  
jo duzu aldaba.  
Hau da nere bihotzak  
dakarren algarra!  
Ta hori non hara  
nere abiada,  
justizirik bada,  
zu hola nola laga?  
Nere traje onenez  
jantziko zara (bis).

Triste ikusten zaitut  
 aitona izanik,  
 gaizki hartu zaituzte  
 egia esanik;  
 zer eman nezake nik  
 zuretzat nigandik?  
 Ez nuen uste kasu  
 hori inon zanik;  
 har zazu dohainik,  
 ez eman ordainik,  
 bihotza jadanik  
 lertua daukat nik:  
 erropa gehiago ere  
 badut oraindik (bis).

Zein eritxi ta zein bertso oberenen aukeratze, auxe dozu L. Baraizarra-  
 ren galbaeak egin dauna. Anoeta-n, Bertsolarien Txapelketa finalean, ikusi  
 ta entzun zanari begira, uste dot, zentzunez eta irizpide sakon egokian oso-  
 tua dala aldatu doguntxo au. Onako gaietan esku-aldeka jokatu oi da geie-  
 nik, baiña karmeldar gaztea ez da olakoa, bakotxari berea, mindura ta azpi-  
 kerri gabe, emoten dakiana baiño. An parte artu eben bertsolari guztiak ai-  
 patzen ditu, naiz-ta guk banaka batzuk bakarrik emen jarri.

*Aita Onaindia*

## GABONAK (1985)

Kalez-kale zorion  
emanez elkarri; (bis)  
kanta-algaraz  
nahi dugu, beraz,  
Gabon iragarri. (bis)

Beti bezala apain  
alaituz begia,  
aurtengo Gabon festak  
hemen daude ia.  
Denok pozez jartzea  
da umeon lehia,  
etxetara zabaldu  
Eguberri deia. (bis)

Jaiotzak betetzen du  
egun hau urtero,  
erregaluz beterik  
dator Olentzero;  
Gabon ta Urteberri,  
Erregenak gero...  
jo dezagun pozarren  
soinu ta pandero! (bis)

Belengo Umetxoa  
da gure altxorra  
zeruak eman digun  
maitasun sarkorra;  
entzuten ari gara  
musika jatorra:  
Aingeruen txirula,  
artzainen danborra. (bis)

Umore freskoz dator  
haize hozkirria,  
ea loratzen zaigun  
ahoan irria;  
jolasti-aurpegiaz  
hor Eguberria,  
ariman egin digu  
pozezko zirria. (bis)

Laster garai hobeak  
badatoz, agian  
Gabonek piztu duten  
zorion argian,  
herrientzat bakea  
batasun harian,  
hori nahi genuke guk  
jaion atarian. (bis)

*Luis Baraiazarra*

**TOLOSARUNTZ (1981)**

Agur, Foru Uri-buru zarra,  
 tori, lore sorta hau,  
 ametsetan zeuri ostua, biotzak,  
 itzultzea beartzen nau.  
 Gauaren errainu ixil, beltz,  
 lotsati antzera,  
 zure kondaira jardinean, ixil, ixil,  
 aurrera, atzera,  
 ibiliaz artu ditut, lau, bost, lora,  
 zeuden mila...  
 zuk jaulkitako euskal azia, orra or,  
 Aberri bila.  
 Izaskun, Urkizu, zure seaskaren  
 bi egal,  
 egaletik ongi lotuak, izadi oialak  
 dagizu magal.  
 Magal sakonean, Oria erreka,  
 joan aspergabean,  
 odola bailitz dabil, sartu, irten, zure sabel  
 bular bitartean.  
 Gogamen egoak arrotuz, ibili naiz  
 eusko-zeruan zear,  
 asko dira seaska polit,  
 atzera zu bakar.  
 Bainan, zure lorategian, euskera, jakintza,  
 Aberria, ta abar,  
 ederrez, zu bezin eder dira,  
 ez ain euskotar.  
 Inguru erriska, sotil, apalak,  
 zure kerizpean,  
 aurrak Amari lez koita kontari  
 euskera ederrean.

Kerizpe hortan, napar zati bat  
 ere bai,  
 zuri esker, euskotar somatzen da,  
 gure anaia.  
 Gizonen batzar leku gainena,  
 peri enparantza,  
 lur-lan gogorren, eten une labur merezia,  
 astelen arratsa.  
 Bei, abere, tramankulu  
 eta zenbat tresna,  
 salerosketa jator, edo ta...  
 azpijoko nabarmena.  
 Andrezkoak berriz, larunbat goiza,  
 azokaren biran,  
 (eusko barazki ederrenak saltzen,  
 kaletarren aukeran.  
 Inoiz arro, inoiz umil, sorgin aizea edo...  
 itza parra parra,  
 nor etorriko zai, bete ametsez  
 diru poltsa zimurra.  
 Gezurtxoak noiz behinka, edo...egi erdiak baldin...  
 bearraren leiatila,..  
 auen bultzaz daga jira,  
 baserri diru-kurpila.  
 Igandez zezen enparantza,  
 euskal erletegi,  
 kirol-itsasoan arraunlari trebe  
 iru belaunaldi.  
 Erri honek, mendez mende dakarren  
 odol-ontzi irakina,  
 arria jaso, aizkoraz erdibitu,  
 pago-enbor muina.  
 Egungo lantegi, ogi bide bakoitza,  
 kirol mota berezia,  
 sarri auen bidez epaitu bear  
 auzo, errien auzia.  
 Trebetasun ispillu, lanaren  
 aurkezle  
 egizko eusko arrazaren  
 sukalde.  
 Orra, «Tolosa», zure magalean,  
 or,  
 inguru errien burrundara,  
 peri, azoka ta kirol.  
 Erriska hauen piper ta gatz  
 zure golda zulora,

zuk, jakintza urez, busti Aberri zainak,  
ezkotu lurra,  
jarrai zure lumaz, Aberri kondaira  
edertzen,  
ez utz, zure idazle arrobia,  
agortzen.  
Erein azia, landatu lorak,  
eusko baratzen,  
geroan, Olerkiak zuretzat  
lore txorta ar dezan.  
Amets gau ibillia, nai nizun eskeiñi,  
Foru Uri-Buru zarra, gorasarre  
zuri.

*Beloki'tar Agustin*

## UDABERRIA MENDIAN

Udaberrian goizian goizik  
 Utzirik neure auzoa,  
 Mendi gañean aurkitutzen det  
 Giro paketsu gozoa.  
 Alde batetik, begiz aurrean,  
 Amarik ez dun basoa,  
 Bestetik berriz sasi artean  
 Txor-txorka kantuz zozoa  
 Gizonarentzat ementxe dago  
 Zoriontasun osoa!

Udaberriak ekarri digu  
 Giro osasungarria,  
 Eta mendian sortzen asi da  
 Orain bizitza berria.  
 Zuri jantzita ikusten degu  
 Bidexkako elorria,  
 Zugaitzetara begiratuta  
 Aldar danetan orria;  
 Esango nuke, emen dagoela  
 Amets danen iturria.

Udaberriko ego aizeak  
 Garbiturikan mendiak,  
 Berdez jantzita agertzen dira  
 Goian dauden belardiak.  
 Muño-maldetan nun-nai bazkatzen  
 Moxalak eta ardiak,  
 Maitemindurik elkar muxuka  
 Zugaitz gañetan txoriak,  
 Ze edertasun ematen dion  
 Bizitzari izadiak!

Tontor batetik begira nago  
 Au gauza zoragarria!  
 Abere danak gogoz ari dira  
 Billa nairik janaria.  
 Belar goxoak miaxkatutzen  
 Erbiño jostalaria,  
 Arkaitz gañetik eizean dago  
 Txori arrapalaria,  
 Ta gardo moltzo baten gañean  
 Kardantxillo kantaria.

Bizi bearrak egiten ditu  
 Denak lanera beartu,  
 Orretxegatik janari billa  
 Gogotik dira saiatu.  
 Txoritxikiak dagozkieten  
 Janariak aukeratu,  
 Katamixarrak orbellartian  
 Eskur zarrak billakatu,  
 Erleak berriz banan-bananka  
 Lore guztiak dastatu.

Eguzkia ere nola sartu dan  
 Goiko gallurren osteria,  
 Lenago argi zeuden tokiak  
 Beltzez dijoaz jaztera.  
 Illundu baño lenago nua  
 Mendi maiteak astera,  
 Emen dituzun edertasunak  
 Berriz ere ikustera,  
 Eta jarraian lengo bidetik  
 Neure auzora jeistera.

*Jose M.<sup>a</sup> Azpiri*

## BROUARD TAR SANTI

Izar haundi bat itzali jaku  
 Beraz milak piztutzeko  
 Ilunik dogun Euskal Herriko  
 Zerua argitutzeko.  
 Argian bila dabiltzazanei  
 Argi bide bat sortzeko  
 Brouard tar Santin jokabidea  
 Hor dogu eredutzako  
 Argi biderik onena baita  
 Gure garaitza lortzeko

Ezker ta eskubi anaitasunez  
 egiten zenduzan hartu  
 Haurrak osatu eta maitatu  
 Euskal giroan jorratu  
 Euskal baratzen emaitza zinan  
 Lore asko zendun sortu  
 Zure garaitzan jokabideaz  
 Etsaiak ziran bildurtu  
 Eta martiri hil zinduezan  
 Gero eskuak garbitu

Gudal buru bat hola hiltzea  
 Etsaiak ondo hartu du  
 Baina Santiren gudarosteak  
 Bildur gabe jarraitzen du  
 Hil eta gero tamal agurrak  
 Nahiz ta dabezan bidaldu  
 Santi nork hildun ez dogu zertan  
 Gonzaleztarrei itaundu  
 Eskuak zertan garbitu ez dira  
 Egin ezian zikindu

Santi izatez apala gendun  
 Borondatetsu ta umil  
 Baina herriko gora beheratan  
 Beti argi eta abil  
 Santiren jokabidean gaur be  
 Herria burrukan dabil  
 Bere heriotzak itxartu ditu  
 Andre, gizon, neska, mutil  
 Gudal buru bat hil dabe baina  
 Gudarostea ez da hil

Martiriaren odola dogu  
 bihar-etzikoko garaitza  
 Herri bizien espiritua  
 Eten gabeko emaitza,  
 Negu ta uda loretan dagon  
 Agortzen ez dan baratza  
 Herri hau hilda ikusi guran  
 Etsaia, alper zabiltza  
 indarrez ez dok lur bihurtuko  
 Aberri baten bizitza

Santi zanaren heriotziaz  
 Etsaia ez zaitez poztu  
 Bere odolez busti zan lurra  
 EUSKADI dala ez ahaztu  
 Lotan ziranak itxartu ditu  
 Erdi gaxoak osatu  
 Herriak orain Santiren lana  
 Egin orduan ezautu  
 Berak bezala askatasuna  
 Egiten dogu eskatu

Hobiratzian herri osua  
zenduan zeure inguru  
Zure iraultzan barruan bazan  
Itxaropenaren Zeru  
Santiren nahia beteko dauzku  
Herri burrukak seguru  
Esaten eban askatasuna  
Dogula geure helburu  
Gizon Euskotar jokatziaz  
Hori jaritxiko dogu

Ez dira inoiz lur bihurtuko  
Brouard tar Santiren lanak  
Martiri baten heriotziak  
Argi dakuztaz ilunak  
Goroto beltza makaltzen daki  
Eta sendotu gizonak  
Gizon euskaldun eta abertzale  
Beti aurrera Euskaldunak  
Helduko dira sendiak aske  
batuko geran egunak

*Enbeitu'tar Balendin*

## BIZITZAREN HIBAIAN

### 1) «ZAITEGI» ZENARI

Lan hau hartzean gogoan zaitut  
bihotz-bihotzez «Zaitegi»,  
zure lanean arkitu baitut  
arrazoi asko ta egi,  
garai haietan lore xortarik  
euskaraz ez zen zilegi,  
basamortuan euri gozoa  
behin ere ez da gehiegi,  
bainan ondoren Euskal Herria  
bihurtu zaigu orlegi.

Urte zailetan zaiatu zinen  
euskaragatik lanean,  
esker on gutti arkitu arren  
euskararen magalean,  
«ezertarako eztanik ezta»  
eta jarraitu lehenean,  
zuk ereindako haziak frutu  
eman du gaur egunean

«Zaitegi»k ongi zekien nola  
bere senari aditu:  
lanik zailenak apalki hartu  
ta garaipenez gainditu,  
nahiz ta euskara larrekoa ta  
basati samar aurkitu  
goi mailetakoa ikaskizunez  
zigun erabat ornitu,  
beraz Unibertsitatearen  
omenak merezi ditu.

Euskaraz landuz jarraitu zuen  
gutietsiaz piztiak,  
landu zituen luma bizkorrez  
olerki ta idaztiak;  
bere lan hauek arkitu ditut  
alaiak eta eztiak,  
hizkuntza erraz eta oparoz,  
jakingarriez betiak,  
ta hasiz gero ezin baztertu  
bukatu gabe guztiak!

Erliziozko gaiak lantzean  
maisu agertzen da sarri,  
ikuspegia bere lanetan  
izan zen eredugarri  
ba zekien ta gauza zailenak  
euskaraz nolatan jarri,  
ta bere lanak irakurririk  
maiz gelditzen naiz egarri,  
berazen uso mandataria  
eta gu gara elbarri.

Grezi aldeko idazleetaz  
sarri euskaraz jarduna,  
heuren jakintza gureganatzen  
ahalegindu zen zalduna,  
berari esker euskara dugu  
Greziko jakintzaduna  
Platonen lanak euskaraz jarritz  
egin zaigu ezaguna,  
beraz izan da euskara gora  
igo duen euskalduna.

## 2) BAT-BATEKO MAITASUNAREN GEZIA

Gogoan izanen dut  
nik gaurko eguna  
ustekabeen elkar  
ikusi duguna  
— «Orain arte zatzaizkit  
txit ezezaguna,  
bainan maitasuna da  
hurbildu zaiguna,  
gaurtik izan nahi duzu  
zuk nere laguna?»

— «Zugatik gezi bat zait  
bihotzean sartu,  
neure mina ta kezka  
nahi ditut baztertu,  
bainan ondoren zaizkit  
barnean indartu  
gau ta egun zugandik  
ezin naiz bakartu,  
odola darit eta  
begiak bihurtu».

Maite dut eta daukat  
barne zoramena,  
— «asko esan nahi eta  
ezin dut laurdena  
apirileko lore  
garbi ta lerdena  
maitasun hutsa zara  
uso alaiena,  
zurekin izan ezik  
alferrik dut dena».

— «Ezin ditut ahantzi  
aurpegi ta sama,  
zure hitzaren zai da  
nik daukadan drama,  
bere erantzunean  
zortea darama,  
bizitza guztirako  
zori edo zama,  
esan: izan nahi duzun  
neure haurren ama?»

— «Zuk ikusi orduko  
barnean dut poza,  
ezin daiteke hori  
beste eran goza,  
lorerik ederrena  
zu zara arrosa,  
zu gabe nik bizitza  
ez dezaket osa,  
berriz noiz entzunen dut  
zugandik abotsa?»

— «Irrifar gozoa ta  
maitasun ezia  
zure ondoan ez da  
inoiz garestia,  
udaberriko lehen  
txori abestia  
zugandik entzun nahi dut  
abots amestia,  
agudo elkartzeko  
har zazu hastia».

## 3) MARGARI ZENARI MINBIZIAK JOTA HIL ZEN EGUN BEREAN

Minbizia da mundu hontako  
gaitzen artean txarrena,  
gazte ta zahar erori eta  
usteltzen die barrena,  
izena bera egoki dela  
esan behar dut aurrena,  
gaitz horretatik libra gaitzala  
Goiko Jainkoak hurrena.

Nere bihotzeko laguna daukat  
minbiziz hilda ondoan,  
argiro dauzkat zu zineneko  
oroipen asko gogoan,  
kontu gozo ta farre alaiak  
zenitun beti ahoan,  
ta hilda gero jarraitu nahi dut  
oraindik zure alboan.

Ogeitamaika urte izanez  
bizitza dizute moztu,  
nahiz atzo izan bitxilorea,  
gaur zimel eta izoztu,  
uztabiltzaile kaltegarriak  
berriz sega du zorroztu,  
ta bizitzaren ederrenean  
merezi gabe ohostu.

Pixkat lehenago bizia zinen  
ta orain lo hartu duzu,  
zu aldeginda hemen lurrean  
negarrez utzi gaituzu,  
alde hontatik bidaltzen dizut  
dezakedan hainbat musu,  
zure ondoan guri leku bat  
aukera iezaguzu.

Bere gorputza hemen daukagu  
biziko balitz bezala,  
bainan joanda hemen utzi du  
bere biziko itzala,  
azken agurra bidaltzen diot  
denok negarrez gaudela,  
mundu honetan izan ez duen  
zerua arki dezala!

Bere lagunek lore gorriak  
eta koroia dakarte,  
tristerik gaude ta begietan  
negarra ez da aparte,  
ezin baitugu gure artean  
errez hautsi zenbait kate,  
hauxe bakarrik esaten dizut:  
— «gero han ikusi arte».

#### 4) LANTEGIAK IRAUN ZEZHAN LANTEGITIK BIDALI NINDUTENEAN

Industriak lur jo du  
ta ez dago lanik,  
muturra hemen dugu  
baino ez buztanik,  
gauza gaizki jarri da  
herrian jadanik,  
eta ez dut ikusten  
hobeko afanik.

Lanik ez dagolako  
bidali kanpora,  
sobera zegoena  
bota edonora,  
«lantegiari eutsi  
behar zaio gora»,  
eta ez zaie inoiz  
langilea gogora.

Lanik gabe nago ta  
ez dakit zer egin,  
aspaldian bilatzen  
egin dut ahalegin,  
ta alferrik gehiago  
ezin dut eragin,  
ez dagoen lekutik  
ezin da jaregin.

Ogeitalau orduak  
pasa ametsetan,  
lanik ez egin eta  
hor jardun hizketan,  
ez da giro izaten  
etxe anitzetan,  
diru gabe jatera  
joaten denetan.

Umeak negarrez ta  
andrea aserre,  
gaur ere txuletarik  
hemen ezin erre,  
pisua ordaintzeko  
ezin eman aurre,  
ezer guttiz lotara  
joan behar gaurre.

Lana txarra ornen da  
eza okerrago,  
gogo gutti daukana  
gero alferrago,  
diruaren aldetik  
askoz beharrago,  
eta era berean  
beti ankerrago.

## 5) FARRANDARI BATI BERTSOAK

Farrandariaz bertsoz  
ekin nahi dut orain,  
nahiz eta dena esan  
horri ezin irain,  
beti jazten badaki  
markes bezain apain,  
koloniatik ere  
nahi dun haina usain,  
nahi badu kapitain  
horrek badu dohain,  
aurpegia lirain,  
ta bizi nahi bikain,  
bainan zor dituenak  
ezin du ordain.

Goizean jeiki eta  
gosari ederra,  
arraultza frijituta  
kilo erdi xerra,  
ez zaio gogoratzen  
eginiko zorra,  
bainan hango zerrenda  
ez daiteke borra,  
dirudi jatorra,  
eskatuz oporra,  
badula altxorra,  
ez dena agorra,  
tabernariak ezin  
hori izarra.

Eguerdi aldera  
joan edatera,  
batetik irten eta  
gerago bestera,  
inbitatu artean  
badauka aukera,  
kontuak esateko  
denbora sobera,  
ez joan nahi etxera  
bainan libre bera,  
ordain gabe gera,  
nork hartu tankera,  
non ikasi ote du  
honek karrera?

Arratsaldez siesta  
al den luzeena,  
ia ilundu arte  
jeikitzen ez dena,  
noizbait jeiki ta gero  
orraztu melena,  
al duen bezain ongi  
konpondu barrena,  
jan-edan aurrena,  
hobe besterena,  
janaz askorena  
gizon alaiena,  
hori erretiratu  
baietz azkena.

Etxetik irten eta  
agur edonori,  
denek diote honi:  
«zer moduz berori?»  
denbora gutti barru  
tabernan erori,  
kartetan jokatzeko  
prest egonaz hori,  
kartak eman «tori»,  
jokatu nahi zori,  
margoz dago ori,  
zortez beti jori,  
iruzur eginaz nahiz  
ez izan sori.

Irabazitakoaz  
denei inbitatu,  
gainontzeko diruaz  
neska bat bilatu,  
etxe onekoakin  
gehiago saiatu,  
altxorra baduela  
inoiz ez ukatu,  
gezurra loratu,  
al badu zoratu,  
hitz gozoz goratu,  
nahiz enamoratu,  
eta erreza balitz,  
ba oheratu.

## 6) AMARI

Ene amatxo bihotzekoa  
bertsoz nator zuregana,  
barka nazazu garai batean  
hainbat nahigabe emana,  
zu izan zinen ttiki nintzela  
zaindaria eta jana,  
aspertu gabe egin zenuen  
nigatik hainbeste lana,  
bizi artean izanen zara  
beraz maite zaitudana.

Ume nintzela hainbeste gautan  
jasan zenuen itzarri,  
kexu guztiak nondik zetozten  
aixa zenuen igarri,  
ta zerbait faltan aurkituz gero  
berehalaxen ekarri,  
zurekin pasa ditut hainbeste  
gau ta egun zoragarri,  
zu izan zara merituz beti  
famiako oinarri.

Zu izan zara gutti jasota  
denontzat beti emaitza,  
zure ondoan ez dut beldurrik  
nahiz beltza izan ekaitza,  
hainbat urtetan zurekin ez dut  
ezagutu zorigaitza,  
nahiz hala izan agertu ohi naiz  
gaiztoa eta hezkaitza,  
urraduraren harea naiz ta  
zu zara berriz harkaitza.

Oparotasun eta ondasun  
denen iturri gardena,  
izan daitezken irudietan  
izan zara ederrena,  
begirune ta maitasunean  
beti zu zaude aurrena,  
goibel uneak iritxiz gero  
denetan zu alaiena,  
eta abesten zenidan apal  
haur kantarik goxoena.

Gaurko egunez lore xorta bat  
eskaini nahi dizut bertsoz,  
inolaz ere ez naiz ahazten  
zure begirada gozoz,  
ta damuz nago txorien gisa  
habia uzteko jazoz;  
nahiz eta egon lanpetu eta  
bete-beterik arazoz,  
bihotzez barka ta har itzazu  
zure onarketa osoz.

Eskertzen zaitut bihotz-bihotzez  
maite izan nauzulako,  
bainan oraindik askoz gehiago  
ni sortu ninduzulako,  
zure bularren esne gozoa  
ematen zenidalako,  
gaixo unetan itxaropena  
ematen didazulako,  
eta hitz batez zaren guztia  
dohain eman duzulako.

## 7) NAGUSIA ETA LAPURRA

Nagusiak: Adi zak mutil lapurra  
emanen diat egurra,  
zer ote habil leku honetan  
sartuta sudurra?  
botako diat zakurra  
hau ez baituk hire lurra,  
bainan lehenago hautsiko diat  
agudo muturra!

- Lapurrak: Erruki nagusi jauna  
eta entzun erantzuna,  
hala ta guzti izan nahi diat  
nik hire laguna,  
hi haiz hemen diruduna  
bainan ni nauk goseduna,  
bana ditzagun bion artean  
sobratzen zaiguna.
- Nagusiak: Batere ez duk lotsarik  
ezta gizonen trazarik,  
inoiz ez diat entzun esaten  
holako gauzarik,  
lanean ez duk presarik  
ta nola ukan sosarik,  
hi bezalako alferrentzako  
ez zioh ahizarik.
- Lapurrak: Nahiz eta hi joan aurregi  
bazekiat zenbait egi,  
aberastu haiz langileari  
ostuaz gehiegi,  
hau ez duk inoiz zilegi,  
altxorra duk beteegi,  
ta berdintzeko oraindik hartu  
diat gutiegi.
- Nagusiak: Lapur denen nagusia,  
esana duk itsusia,  
iruditzen zaik hire antzeko  
ote den guzia?  
hau beraz ez duk hauzia,  
non daukak irabazia?  
heure lanetik eginikotik  
elika bizia!
- Lapurrak: Beti bizi haiz oparo,  
lan guttiz diru naharo,  
eta ni berriz lantsari urriz  
ezinik igaro,  
era honetan luzaro  
asperturik nauk zeharo,  
ez diat ostuko lantsari on bat  
emanaz ilero.

## 8) ARRANTZALEARI

Itsasoko langile  
asko sufritua,  
hamaika gau ontzian  
hortxe argitua,  
zutaz pentsatu eta  
nago ukitua,  
inork baldin badu, zuk  
duzu meritua.

Diru piska batgatik  
saldu duzu dena,  
herriko giroa ta  
etxeko gehiena,  
hainbeste egunetan  
itsasoz irtena,  
gogoratzen al zaizu  
etxekoen pena?

Errezatu ohi duzu:  
«libra ekaitzetik»,  
bizi nahia ukanez  
arrainen atzetik,  
berdin da gauez edo  
goizean goizetik,  
nekez ateraz frutu  
leku zikoitzetik.

Leku ttiki batean  
uraren ertzean,  
urez inguratutik  
aurre ta atzean,  
bainan poz hartzen duzu  
zure bihotzean  
itsas egazti batzuk  
zuri hurbiltzean.

Itsasoko gizonen  
bizikera latza,  
ezin esan den eran  
izan da garratza,  
betiko olatutan  
zainduaz balantza,  
eta motore hotsez  
daukazu arantza.

Itsasoak zu zaitu  
bihurtu zakarra,  
zeren eta ez duzun  
begietan farra,  
bainan eskertzerako  
zu zara bakarra,  
zuk baituzu itsasoz  
ibili beharra...

*Jose Antonio Gesalaga*

**IRITZIAK**

## SABIN MUNIATEGI'REN OLERKIAK

Sabin Muniategi'k olerki bilduma bi daukaz argitaratuta: Goiz-aize, 1936 garrenean (Bilbo'n), eta Bidean gora, 1970 garrenean (Bilbo'n). Arrezkero Olerti'n eta *Karmel'en*, batez be, argitara ditu ainbat olerki (1). *Goiz-aize* «Lauaxeta»k aurkeztu eban, bere «Aúre-itza» lerroetan benetako ta aparteko olerkari baten sortzea iragarritz. Bidean gora bildumari S. Onaindia'k jarri eutson «itzaurrea». Lenengo bilduma be gogoan izan arren, ikerketa onek Bidean gora eta geroko olerkiak aztertzen ditu. Oneek dira bere emoi eldua. Lenengo aek, naiz ta gero aipatuko dogun berezitasuna izan, saio ta agintzaria ziran bakarrik gerorakoen aldean.

---

(1) Sabin Muniategi Astorkia, Gautegiz-Arteaga'n (Bizkaia'n) jaio zan 1912 garrenean. 1929 garren urtean Filipinas'era aldatu zan. Bost urte igaro ebazan azukera-kaiñabera arteko lanean. «Emen asi nintzan lenengoz euskeraz idazten. Aldi onetako olerkiak, itzulpenak 22 ta beste 20 neureak, bildumatu nebazan liburu antzera ezarririk *Biotzeko lorak* izena, ta emen dirae oraindik neugaz neure lenengo zirriborruak» (Idazlearen kartan). Orain Donosti'n bizi da.

Zoritzarrez jakiña izan ez arren, aundia da bere olerki alorra: asko ta asko bere argitaldu bako olerki bildumak.

Zabala da bere itzulpen lana be. Liburu oneek euskeratuta daukaz: Oscar Echeverri Mejía'ren *Las cuatro estaciones*, Pablo Moraren *Almácigo*, Jorge Marel'en *Nocturnos del mar*, Dora Echeverri de Castellanos'en *Hiroshima*, Renata Durán'en *Muñeca rota*, Rafael Alberti'ren *Sobre los ángeles*, León Felipe'ren *Antología rota* (ainbat olerki), Dionisio Aimará'ren *Viendo la noche*, Helcías Martán'en *Encadenado a las palabras*, Manuel Moreno'ren *Las llamas de la sangre*, Otón Chirino'ren *Vísperas de la Luz*, Víctor Manuel Crespo'ren *Huellas son camino* eta *Piedra viva*, Andrés Athilano'ren *Las esmeraldas del Duida*. Liburuotatik azkenengoa bakarrik dago argitaratuta. Gero, beste olerkari askoren olerki soltuak euskeratu ditu: J.R. Jiménez, Juana de Ibarbourou, Manuel Altolaguirre, Pablo Neruda, Magda Stella, Endre Ady, Unamuno, Salinas, Del Hierro, Rizal, García Lorca, Mireya Robles, eta abar.

Itz lauzko itzulpenak: Gabriel García Márquez'en *Historia de una muerte anunciada*, Gabriela Arciniegas'en *Una casita en el aire*.

Ipuin ta artikuluak be baditu.

Aldizkari oneetan idatzi izan dau: *Euzkadi*, *Euzkerea*, *Tierra Vasca*, *Olerti*, *Karmel*, *Agur*, *Zeruko Argia*, *Goiz Argi*, *Zer*, *Príncipe de Viana*, *Kurpil*, Filipinas'eko *La Opinión*, Colombia'ko *Esparavel*, Venezuela'ko *Poesía de Venezuela*.

## I. POESI-GAIAK

### 1. Bizitza.

Muniategi'ren poesia, geien baten, gai oneen inguruan dabil: bizia, beti-kotasuna ta aldia, izadia, maitasun-anaitasuna. Bizia edo bizitza da gairik zabalena eta beste guztiak barruan artzen dituana. Beste edonok be nai-ta-nai-ez darabillan gaia dala erantzun leiteke emen. Baiña Muniategi'k, laster ikusiko dogunez, bizia ta bizitza bera, bere osotasun ta batasunean, dau gaitzat. Jakiña, baita bizitza barruko beste gai partikularrak be. Baiña sarritan bizitza bera, eta bakarrik gai partikularrak. Eta bearbada sarriago oindio, gai partikularrak ikutzean, bizitza misterioa edo bizitza esperientzi osoa aurreratzen da, edo orizonte lez atzean geratzen da. «Gaia» diñogu, berbaren bat erabilli bear dogu-ta. Baiña ez da, poesi aldetik, gai otz eta neutroa, poesia gai orren ondoan edo gainean, geroago, jarrita ba'lego lez. «Bizitza» bere osotasun ta misterioan da poesi-esperientzia Muniategi'gan. Beste gai partikularrak olerkariaren adimen-sentimena gai sakon orretara daroez. Olerkaria dardara geratzen da, «bizitza» (barruan, gogo-biotzez) diñoanean; bere ederrak eta zadorrak eta nekeak dardarazo egiten dabe eta olermena biztuten. Edozein gizonek sentidu bear dau, une batzuetan, bizitza aurreko dardara au; baiña olerkariak beste sentimentuakaz batera ederra be asmatzen dau esperientzi orretan.

Bidean gora bildumako lenengo olerkia (agur-olerkia) «bizitzako/margo argi» itzez asten da. Bigarren olerkian «biziminduzko bidegintza» aurkitzen dogu. Irugarren olerkian izena bera «Biziratze» dogu: «une guztiak biziz/biziratu zaitez gogoz, bizi-barrenez»...«Bizi biziaren ondasunak eskuratuz»... «Bizi bai, biziaren ederrera esnatuz»...«izateari darion poza zeuganatuz».

Munduko izaki eder batzuk aipatzen asten da, baiña gero olan apurtu bear dau izendatze lerroa:

Bizia da bizi-min,  
bizia lur ta urez,  
bizia goi ta, makur,  
bizia bai, egamin (Miraripean,

Olerti, 1980,70).

Olerkariarena arnas andiko poeman be lenengo deia auxe da: «Oi, atozte bizira!» (Bidean gora, 54). Baietza olerkian biltzen dira bizitzaz ia idea ta sentipen guztiak:

Bizi Izatearen ederra!  
Aizearen ego, eguratsez,  
uraren betiko ioanez...  
zelairik zelai, ibarrez,  
une bakoitzeko etortez,

itxasoa, zerua, lurra  
argi ta margo leiaketan  
eguntzen diran betimiñez!

Ai! Nola ez! Bai, nik baietza  
baietza damaiot izateari,  
baietza damaiot biziari,  
esker onezko igarotzez  
aintziñatearen aintziñatez  
bere zauri ta atsegiñez,  
aunitz mende ta gizaldien  
zuztarpe ta burubidean  
izakizunez oñarritu,  
ta, biziz, nortzen gaitun arnas,  
eguneroko itzartzeari!

(*Olerti*, 1983, 183).

Olerki au nahiko litzateke Muniategi'ren olerkigintza, bere muiñean, aztertzeke (ez, jakiña, bere aberastasun guztia ezagutu ta gozatzeko). Emen bizi izatearen ederra asmatu ta kantatzen dau. Poesiak beti be «ederra» sortzen ta azaltzen dau; baiña ez beti ederraren ederra, falta denaren edo erdi-agertzen danaren, itxaroten edo erdi-asmatzen danaren ederra baiño. Emen biziaren ederra jatorko olerkariari aurrera. Eta betetasun ori emoteko errealidade atsegin batzuk aipatzen pitu: aizea, eguratsa, uraren joana, zelai, ibar...argi ta margo leiaketan; lenengo aapaldi onetan biziaren lekua, espazioa zabaltzen dau. Bigarreanean, ostera, biziaren aldia: aintziñatea, bere zauri ta atsegiñez, nortzen gaitun leenaren arnasa. Lenengo aapaldia azalekoagoa da. Alan be «betimiñean» amaitzen da. Eta orrela bigarren aapaldian sartzen gaitu: giza-igarotzean eta giza-aintziñatean; geu eratzen gaitun gizazko leena dau orain olerkariak biotzaren orizontean. Eta baietza damaio biziari, besarkatu egitn dau. «Bizia baita danetan ederren!» (Gau argi zerutsu batean, *Bidean gora*, 62).

Bizia bere ugaritasun zabalean agertzen jako olerkariari; orain emondako olerkiak be erakusten dauku ori. Baiña edonon ikusi geinke; aipatu daiguzan Bizi-gorupen olerki aske luzearen lenengo bertsoak:

Gora, aupa bizitzaren emaitasuna!  
Bai lur,  
bai itxasoz  
eta, bideetako goiz-arrats ibilgarritz,  
bizitza dan guztia  
norbereka,  
atz-begietan  
betikoz,  
egamin;

bakoitza bere izakera  
adur,  
bere eresiz;  
bakoitzaren biotz-muin,  
goi berezia,  
amets-ikutuka,  
gogora ekarriz.

...

(*Bidean gora*, 105).

Eta emen be «emaitasun» orren erdian olerkaria deadarka, lotuta lez, gertatzen da, ezin-esanak jota lez, berba orokorrak esaten:

O, Izadi!  
O, Bizi!  
O, Etorri!

(*Bidean gora*, 107).

Olerkaria ez da nekatuten izadiaren ugaritasun beti barri onen aurrean edo barruan:

Izadiari darion goramin  
edertasun ederra,  
egalik egalerako aberastasun  
maitebide Zabala...

(Gizonaz, *Bidean gora*, 21)

Bizikuntza lilluragarri ta alaia da geien baten bizitza esperientzi poetiku au. Adibidez beterik dagoz Muniategi'ren olerkiak:

Bizi bai bizitiren ederrera esnatuz,  
arako ikuste baikor ta maitasunez,  
izateari darion poza zeuganatuz

(Biziratze, *Bidean gora*, 15).

Baiña ez beti eta ez osorik. «Biziariegarra dario...» (Oñezkoak gera ta egunik egun, *Bidean gora*, 16).

Ikusi daiguzan olerki zirrargarri baten lenengo ta azkenengo aapaldiak:

Negarra dator  
lur, itxaso eta aizez,  
or-emendik urtendako  
barre-karkaxa lasai batzukin,  
karkaxa batzukin nastua,  
aundiagotzeko ludia,  
etengabeko itunez.

.....

Egalak ilun,  
 aulduta dagoz, itzalez iantziriko  
 irudi argalez.  
 Eta itzala da nagusi,  
 itzala nagusi  
 eta, besterik ez!

(*Bidean gora*, 134).

Munduko ugaritasuna argiz ta itzalez beterikoa da. Eta olerkariaren bizitzagandiko eder-lillura ez da paraisoko atsegiña. Itzalak, nekeak eta samiñak edertasun orren parte dira:

Ez, nire bizitzako bideak ez dira izan  
 larrosazko lorategi bitxi, lurrintsuak,  
 baizik nekezko itxaso ta lur bazterretan  
 ametsik ametsera emandako pausuak

(Denpora illa, *Karmel*, 1980-2,88)

Era askotakoak izan bear itzal da samin orreen zergaitiak. Esate baterako., pesteak beste, olerkariak ain maite dituan zuzentasun eta anaitasun eza-gaitik (olerkietan agertzen diran giza illunak aipatzen ditugu bakarrik). Gero, norbere barruko miseriak sortzen dauan oiñasea; billatu ta aztertu egizu zeure barrua:

illunpe orren  
 argaltasun  
 aterpe ixillean  
 billutsik ikusiko zera  
 billuts-billutsik,  
 narru gorrian...  
 argirik ezaren,  
 eziñaren eziñezko  
 gau illunaren  
 ondamendizko sakosta,  
 mintzo  
 ixillezko  
 bakartade negargarri  
 eskurik ezaren  
 lotura  
 utsune beltzean

(Ta gogo barrengo ikuste, *Bidean gora*, 22).

Baiña oindiño, eta batez be, «itzala nagusi», bizitza guztia joanean da-goalako, gero ikusiko dogunez. Poz-nekeak, illun-argiak alkarturik oretzen

dabe bizitzea. Baiña illunak ez dau inoz irabazle urteten; ikusi daigun *Oñez-koak gera ta egunik egun* olerkian:

eskurik ezaren,  
argirik ezaren,  
miseri arteko goi illuntasun,  
gaubide miña...

Alere...

O, biziok!:

oñaze,

neke,

arantza ta zauri arteko

amets-zirrikillu,

egun bakoitzeko

argi-une

ta itzartzetan...

Zenbatzu ibilbide ioran

ta, amesaldi sortzen diran!

Zenbatzu laztan-giro eder

ta, itxaropen, bat-batean!

(*Bidean gora*, 16).

Guzti onegaz batera olerkariak bizitzako edo bizitzearen misterioa asmatzen dau ixillean. «Ezkutuaren ezkutu!» diño bein *Miraripean* olerkian (*Olerti*, 1980, 69).

Goi zabaldi azkengabea  
eta, milloikaren artean...,  
izarbideetako misterioz  
itxasoan eroritako  
ur tantotxo bat bezala,  
betikotasunean galdua...  
zeiñek daki geroaren etorri,  
betiko ibilli orren  
bizitzako ezkutu ta berri?

(*Mundua, Karmel*, 1975-3, 59).

Giza biotza dardaratu egiten dauan ikuspena. Benetako olerkariak giza jakintzaren iturri dan asikerako ezaguera dau. Zer da azken-azken baten giza-bizitzea?

emen ari gera,  
itzal  
illunpean,  
eskua luzatu ta luzatu,

## 2. Aldia ta betikotasuna.

Orain aipatu doguzan gogapenetan aldiaren eta betikotasunaren artekoa be sartzen da zuzen-zuzen. Bizitzan zer eder asko nabaitzen ditu olerkariak (itzala tarteka), baiña bizitza batez joan-etorrikoa da, joanean da. Muniategi'rentzat gogapen-sentipen au ez da noizbeinkoa, ia ez da aparteko gai berezi bat (au be izan arren): bizitza poesi-gaiaren ondoren, zabalena, orokorrena dogu, itzal baten antzera bizitzako bizikuntza guztien atzean. Mai-tasun-uneak edo izadiaren edertasunak une baten euren lilluragarritasun-ean agertzen dira, ia geldi, baiña Muniategi'k eder geldi orretan ibiltea ta joatea ikusten dau. Asikera emon dogun olerkian be «uraren betiko ioana» eta «betimiña» asmatu ditu: bizitza barruan, azken baten, orokorren eta sakenen ditun bizikuntzak. Ibilte ori sarritan biziaren etorria da; izakuntza eder-alaiaren etorria. Baiña sarriago joaten da. Etorrian bertan jazoten dan joate. Adibide batzuk aukeratuko doguz zenbatgura olerkiren artean:

Ta, Aldi'ren ontzian betikari,  
beltzuraz datozten gogai, ametsez...  
Ibilliz dabiltz Eguzki ta Illargi,  
ta, ibilliz dua bai, gure bizia,  
beeratze betean, laño, orbelez...  
ibai ertzetan —unerik unera—  
erantziz biotz ta, arima guztia...  
ai! nai eta nai-ezko beera bearrez!

(*Udazkenekoa, Bidean gora*, 143).

Begitu daigun lenengo bertsoko kontrastea: «Aldi'ren ontzian betikari». Aldian garala ezagutze agiria; eta, batera, betikariak, ames eta asmuz. Joate orren bizikuntzak itzaldtu egiten dau beste alderdi batetik bizitzako eder-argiak olerkariagan ixiotzen dauan entusiasmua. Aldiak eta betikotasunak dagie borrokarik gogorrena olerkariaren gogoan:

Bai, bizi nai degu bai, bizi, ementxe izan,  
ta, gero ere izan, egun berri batean!  
Izan! Izan! Bai, ni naizen onek dei ta oiu,  
oiu dagit neure ezur eta aragipean,  
oiu dagit neure izatearen zador oni

(*Aizearen kideko, Bidean gora*, 154).

Olerkaria gizonaren testigu dogu barriro be emen, iñon izatekotan. Ez da naiko ederra, betikoa ez ba'da:

O, bai, agertze onen  
miraritzza betean,  
inguruak nuegoanduz...  
egoa naiz, betiren  
zabalpe zabalean  
gogoia betiratuz!

(*Miraripean, Olerti* 1980,70).

Maitasun bizikuntzak eragite bardiña dau: aldiko izateetan gogoak beti-kotasuna billatzen dau:

Eta, ezpanik-ezpan,  
biotz-ikara bizian,  
maitasun estalkiz bildua,  
Udaberri eze, iantzian,  
(betikotasun egarriz)  
mundu guztia alai neregana,

.....

(*Gutxien uste zanian, Bidean gora*, 96).

Giza izatea bera da, olan, aurrera jo bearra:

Ibilli egin bear  
eta, aurrera iarrai  
bidez —goiz ta iñular—  
begiak argi, ernai.  
Ibilli, negar ta par,  
ibilli aldanaño  
ur andian, bat-bakar,  
bat egin arteraño  
(bat egin itxasoagaz; Ur txiki, ur guztiuk, Karmel 1981-3,69).

Giza burruka onetan, baiña, olerkariak ez dau iñoz itxaropenik galtzen, jausialdiak izan arren:

aurrera nua itxaropenez  
arantza arteko larrosa  
eta, izar baten pozera,  
mendi gañeratuz...gero...  
beste zerudi, beste egun berri,  
beste argi baten deira  
bizitzeko pozez!

(*Eta, olaxe bidean gora, Bidean gora*, 72).

Edo aurreko sinbolo berbera erabiliz:

Bizi aldatze, unetxo oargabea  
elduko naiz bai, azkenengo nerera,  
neure itxaso sakon, Egun Aundira!!

(*Ibaiarena, Bidean gora, 76*).

Giza bizitzearen joatearen sentikuntza bizia dau olerkariak; eta betikotasunaren barne-eskakizuna eta itxaropena. Baiña aurrera joan bear onetan eta giza neke illun artean badauka bere gomutapenean asikerako argi bat: umezaro aberri txiki-andia. Olerkariaren, gizonaren muiñean, etorkizunera deitzen dauan umezaro aberriak argitzen dau. Lenengo, emen, *Arteaga* olerki osoa aztertu bear izango litzake:

Aurtzaroko arimapeanugar berrituz bizitza,  
araxe noa txustarrik-txustar, ioana orainduz;

.....

Araxe zortzi, amar, amalau bat urteko egalez...  
urte lilluratsu, urte zindo, urterik baikorrenez;  
araxe usoa baño usoago, aizeaz bat egiñez,  
oinkada goikari, etorkizunik etorritsuenetz.

.....

Araxe bizi billa, ioandako bizitz ori berbiziz (*Bidean gora, 130-31*). Esentzialak dira «ioana orainduz» eta «araxe bizi billa». Asikera billa, asikerako sortze-munduen billa dabil olerkaria, eta ez beste barik lengora biurtzeko, lengo berbera barriz bizteko; lengo idealaren billa dabil, etorkizunean legoken lengoaren billa. *Nire aurtzaroko ibaia* olerkian ibaiaz sinbolizatzen dau bere umezaroa: «irriparretsu» ta «gardenaa», nozik bein «asarre», geienetan «baretsu» ta «apal». «Ibai urrundu ta ubilla. Beti baitua nigan» (*Karmel 1975-3, 60*). Ordurik eratu zan bere mundua, gero ainbeste goraberaren artean aldatua izan arren:

ibarretan ta, basoaren onduan,  
azkatasunezko eragin-otsez  
barrendu giñan, alairik ta nekez  
benetako bizitzaren kantuan  
jatorrizko argitasun ta, senez.

(*Umezaro, Olerti 1982, 41*).

### 3. Izadia.

«Izadiko artu-emon barrutiz» «izadiz bizitzen ikas gendun» (*Umezaro, Olerti 1982, 41*), eta, beraz, Muniategi'ren olerkia izadian murgilduta ikusiten dogu. Izadia da sarritan gaia zuzen-zuzen, edo, geiagotan, erea, abagunea, poesiaren abiapuntua. Izadia osotzen daben errealidadeak, eta izadiko

aldiak eta aldakuntzak. Izadiko errealidadea eta onek sinbolizatzen dauan beste errealidadea batera dabiltz sarritan, bereiztu barik, anbiguidade poetikuan. Esate baterako, Gau argi *zerutsu batean* olerkiaren estrofa guren onetan:

Ai! bai, aundi, sakonak dira  
goietan altsu, zeruetako bideak;  
gogoarentzat ain eskuera  
eta, ala ere... ain urruti!  
betiratasun-argiz beteak,  
ain eder eta, ikusgarri!

(*Bidean gora*, 63).

Zer dira zeruetako bideok? Izar-bideak eta be bai; baiña ez bakarrik. Jarraian olan esango dausku-ta:

Baiña nire oñak lurrean dagoz

.....

Goiruntza nai eta, zirkinge,  
lurraren gerriari lotuak:  
nere izakera, nere bizia  
lurraren aragian sustartuak!

(Bertan). Baiña, berriro be, bertso oneek be esangura biren artean mobitzen dira.

Izadian urtaro bik dauke garrantzi paregabea: udabarriak eta udazkenak. Ez ainbeste euren fisikotasunean soillik, bizitzearen, biziaren eta joatearen agerbide diralako baiño. Udabarrian:

Millaka biotz zabaldu dira,  
millaka ego, millaka erle...  
millaka amets eta, lillura,  
poztasunezko zerutza bizi!

Maitasun bideak dira bai,  
bizitzako itxaropen bide...  
biotz-arloak, goraka, alai...  
ikututxo eder baten eske!

(*Goizeko belar...*, *Bidean gora*, 128).

Udagoienaren poesi-bizikuntza ikusteko *Oroit-miñez* olerki labur osoa emongo dogu:

Egungo Udazken arrats batez,  
Neure aintziñako giro batera,  
Murgildu nintzan unetxo baten  
Ta, angoxe billera maitean,

Gaztetasun zantzo ta ametsez  
 Neurez-neure goizetik gabera,  
 Bakar-bakarrik arkitu nintzan  
 Ioana zan lenari begira,  
 Orbel-artean, oroit-miñez.

(*Bidean gora*, 133).

Olerkariaren gogoak udabarria dau maite, bizia ta itxaropena dan ezke-ro. Udabarri ez margo nabarmenedia, ez zaratatsuegia, eratsua baiño. Baiña beste alde batetik, ez dau bearbada udazkena gitxiago maite, bizia makaltzen eta amaitzen dan aro ori. Ez dago kontraesanik: udagoienean beste bizi ta beste udabarri bat, beste munduen mundu bat astnatzen dau olermenak; udabarria baiño ederragoak dira olermenak asmatzen dituan izen ta forma bako munduak:

T'itxaropenezko egungiro barneminduz,  
 (igeskorra izanda ere gure etorria)  
 garo usai oiantsu, bidondo izalgarriz  
 begiak argiz bete ta, biotz-oñak arinduz  
 alako, betiratze sakon, geroko munduz  
 emai intziritsu bat, betimiñez dabildu,  
 zerbaiten kezka, bizitzako bide estuan  
 muin-muiñetaraño arima dana zirkinduz.

(*Gorakunde, Bidean gora*, 69).

#### 4. Maitasun-anaitasuna.

Naiko sarri biurtzen da olerkaria gai onetara. Maitasun berezia eta maitasun orokorra edo, beste era batera, anaitasuna esan geikena. Lenengoa zertzelada giztsu baten bidez daki adierazoten:

Eta  
 bat-batean  
 zure eskuakin iabetuz,  
 neuretu nintzan  
 arako,  
 goizbide argi  
 ezean...  
 zeru berriak oartzuz  
 zure begi artean.

(*Maitezko egada, Bidean gora*, 95).

Gutxien uste zanian  
 itz gozo baten bitartez,  
 biotzak loretu ziran  
 irripar emez.

.....

O, ze goizak,  
ze arratsak alkarrekin,  
alkarrekin alkar,  
gogoz-gogo,  
Iaungoikoa bitarte!

(*Gutxien uste zanian, Bidean gora, 96-97*).

Zertzelada oizkoak, gauza nabarmen arrarorik billatu bage, itzik lauenakaz. Baiña oartu «neuretu nintzan» ori (beste bein «geureagotuz» diño: *Maitezko egada, Bidean gora, 95*), eta «alkarrekin alkar» (azkenengoz aipaturiko lekuan, «biok-biotara»). Eta «Iaungoikoa bitarte», eta goizak eta arratsak. Maitasunean izadiak parte artzen dau edo maitasuna izadian zear edatzen da:

O, ze goi eskuratze  
ta, edertza ederrak  
egunaren bidean!  
Dana zan ego, lore...  
dana, emai pozagarri;  
dana, bata-bestezko  
ikuste zoragarri!

(*Biok batera, Bidean gora, 98*).

Bein ta berriro biztutzen dau bere olermena anaitasunak. Badaki gizonak ogia ta aterpea bear dituala. Baiña baita ez gitxitan itz laguntzaillea be:

atozte gizonarengana,  
itzik apal,  
itzik alkartsuenez  
ta gizondu zaitzeze,  
itz egoki,  
egitada anaikorre...  
bere kezka ta eragozpen,  
bere illuntze ta gau illunak,  
erabat arindu ta argituz...

(*Gizonaz, Bidean gora, 20*).

Asikeratik urten gura dau «gizarte, aberri, zuzentasun alde» (*Bideratu nadin, Bidean gora, 14*). Orregatik, ekin, diño, aberriaren eta zuzentasunaren alde:

ekin  
io ta ke,  
mallu,  
atxur,  
idazkortz,  
tresna egokiakin

.....

Ekin  
 umezurtzen,  
 txiroen,  
 menperatuen  
 bideko  
 biurrikeri guztien aurka  
 (Zu ere..., *Bidean gora*, 49-50).

Olerkaria ez da mundutik kanpo bizi eta badaki begiak zorrotz mundu onetako egiteetan jarten:

Asko dira zitalkeri utsez  
 iñoren min, iñoren izerdiz,  
 iñoren odol, lepo bizkarrez  
 ari diranak... asko dira bai  
 iauregi altsu, eliz zuloetan  
 ardu larruz iantzi oi diranak,  
 gizona ioputzeko ekiñetan.  
 (*Asko dira bai, Bidean gora*, 149). Ikusi giro onetan, naiz ta beste tankera  
 baten, *Uri barnez olerkia* (*Bidean gora*, 150-53).

Baiña gai partikularrak baiño arago, anaitasun au olerki guztietan ixuri dan berezko bizikuntza, berezko ontasuna da; bizitza osoa ikusi ta sentitze-ko moral-goitasun eta gizatasuna.

## 5. Eta Jaungoikoa.

*Billaketa* olerkian «Billa ta billa, Zure billa nabiltzu, o, Iauna!» autor-tzen dau olerkiak. Billa izadi, zeru lur ta itxasoan, odei, arri ta ibaian, igarotze, gorputz ta arimean (*Bidean gora*, 159). Baiña au ez da momentu bateko otoitza, bizitza-bazter batzuetako billaketa. Olerki beronek adierazoten dauanez, bizitza guztian, bere atal ta osotasunean billatzen dau Jaungoikoa olerkariak. Eta au olerkariaren azken eginkizuna izateraiño:

kanta goraka, kanta Egillearen Izena,  
 egarri asetuz Bere Magal Eskuartez!  
 (*Olerkariarena, Bidean gora*, 59).

Bere oparotasunean, goraberetan, «bizia Iaungoikoz dabil bai, itzal-ar-gipean», «intzirika dabil goi billa, bideak betean» (bertan, 55). Olan senti-tzen dau sakonean olerkariak izadia:

Eta, Iaungoikoa dabil ego ikaraz  
 zelaietan gora, belar ta lorez

.....

Iaungoikoa dabil bideratua,  
 maitetasuna erein ta zabalduz  
 (Eta, ego-aize epel artean, Bidean gora, 60). Orregatik dei egiten dau olerka-  
 riak: zatoze izadiaren edertzetara.

Bizia dan guztia besarka,  
 Danok batera  
 Iaungoikotan  
 (Izadiarekin eskuz-esku, Bidean gora, 67).

*Gorakunde* olerkian azaltzen dauanez, izadian «Iainko aztarna alai-  
 tsu»aren bizikuntza izan dau-ta. Beraz olerki orrek gloriz beteriko amaia  
 dau:

O, ze gogo-aizeratze, bioztasun garbiak,  
 goi-ikarazko geroratze ixil-ixillean,  
 betikoz-betiko, Izadiaren muin-barnez  
 Eleizpe aundienean Iaungoikoa aitortuz,  
 gorakunde bizigarri baten baitasunez!  
 (Bidean gora, 70).

Bizitzaren bizi barriak gogamen edo bizikuntza miragarri au sortzen  
 dautso: «Esku-artean dabilgu bai Iaungoikoa» (*Bizi-ikara, Bidean gora,*  
 116).

Gizarteko anaitasunean, edo gizonarekiko kontzientzian, Jaungoikoa  
 asmatzen dau. Ez dogu ez astirik, ez gogorik ez adorerik oinperatuari edo  
 lur jotakoari laguntzeko. Baiña ortxe dabil Jaungoikoa:

Bai, ortxe dabil,  
 langille beartsu,  
 gizon izarditu,  
 gizon mindu,  
 oñazetu guztiakin...  
 ortxe,  
 bein ta berriz  
 noiz itzar,  
 guri deika,  
 noiz bereganatu,  
 noiz gizon izatera  
 bein ta betiko,  
 iritxiko ote geran!  
 (Uri barnez, Bidean gora, 152-3).

Berez-berez ikusten dau Jaungoikoa giza-bizikuntza orretan. Gizarte-  
 eskakizun orretan gure billa dabil, bereganatzeko, eta gizontzeko. Berezko-  
 tasun bardiñez asmatzen dau Jaungoikoa maitasun-bizipenean: «Jaungoi-  
 koa bitarte!» (*Gutxien uste zanian, Bidean gora, 97*).

Jaungoikoaren *egarria* dau olerkariak («ase iziñezko Iainko-egarritz»: *Gau argi zerutsu batean...*, *Bidean gora*, 64). Edo *azken itxaropen* lez asma-tzen dau («deadar ta oiu dagigu Iaungoiko bearrean»: *Aizearen kideko*, *Bidean gora*, 154). Eta beti biziaren *trazendentzi* edo *zabaltasun mugage* lez; bai izadiaren eder-bizikuntzan, bai anaitasun eta maitasunean, bai bizitzako beste bizikuntza askonetan. Ain sarri aurkitzen dogun betikotasun gogape-na mugagetasun onen alderdi bat da. Jaungoiko bizikuntza ori ez da aparte-ko aundikeriren bat, eguneroko bizitzaren egia baiño:

Maite ditut gauza apalak,  
bakoitzaren biotz-arimaz  
eguneroko bizi-lorrean,  
Iainko Apurño Zoragarritz  
eskutu maitezko ariakaz  
ta, ederdura ikusgarritz  
bizia goitarazten dutenak

(*Gauza apalak*, Karmel 1974-4,58).

## II. SINBOLOAK

Laster azpimarratuko dogunez, Muniategi'k geien baten poesi-izkera zuzena dau. Alan be sinboloak badarabiltz, euren berezko gaitasunagaitik beste zeozer adierazten daben irudiak. Emen gogoan doguzanak sinbolo errealak dira: sinbolo orrek euren izatean be badauke poesi baliorik; baiña, batera, edertasun orretan beste zer bat adierazteko gaitasuna dabe. Eure edertasuna ez datza euren sinbolo izatean bakarrik (beste zer bat adieraz-tean); baiña berezko poesi-balioa aundiagotu egiten da sinbolo-gaitasunaz erabiltean. Olan, «bidea» berberak eta irudiak badauka olerkariarentzat bere lenengo errealidadean poesi-balioa, beste barik (edo, beintzat, beste-rik zuzen eta berariz adierazo barik: poesian batez be adierazpen-muga zeatzak jartea eziñezkoa da-ta); baiña Muniategi'k geienetan bizitzako bi-dea emon gura edo zuzen edo zearka (zearka: «lengo» bide fisikoak adieraz-tean be bide orreek bizitzako pausuz beterikoak dira, bizitzaz eta bere mis-terioaz beterikoak). Eta au da, bidea, bat aukeratzekotan, iñon ba'da, Mu-niategi'ren sinboloa. Sinbolo onetan bizitza eta aldikortasuna batera datoz: giza-bizitza konkretoa. Olerki bildumaren izana be «Bidean gora» dogu; eta lenengo olerkian «bideari oles» dagitso; bigarreanean «bideratu nadin» da gaia, eta olan jarraian. Sinbolo onegaz «bizitza» berbeaz esaten dan berbera azaldu nai ete dau olerkariak? Alperriko berba aldatzea ete da, edo beintzat berba gogaikarri bardiñari iges egitearren? «Bizitza» esatean ez da intuiziño edo poesi-une orretan asmatu dan guztia azaltzen. Bizitzaren aberastasuna

(ez bere gai partikularretan bakarrik, bizitza intuiziñoa berean baiño) askoz emonkorrago da, eta orregaitik erabiltzen dira sinboloak: ez kasketaldiz, ez aldatzearren, poesi-intuiziñoa bera konkreto emotearren baiño. Bizitza intuiziñoan (bere osotasunean edo nekean edo pozean, joanean, oroipeanean...), «bidea» diño bein olerkariak, «goiza» beste bain, eta abar. Eta, bestera: bideak sortzen dautsoen lenengo zirraren ostean, bearbada beste zirrara zabalago ta sakonago batek menperatzen dau olerkaria, eta «bideak» diño, baiña bideok bizitza poeziz inguratuta dagoz. Esate baterako:

O!, Lenaren bide argi,  
bide egakor, bereziak;  
bide latz, bide egokiak,  
ioandako bide amesti,  
bide zabal, bide maiteak...  
amaika aldiz, kutunki,  
biotz-gogoz laztanduak!

(*Arrats bidez, Bidean gora*, 135),

Bidearen antzekoa, baiña ez ain zabala, dogu «goiza» (edo «argia»). Bidea bizitza osoaren (baiña iñoz be ez osorik) sinboloa dogu; «goiza», oster, bizitza alderdi baten sinboloa (berezko edertasunaz gaiñera). Gogoratu daigun emen Muniategi'ren gazte-gaztetako lenengo liburuaren izena «Goiz-aize» izan zala. Itzok ez dira liburuaren izena bakarrik, eta olerki bilduma bera baiño sabalagoak eta sakonagoak dira: olerkariaren lenengo ta betiko intuiziñoa datza or; intuiziño ori ez da ango olerkietan amaitzen; geroko eta bizitza guztiko olerki-lan guztian bein ta barriro urtengo dabe: olerkariaren poesi barru-forma dira, aurrerago emondako adibideak be naiko erakusten dabenez. Ordurik ona azaltzen dau Muniategi'k bizitzako poesi-intuiziñoa sinbolo sendo trinko batzuen bidez.

Bigarren bildumaren izentzat «Bidean gora» aukeratu dau, izenik egokiena esan leike, olerkariaren poesi bizikuntza momentua gogoan arturik. «Gora» sinboloa be oso erabillia da; kontesto diferenteetan, mundu idealaren sinbolo da batzuetan, eta bizitzako aldatza beste batzuetan. Lenengoaren adibide bat:

Bidean gora, amets!... Izatekotan!  
Izarrak, iturriak...Bai, bizitza da

(*Bidean gora, Bidean gora*, 35).

Bigarren erabilkeraren adibidea:

Eta, olaxe bidean gora  
nekeko bidean beti aurrerantza,  
biotz zauritu, arima mindua  
aldapa gora, gau otzaren bildur

.....

Eta, gora nua, aldaz gora,  
 (gorputz guztia minbera)  
 tontorreratzeko ametsez,  
 aurrera nua itxaropenez

(*Eta, olaxe bidean gora, Bidean gora*, 72). Erabilkera biak batera ikusi daitekezen emen: aldatz gora, eta tontor amets eta itxaropena.

Argi eta goizaren kontrako sinboloa arratsa da (edo gaua ta illuna). Amaitzearen sinboloa geiago, baiña baita munduko noraezarena be.

Aizea, goiz-aizea edo udabarri-aizea da: bizitasunaren aizea; baiña askotan, ain sarri izan ez arren, udazkeneko aizea be bai, eta ekatza.

Beste sinbolo batzuk oindiño: itxasoa (aunditasuna, amaia, betikotasuna); iturria (jatorria eta anaitasuna: «Iturria ba'nintz iturriai ura ba'nintz ura» (*Bidean gora*, 34).

Sinboloak ez dira berba bakar eta lotu bategaz geratzen. Aldakerak aritzen ditue edo beste antzeko berbaz azaltzen dira. «Bidea» sinboloa ez da berba soil orretan agertzen; sinboloa aberatsago da eta berba-arlo bat artzen dau, ixurkorra eta malgua da, beti be «bide» irudiagaz zerikusi euki arren: bidegite, joan-etorri, igarotze, bidebera, bidegintza, ibillia, bidegarri, ibilbide, gogobide, etorbide, biozbide, ederbide, argibide, bidetasun, begibide, gaubide) bideratze...

Goiz, argia, egunbera, egunsenti, egundu, argitu, goizgora, argibera, eguzkibera, eguntza, eguntasun, argimin, egunbide, egunkera, argitasun...

Goi, goitura, goibide, goibera, goigarri, goratze, goramin, gorakunde, gorapen, goitada, gorakuntza, gorati, goraketa, goikari, goitu, zeru, zerudi, zerutza, izarbide, zerumin zeruketa...

Gau, illun, arrats, gaubide, illuntze, itzala, illunpe, gautada, arratsbide, gaubera, gaudi, gautasun, gaueratze, beltzura, gauaro, laiño..

### III. IZAKERA

*Bidean gora* bildumari egindako itzaurrean S. Onaindia'k olan diño: «Iz-kera berri, argi, arin, ausartean egiñak ditu olerkerik geienak (...). «Arrigarria da poema geienetan darabillen itz-jokoa. Olerkariak ez dago gogapen eta ideiak erein bakarrik, poesi-izkuntza berezia aizeatu ere bai. Nere eritiziz, eredugarri dugu: olerki-izkuntza bipilla darabil. Eztu kidekorik auskal olerkarien artean, ez lengoetan ez oraingoetan. Atzerritarretenan, baiña, badu antza zenbait poematan, bear bada Gabriel y Galán'ekin» (8 orr.). Au azkenengo au bear bada kendu ezkerro, Onaindia'k diñoana egi utsa da. Lenengo ta bein izkera kreatzaillea dauka, sortzaille. Sorkera-inar ori batez be

atzizkien erabilpidean ikusten da. Gogoratu aurrerago sinboloen edakortasunaz esandakoa eta ipiñitako adibideak. Atzizkidun berbakolan alkarren atzean erreskadan ipinteak ez dau askorik esan gura; euren momento egokian artzen dabe bizia ta indarra:

Izadiari darion goramin  
edertasun ederra,  
egalik egalerako aberastasun  
maitebide Zabala...

(*Gizonaz, Bidean gora, 21*).

Eta, bai,  
eraman nazazute argiz-argi,  
itzalez-itzal,  
zerupe  
gogamiñezko egoz  
gogai sakon, lillura-amesetan,  
bizibidezko iturritz  
ederketan.

(*Izadiarekin eskuz-esku, Bidean gora, 67*).

Izakera sustantziala dau: poesi-bizipenean parte artzen daben errealidadeen izenak zuzen esaten dira, ingurumari ibilli barik. Metaforak eta beste apaingarriak ez dauke garrantzirik emen. Erabiltzen diran sinboloak, bestalde, giza bizikuntza unibertsalak dira. Atzizkien bidez lortutako izenak sarritan generalak eta abstraktoak dira, baiña fresko ta ulergarriak. Orrela lortzen dau izkera indartsua; baiña berezkoa, indarkeri bakoa, planta artifiziailik bakoa.

Izakera landua eta esandako izen abstraktoak erabilli arren, laua da: geien baten egunerokoa, eguneroko errealidadeen izenak. Gaia be olakoa danean ondoren au daukagu:

Egun batez  
ume nintzala,  
amonarekin  
baserriko etartean,  
babarrun ale batzuk  
bere altzotik  
lurrera  
erori zitzaizkidan  
eta, maitez,  
gozoki ta laztan,  
agindu zidan:  
bai, seme, iaso arren,

.....

(*Amonaren ikasbide bat, Bidean gora, 23*).

Baiña eguneroko izkera darabillala esateaz ez dot adierazi nai prosa mailako tonoa darabillanik: Muniategi'k geien baten lirika tonoa garaian egiten dau berba. Lirika egin gura dau eta mailla orretan jarten da. Eta bere berbak eta esaldiak berez-berez datoz eta korda erreza eratzen dabe: ibai garbia litzake bere irudia, eta ez, esate baterako, eskultorea.

Nai dauanean bertso zabal aundikiak egiten ditu:

O, Arteaga, errietan erri! Zure luze, zabalean,  
betikoz zaitut bai ementxe biotz-arimaz barrutu,  
ementxe bai, neure-neurean, magalperik beroenean,  
betikoz ainbeste egun ioanen itzal berritu!

(*Arteaga, Bidean gora*, 132).

Nozik bein bertso labur-laburrak be erabilten ditu. Bide au iñoz errekurso egokia da, baiña bide normal lez nik neuk ez neuke onartuko. Izan be pentsamentuaren ibillia ebagi eta apurtu egiten da, eta ez da ikusten berbak olan bananduteko errazoa. Muniategi'k geienetan luzera normaleko bertsoak darabiltz. Oizko aapaldi klasikuak (kopuru, neurri, errimaz) biribiltzen daki, berezkotasunik aundienaz. Baiña asko ditu errima azkedunak eta bertso azkeak be. Baiña geien-geienetan, edo beti, izkuntza neurriaren, erritmoaren senaz egiñak.

Izkerari buruz oarren bat ipintekotan au esango neuke: batzuetan ugartasuna urritu egin bear litzake bearbada, iñausi. Bikoteak eta irukoteak larregi lerrotzeak aztundu egiten dau bertsoa eta erretorika antza emon. Adibidez, beste alde batetik ederra dan *Itxasoratze* olerkian:

Olaxe, betikoz...  
bateko poz,  
besteko nekez...  
zori ezberdiñez  
itxasbera,  
ibilliz ibilliz...  
bere eresi  
ta bere doñuz,  
bere itzal  
ta bere argiz,  
uintxoak uin,  
itxasoak-betea  
naramate

(*Bidean gora*, 90-91).

Jakiña, badaki oso neurrizkoa izaten be, eta nire ustez bikaintasun bidea litzake (naiz ta gai bakoitxak bere era eta tankeras eskatu). *Mindura* olerki laburra osorik ikusi daigun:

Aize itun, mindua,  
 Bakartiaren gogoan;  
 (Euri, izotz, lañoa)  
 Egalpe illunean,  
 Ez gaurko, ez biarko  
 Itxaropenik gabe,  
 Maitasunik ezaren  
 Utsune aztunean:  
 Argi otzezko negua  
 Biotzondo zaurituan!

(*Olerti* 1983,182).

Emen be badago bikote bat (1. bertsoan), eta irukote bat (3. bertsoan), baiña aditzik ezak eta beste berba esenzial aukeratuak neurritasuna damo-tsoe olerkiari.

#### IV. AZKEN IRITZIA

Lan aundiaren jabe diranen artean beintzat ez da muga bako olerkaririk. Bestera, gizaz gaiñekoa litzake. Muniategi'k baditu bere mugak, nire uste apalez. Aipatu barri dogun ugaritasun larregia, nik neuk neurri urriagoa gura neukenetan. Oneri loturik, erretorika apur bat nozik bein, poesi bako, edo gitxiko, errekurso literarioak lerrokatuz. Eta azkenez, gizarte ta anaitasun gaietan, errekurso literarioak lerrokatuz. Eta azkenenz, gizarte ta anaitasun gaietan, moralismo kutsua noz edo noz: borondate oneko eta gizabidezko gogapen moralak, baiña, emen be, poesi gitxikoak. Oindiño beste bat be azalduko neuke: ez ete dira gure egillearen olerkiak biribillegiak, osoegiak? Nik neuk alako etenak, utsuneak, ixilluneak gura neukez, agertu diran poesi bizipen esentzialak euren adierazpen-indar guztia emon dagien.

Muga oneek gorabera, baiña, Muniategi klasiku bat da euskal lirikan. Klasiku bat: bere poesi-bidean betetasunera eldu dan olerkaria, eta, beraz, erriarentzat ondasun orokor eta erreferentzi-puntu biurtu dana. Muniategi'gan gizatasun zabal sakona aurkitzen dogu, bizitzako eta gizarteko arazoak, giza-duintasuna eta munduko misterioa olerkaria danez berriro asmatu eta adieraztean; egiz, errealismoz ikusiz, eta, batera, mugabako itxaropenez argituz: «Ez dadilla izan illungarria/ zure abestiaren sen, magala» (*Emantza, Olerti* 1982, 39). «Danik gogorrenik ere/ eusten diot biziari» (*Neurekerak, Olerti* 1982, 40).

Gizonagandik ur bizi, lan egin eta abestu dauan olerkari onek beti zaindu dau lirika mailla garaia, zintzo izan jako bere poesi-deiari beste ezegaz nasta barik.

Izkuntza poetikua menperatzean bikaiña da. Errekurso artifizial barik, sinbolo unibersal sakonak eta izkera kreatzaillea erabilliz, erriaren izkuntza bera ederrera ta betetasunera jaso du.

«Lauaxeta»k *.Goiz-aize'ri* egindako izaurrean olan agurtu eban olerkaria: «Muniategi'k dardara, ikara ba'rija daka'rskigu. Odei zadortsuben itsurak, palmondoen amets-nayak, Kolonbo'ko belaeen baltza. Gau' arte ixan doguzan olérkarijakandik zerbaitek berestu darua. Bere begijak daukaz. Gitxigan aurkitu daikegu gaste onengan aurkitzen dogun edér'ti-miña» (*Goiz-aize*, 8-9). ««Lizardi» il zanian itun gengoan; gau' pozik gagoz. Muniategi'ren olérkijak edozein elértik beretzat autuko leukez» (bertan, 13). Lenengo olerki aek gerokoakandik apur bat urrin geratzen dira: ez dauke gerorakoen dotoretasun, malgutasun, sakontasunik, geien baten. Baiña orduan be Muniategi, bai gaiak ikusteran eta bai izkuntzan, orduko izar andiak baiño berezkoago eta freskoagoa zan. Berezkotasun eta barritasun ori asmatu ebazan bearbada «Lauaxeta»k aurreko eritziak emotean. Baiña ordurik ona Muniategi, berezkotasuna galdu barik, azi ta sakondu egin da bizitza ta poesi bizikuntzan, eta lirika izkuntza gaiñak lortu ditu.

Bere itzulpen ugariak be erakusten dabenez, euskaldunak ezeze, beste naziñoetako olerki-mobimentuak eta olerkariak ondo ezagutzen ditu. Artu-emon orrek nai-ta-nai-ez izan bear bere eragiña. Baiña nik ez dakit norena aparteko eraz. Ez dau artu biderik iñoren kontra, ez iñoren alde; ez jako iñongo eskolari lotu. Berari dagokion olerkia emon dau.

Ez da beragan originalkeririk agertzen. Azke eta zintzo, bere poesi-senari jarraituz, eregi dau bere monumentu poetikua bizitzako lan ixillean. Ixiltasun au ondo jagoko olerkariari, kreatzailleari. Baiña, orain, autortzea eta onartzea zor dautsogu. Eta bere lan guztiak, jatorrak beintzat, albait las-terren argitaratzea.

*Luis Arostegi*